

Eusebio Maria Azcueren jaiotzaren bigarren mendeurren- jardunaldia

Lekeition, 2013ko irailaren 20an

Euskera. 2013, 58, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

Irailaren 20an, Lekeitioko Udalak eta Euskaltzaindiak Eusebio Maria Azkueren omenezko jardunaldia egin zuten Lekeition, haren jaiotzaren bigarren mendeurrenaren harira.

Jardunaldia Akademiaren Literatura Ikerketa batzordearen ekimenez antolatu zen eta hauek izan ziren hizlariak: Jon Kortazar, «Eusebio Azkueren poesiaren bidetik»; Josu Bijuesca: «Parnasotik *Euzkadia*-ra. Eusebio M. Azkueren poesiagintza eta nazio identitatea»; eta Xabier Altzibar: «Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak?». Sarrera-hitzak Xabier Arrate Lekeitioko Euskara zinegotziak esan zituen, eta agur-hitzak Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Euskera agerkariko zenbaki honetan, ekitaldiaren nondik norakoak azaltzen dituen sarrera honetaz gain, Jon Kortazar, Josu Bijuesca eta Xabier Altzibarren hitzaldiak bildu, osatu eta ikerketa artikulu gisa argitaratu dira.

Eusebio Maria Azkue jaio zela berrehun urte betetzen diren honetan, haren bizitza eta lana izan zituen hizpide Jon Kortazarrek. Aurkeztu zuen lanaren xede nagusia hau izan zen: bere bizitzari buruz dakiguna errepasatzea, zuzentzea eta osatzea, bere garaiko dokumentazioari helduta.

Josu Bijuescak gogora ekarri zuenez, «XIX. mendean euskal naziotasunaren ideiak toki zabala bete zuen politikari, kazetari, idazle edota pentsalarien artean. Euskal Herri penintsularrari dagokionez, esan izan da XIX. mendeko euskal identitatearen osagaiak ondorengoak direla: foruak,

fede katolikoa, historia berariazkoa, euskara eta abertzaletasun bikoitza (alegia euskal abertzaletasuna eta espainola)». Bijuescaren esanetan, Eusebio Maria Azkueren poesiagintzak ondo erakusten ditu euskal identitatearen alde horiek guztiak, beraren bertso sailetan arakatuz gero.

Xabier Altzibarrek «Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak?» izeneko hitzaldia eskaini zuen. Eusebio M. Azkueren bi alderdiri buruz mintzatu zen Xabier Altzibar. Lehen partean Eusebioren biografiari eta obrari dagozkion argitasun batzuk eman zituen, Lekeitioko Nautikako Eskolan hark eginiko lanaz (1862-1873), eta baita bere familiaz zuen arduraz ere.

Bigarren partean, hizlariak adierazi zuen kontuan hartu behar dela Eusebio Maria Azkueren eskuizkribuak sakabanatu zirela, «eta behintzat galdetu behar dela zein diren haren olerkiak. Adibidez, ea harenak diren *Carlistenac* bertsoak, Uriartek bilduak eta Eusebio Mariari egotzi zizkionak». Altzibarren ustez, bertso horiek ez dira Eusebio Maria Azkuerenak, «kontuan hartuta enuntziazioa, noizkoa den, eta baita hizkuntza, estilo, topiko literario eta metrika xehetasun batzuegatik. Bertso horiek Bizenta Mogelenak dirateke». Bestalde, hizlariak Bizenta Mogel eta Eusebio Maria bizkaierazko poeta edo bertsoegileen tradizioan kokatu zituen, gabon-kanten eragina eta haien joera morala azpimarratuz.

Amaieran, Andres Urrutiak agur-hitzak esan zituen. Gogoan izan zuen Jean Haritschelhar zena, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordearen burua eta euskaltzainburu ohia, eta Eusebio Maria Azkueri buruz ere hitz batzuk esan zituen. Bere esanetan, «aitzindari» izan zen euskara eta euskal kultura zabaltzen.

Eusebio Maria Azcueren bizitzari buruzko zertzelada berriak¹

Nuevos apuntes sobre la vida de Eusebio Maria Azkue

Nouvelles notes sur le vie d'Eusebio Maria Azkue

New details of Eusebio Maria Azkue's life

KORTAZAR, Jon
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jasoa: 2014-02-08

Noiz onartua: 2014-04-28

1 Lan hau Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen IT 851/13 Ikerketa proiektuan kokatzen da.

Artikulu honetan Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873) idazlearen bizitzari buruzko berriak aurkezten dira. Artxibategietan lana egin ondoren dokumentu ezezagunak aurkezten zaizkio irakurleari eta ikerlariari. Batez ere, Bizkaiko Foru Artxibategia eta Bermeo, Mundaka eta Lekeitio Udal Artxibategiak arakatu dira. Alaba ezezagun baten berri emateaz gain, artikuluan bere bizitza pribatuari eta profesionalari buruzko notizia berriak ematen dira ezagutzera. Haren poesiak utzitako ekarpena aztertuz bukatzen da lana.

Hitz-gakoak: Eusebio Maria Azcue, Biografia, Nautika Eskolak, Poesia erromantikoa.

En este artículo se dan noticias de la vida de Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). Tras documentarse en los archivos, se presentan documentos inéditos al lector y al investigador. Esta labor de documentación se ha llevado a cabo básicamente en el Archivo Foral de Bizkaia y en los Archivos municipales de Bermeo, Mundaka y Lekeitio. Además de dar noticia de una hija desconocida hasta ahora, se dan a conocer aspectos inéditos de la vida privada y profesional de él. El artículo finaliza estudiando la aportación de la poesía de Eusebio Azcue.

Palabras clave: Eusebio Maria Azcue, Biografía, Clases de Náutica, Poesía romántica.

Cet article nous donne des informations sur la vie d'Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). Après des recherches dans les archives, des documents inédits sont présentés ici au lecteur et au chercheur. Ce travail de recherche documentaire a été mené principalement aux Archives Forales de Biscaye et aux Archives municipales de Bermeo, de Mundaka et de Lekeitio. Il parle d'une fille inconnue jusqu'ici et montre des aspects inédits de la vie privée et professionnelle d'Eusebio Maria Azcue. L'article étudie en fin l'apport de la poésie d'Eusebio Azcue.

Mots-clés: Eusebio Maria Azcue, Biographie, Cours de Navigation, Poésie romantique.

Information is provided on the life of the author Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). As a result of archival research, previously unpublished documents are presented to the reader and researcher. The research has been carried out primarily in the Biscay Foral Archives and in the municipal archives of Bermeo, Mundaka and Lekeitio. As well as informing of a daughter whose existence was unknown until now, new information is provided on various aspects of his private and professional life. The article ends with a study of the contribution made by Eusebio Azcue's poetry.

Keywords: Eusebio Maria Azcue, Biography, Navigation classes, Romantic poetry.

Eusebio Maria Azcue edo Eusebio Maria de los Dolores Azcueren (Lekeitio, 1813-1873) bizitzari buruz dakiguna berrikustea, zuzentzea eta osatzea da lan honen helburu nagusia.

Bizkaiko Artxibo Foralean lau dokumentu daude Eusebio Azcueri buruz, eta laurak ardatz gisa hartuta eraman lan hau. Dokumentu gehienak Tribunaletako atalean aurkitzen dira eta, beraz, nahi eta nahi ez, horien bidez pertsonari buruz hartzen den irudia ez da oso atsegina izaten. Lau horietatik bi dira zehazki Tribunaletakoak eta Eusebio Azcuek izan zituen arazoen berri ematen digute.

1. Deustuko Udalak hartzen duen berria 1849an. Eusebio Azcue eta Nautika irakaskuntza

1849. urteko apirilaren 23an Hezkuntza Publikoko Zuzendaritza Orokorak jakinarazten dio Deustuko Udalari Agustín Urrutiak Eusebio Azcuek beste eskubide duela eta, beraz, gai dela Udaleko Nautika Eskoletan irakasteko.

Dokumentua berria da, eta zerbait esaten du Eusebio Azcueren bizitzari buruz. Ez dakigu nor zen Agustín Urrutia, baina badirudi Azcueren mailak zerbait adierazten zuela. Agian adiskideak ziren Urrutia eta Azcue, eta hark Azcueren esperientzia erabili zuen lanpostua lortzeko, jakina baita Azcuek bere ibilbidean hiru herritan eman zituela Nautika eskolak. Literatura munduan gabiltzanok ez, baina historiagileek, batez ere Gonzalo Duo ikerlariak (2001), emanda zuen datu garrantzitsua, Eusebio Azcuek curriculum bi aurkeztu zituela: bata, 1842. urtean Bermeoko Eskolan lan egiteko eta, bigarrena, hogeitau urte geroago, 1862. urtean, Lekeitioko Nautika Eskolarako eskaria egin zuenean.

1842ko curriculumak, Zamudion 1842ko abenduaren 6an sinatua, Bermeoko Artxiboan ikusteko beta izan dugu. Aitorpen horrek datu hauek uzten ditu agerian (Duo, 2001, 88-91, eta BUA-992):

a) Gaztelera ongi menderatzen du: «Conocimientos exactos de Gramática castellana». Matematika-ikasketak ere baditu, kalkulu diferentziala eta

integrala, Bilboko Kontsulatuaren eskolan eginak: «se dedicó á las Matemáticas en el Iltr. Consulado de Bilbao». Ez dira aipatzen Bilboko San Franzisko komentuan egindako latin eta filosofia ikasketak, baina datua Resurreccion Azkue semeak aipatua duenez, ontzat eman beharra dago (PB, 5); dena dela, oker dabil Azkue esaten duenean laster joan zela sendia Zamudiora bizitzera. Azcue Barrundia familiaren seme-alaben bataio tokiak aintzat hartuz gero, 1818an Bakion bizi zen familia eta 1825ean Zamudion, urte horretan bataiatu baitzuten Domingo Bernabé semea eta 1827an, berriz, Josefa Ygnacia Margarita alaba. Hurrengo urteetan ere izan zituzten seme-alabak: 1830ean eta 1832an. Saiatu gara familia aurkitzen 1827ko Errolda poliziala deiturikoan, baina ez dugu aurkitu ez Zamudion, ez Bilbon, eta ez Lekeition ere. Garai horietan Azcue zenbait gazteren irakaslea izan zen: «en las que tiene también el honor de haber instruido a varios jóvenes».

b) Segundo Olabarria irakaslearekin Nabigatzeko Artea edo Pilotajea ikasi zuen eta bidaien ondoren, «Hirugarren Pilotu» titulua zuen: «Tercer Piloto de la carrera de ambas Américas y de Europa». Horrek esan nahi du itsasoan ibili zela, baina ez du berez adierazten bidaia luzerik egin zuenik, edo hori zuenik ogibidea: «y después de los correspondientes viages en clase de agregado á Pilotos para perfeccionarse en la práctica». Ikasketa bidaiak izan ziren, pilotu izateko ikasketez gainera, praktikak egin behar zirelako. Horrek berez ez du esan nahi itsasoak urratzen ibili zenik.

c) Irakaslea kontratatzekeo deia Bizkaiko Aldizkari edo Buletinean agertu zen 1842ko ekainaren 10ean. Iragarkian, 3.300 erreal kuarto eskaintzen zen soldata moduan irakaslearentzat.

d) Eskariaren ondoren kontratu eskritura gorde da Bermeoko Artxi-boan, eta horretaz Gonzalo Duok ez du ezer zehaztu. Kontratuan garbi adierazten da zein izango diren irakaslearen lanak: kontratua bost urtetarako zen; lana, otsailaren 1etik 1848ko otsaila arte; soldata, 300 dukatekoa; bost jakintzagai irakatsi behar zituen: Aritmetika, Geometria, Trigonometria, Kosmografia eta Pilotajea; ikasketa orduak, hauek: neguan, bederatzietatik hamaika eta erdietara, eta ordu bietatik lauretara; udan, berriz, zortzietatik hamaika eta erdietara, eta hiruretatik bost eta erdietara; Císcarren eskuliburua zen oinarritzko eta derrigorrezko testua, baina onartu zen metodo la-

burtua erabiltzea; Azcuek hilero eman behar zuen ikasleei buruzko informea; Bermeon jaiotakoek ez zuten ezer ordainduko eta Azcuek ezin zien dirurik eskatu, baina bai, aldiz, kanpokoei; gaixorik egonez gero, ordezkoa Azcuek bilatu eta ordaindu beharko zuen, baina gaixotasuna betiko izan balitz, lanpostua hutsik geratuko zen eta deialdi berria egingo zuen Udalak. Aipatu behar da Udaleko burua Juan Ángel Yradi konstituzionala zela eta Azcue, berriz, karlista ezaguna; hala ere, plaza lortu zuen.

e) Eskolak Bermeoko frantziskotarren komentuan ematen ziren. Beraz, oso erraza izan zen Jose Antonio Uriarteren eta Eusebio Azcueren arteko harremana. Eliza erlijio kulturako gorde zen, baina fraideen etxea Nautika Eskolarako erabili ohi zen. Datu hori oso garrantzitsua da, zeren esan baitzekugu une horretan hasi zuela harremana Jose Antonio Uriarte fraide eta idazlearekin, eta bere poema batzuk 1860tik 1862ra bitartean sinatuak agertzen badira ere, une horretan ekin ziola poesia idazteari. Beraz, orain arte uste zenaren aurka, pixka bat lehenago jarri beharko genuke haren poesia lanaren hasiera, «Pio IX eta Napoleon III» poemetan, adibidez, 1848 eta 1850 artean gertaturiko ekintza historikoak aipatzen ditu. Ondorioztu dezakegu orduantxe hasi zela Eusebio Azcue poesia idazten, gutxi gorabehera 1850. urtearen inguruan, eskuizkribuan jartzen duen 1861. urtera arte, salbuespenekin (Astigarraga, Bijuesca, 1990, 29 eta 15 poema datatuak aipatzeko orduan).

f) Artxiboan badira Azcuek Udalari bidalitako hainbat eskari: adibidez, eskatu zuen eskola kokatzea presondegi izandako aretoan; ludi globo bi hartu izana ere bermatu zuen beste batean.

g) Badirudi 1843. urtean Eusebio Azcue Bermeon bizi zela, han bataiatu baitzuten lehen alaba, Sofia, 1843. urteko abenduan, orain arte inon aipatu ez bada ere. 1849. urtean jaiotako Carolina, berriz, Mundakan bataiatu zuten. Ez dugu aurkitu noiz eta non jaio zen Alfonso Maria semea, baina badirudi 1845. urtean jaio zela Bermeon, Sofia bezala.

Yradik (1983) ikasleei buruzko zenbait berri eman zuen. Adibidez, 1843. urtean 20 ikasle izan zirela diosku, eta gaiak Aritmetika, Geometria, Kosmografia eta Pilotajea zirela. Badakigu, baina, bost gai eskatu zizkiotela Azcueri.

1844. urtean, aurreko urteko zazpi ikasle ziren eta beste 15 berri matrikulatu ziren. Azcuek lehen ikasturtean 21 ikasle aipatu zituen eta, azkena, Gonzalo Duok haren semetzat eman duen Juan Julián izan omen zen. Bada Zamudion jaiotako Juan Francisco Azcue Zalbidegoitia bat, ez Juan Julián, 1820. urtean jaioa eta 1847. urtean Bilbon ezkondu zena. Agian hauxe da ikaslea, 21 urte askotxo izan arren Nautika Eskoletan hasteko, eta Azcueren senidea dela dirudi, zerbait izatekotan, baina ezin da semea izan.

Erabili ohi zuten eskola liburua Gabriel Císcar (1769-1829) tenientearen *Tratado de navegación* zen. Izenburu zehatza, halere, hau zen: *Curso de estudios elementales de marina, compuesta de cuatro partes: aritmética, geometría, cosmografía y pilotaje*. Hartatik Bermeoko Nautika Eskolan jorratzen ziren lau gai nagusiak, baina ikasle guztiek ez zuten hori lantzen, baizik eta metodo laburtu bat.

Autobiografian, edo curriculumean, esaten denez, Eusebio Azcue Bermeoko Eskolako irakaslea zela joan zen Ferrolera —eta datu hau ere berria da— 1843. urteko ekainean, eta orduantxe lortu zuen irakasle titulua:

Habiendo pasado a Ferrol en el mes de junio de 1843 a ser examinado de Maestro, obtuvo en el examen la calificación de sobresaliente (Duo, 2001, 122; LUA).

1843. urteko Errege Agindu batek eskolak emateko moduak aldatu zituen eta Eusebio Azcuek ez zituen betetzen arau berriak. 1846. urtetik aurrera, soilik Ferrolen, Bilbon eta Donostian egindako ikasketak onartzen ziren Nautika irakasle izateko. 1828an jada, Bermeon, Azcueren irakasle izandako Segundo Olabarriak bazituen arau berriak eskatzen zituen tituluak eta, beraz, 1848tik aurrera bera izan zen Bermeoko Nautika Eskolako irakaslea. Kontratu berria sinatu zen unean, Udalak baldintza berriak eta araudi oso zehatza ezarri zuen, eskolako irakaskuntza egunak, orduak eta eskola lanak aipatuz (Duo, 2001, 91-93).

1848. urtean, bada, Eusebio Azcuek Bermeoko Nautika Eskola utzi egin behar izan zuen eta halaxe heldu zen Mundakako Nautika Eskolara. 1862ko curriculum vitae-ri esker jakin badakigu, Azcue «Caballero condecorado con la Cruz militar de primera clase de San Fernando» zela. Datu horrek adierazpen bi behar ditu. Hain garrantzitsua izan den Gurutze hori ez zuen

aipatu lehen curriculumean, eta egia balitz, horrek adieraziko luke Gerrate Karlistan parte hartze berezia izan zuela, inondik inora ez «behartua», Eusebio Erkiagak adierazi duen moduan.

Bermeoko kontratua bukatu ondoren, Mundakako lehen ikasturtean 42 ikasle izan zituen 1848an. Mundakako Nautika Eskolan irakasle zen Miguel Joaquín Goldaracena justu urtebete lehenago hil zen, 1847an. Horra hor aldaketaren balizko bigarren arrazoi bat.

Mundakako Eskolak hiru urte iraun zituen Gonzalo Duoren ustez. Beraz, 1851. urtean amaitu zuen bere ibilbide ofiziala, baina ez da horrela. Mundakako Udaleko artxiboan badira ondorengo urteetako berriak eta agiriak.

Hiru urteon ondoren, Mundakako Udalak erabaki berriak hartu zituen, zeren irakaskuntza legedia berriro aldatu zen, eta 1851. urte osoan Nautika Eskolaren jarraipena lortzeko asmotan ibili zen. Halaxe, Eskolaren iraupena 1851ko uztailaren 27an berretsi zen:

Se leyó una comunicación del Sr. Gobernador de esta Provincia [...] se ha dignado acceder a la solicitud de este Ayuntamiento y varios otros límites, concediéndole la continuación de la Escuela de Náutica en los términos que lo solicita (MUA, 1851-07-27).

Eusebio Azcuek eskola pribatuak eman zituen Mundakan harik eta Lekeitioko Nautika Eskola sortu zen arte, 1862. urtean. Baina Mundakako Udaleko agirietan besterik ere agertzen da. 1851. urtean Eskolaren iraupena lortu ondoren, bera zen hango irakaslea:

La municipalidad animada de los mismos deseos [irakasleak izendatzeko gogoz] y conviniendo en la urgencia del caso unánimemente nombraron por profesores propietarios a D. Eusebio Azcue maestro de náutica que actualmente explica en esta Anteiglesia y a D. Manuel Sagredo maestro de primeras letras de este pueblo (MUA, 1851-08-05).

Mundakako Nautika Eskolaren funtzionamenduaren berri Gonzalo Duok eman du, eta horretarako Plentziak eskola izateko egin zuen eskari batean oinarritu da, bertan Mundakakoaren egituraren deskribapena egiten baita. Maisu bi ziren: bata, maisu elementala, eta 2.000 erreal irabazten zi-

tuen; bigarrenak, ordea, eta hori Azcue zela pentsa dezakegu, lehen urtean Aritmetika eta Aljebra irakasten zituen, bigarren mailan Geometria, Trigonometria eta Marrazki geografikoa, eta hirugarrenean Fisika, Kosmografia, Pilotajea eta Marrazki hidrografikoa.

Mundakako Nautika Eskolaz badira zenbait berri txiki Mundakako Udal agiritan: zer zegoen eskolan («existen los globos y esferas compradas para la última [Nautika Eskolarako]» MUA, 1852-01-25); zer behar zuten («Se compre el encerado que falta en náutica» MUA, 1852-02-01).

Baina laster arazoak ospindu egin ziren eta Udalaren eta Azcueren arteko iskanbilaren berri ematen dute agiriei:

a) Dirudienez, urte horretako otsailean Azcuek eskari batzuk gogor bidali zituen udalera:

En vista de los términos poco comedidos y falta de respeto que se ve en dichas comunicaciones por el maestro D. Eusebio María de Azcue, unánimemente aprobaron cuanto ha dispuesto la comisión y ordenó que de todo se de cuenta a la superioridad a los fines oportunos (MUA, 1852-02-15).

b) Udalak soldata barik utzi zituen maisuak:

Y se dice sea copia de las remitidas, excluyendo (sic) de él [urteko aurrekontutik] los cinco mil reales de los maestros de náutica (MUA, 1852-03-07).

c) Udalak zalantzan jarri zuen maisuen gaitasuna eskola horiek emateari zegokionez:

Se aprobaron los presupuestos de 1853 con la condición de que si los maestros de náutica de esta puebla no estaban revestidos de título suficiente para explicar las materias que se han encargado, se excluya del indicado presupuesto el sueldo de estos (MUA, 1852-03-14).

d) Badirudi Azcuek eskola partikularrak emateko Udalak eraturiko gelak erabili zituela, nahiz ez dagoen garbi bera ala Sagredo zen erabiltzen zituena:

Se dio cuenta de las diligencias practicadas con el maestro de náutica sobre que este no ocupe el local con lecciones particulares (MUA, 1852-05-09). Se dio cuenta del oficio del Sr. Gobernador acerca de que el maestro de náutica no ocupe el local con lecciones particulares (MUA, 1852-07-04).

e) Udalak zor berezia eskatu zion Eusebio Azcueri, urtean irabazten zuen herena baino gehiagokoa:

Se dio cuenta del oficio [...] que le han pasado los maestros pidiendo que se les pague el sueldo devengado en el último curso, y enterados, decretaron: que se les pague desde luego lo que piden, pero descontando a D. Eusebio María Azcue los mil cien r. que debe a la Anteiglesia desde primero de setiembre de 1.848, y las retribuciones que ha cobrado de los matriculados forasteros como perteneciendo al común (MUA, 1852-10-31).

1852. urtean Nautika Eskola lekuz aldatu zen. Nesken ikasgelan eman ziren eskolak, udaletxearen barnean, eta azarotik aurrera, ganbara egokitu zuten zeregin horretarako (MUA, 1852-07-04/ 1852-07-24). Laster, zalan-tza sortu zen herrikoek eta kanpokoek berdin ordaindu behar zuten ala ez, eta garbi ikusi zen araudi berria beharrezkoa zela (MUA, 1852-12-03). 1854. urtean Udalak arazo larriak zituen maisuen soldatak ordaintzeko, eta herriko aberatsen laguntza eskatu zuen (1854-07-09).

1854. urteko irailean, Udalak garbi zuen ordu arteko maisuek ez zutela behar bezalako titulaziorik eskolak emateko eta, ondorioz, Nautika Eskola-ren itxiera aurreikusi zuen:

Decretaron que se abra la matrícula para el próximo mes, anunciándose desde luego la vacante de maestros para su provisión en personas aptas (MUA, 1854-07-18). Se reunieron con el fin de fijar un pie (sic) a los maestros de náutica y poderse con ella sacar la oposición las plazas (MUA, 1854-09-20).

Urte horretako urrian, Udalak kontuan hartu zituen Eusebio Azcueren eta Sagredoren dimisioak:

Se pasó a discutir los oficios dimisivos de los maestros de esta Escuela de Náutica D. Eusebio María de Azcue y D. Manuel Sagredo,

y enterados los aceptaron ordenando hagan entrega de los efectos que haya en las cátedras que hayan desempeñado, y que en vista de tal renuncia se suspenda el próximo curso (MUA, 1854-10-02).

1857. urtean, Udaleko agiriez zera adierazten dute, ikasgelan eskola partikularrak ematen zirela, baina berez ez dela eskolarik Mundakan:

Pueda darse en el que está dando sus lecciones el maestro de náutica y puesto que esta escuela no existe ya, unánimemente acordaron que en el término de 48 horas quede libre el referido local (MUA, 1857-03-02).

Horrenbeste istilu eta iskanbila izan ondoren, ez da arraroa Eusebio Azcuek Mundakatik alde egiteko gogoia izatea. Horrenbestez, Lekeitioko Eskola martxan jarri zenean, hara jo zuen. Lekeitioko Nautika Eskola Jose Javier Uribarren eta bere iloba Jose Luis Abaroa lekeitiarrek jarri zuten, eta hasieratik oso ospetsua izan zen. Pilotaje katedrara aurkeztu zuen bere burua Eusebio Azcuek. Gainera, Xabier Altzibarrek jakin duenez, 12.000 errealekoa zen soldata, Mundakan baino lau aldiz handiagoa. Lehen ikasurtean 64 ikaslek eman zuten izena ikasketak han burutzeko (Duo, 2001, 80). Pilotu izateko Eskola Ofiziala izendatu zuten, eta Bilboko Institutuko Zuzendaria zen azterketa buru. Berarekin batera, eskolako irakasle bi batzen ziren eta Gerrate Karlista piztu arte, Eusebio Azcue mahaiko izan genuen lan horretan. Gonzalo Duok aipatzen du gerrate ostean ere Azcue bera izan zela mahaiko, baina Eusebio Erkiagaren iritziz haren semea, Alfonso Maria.

Después de la guerra siguió Azcue [...] Las actas del curso 1882-1883 están firmadas por un tribunal presidido por Juan Acordagoicoechea, siendo vocales Azcue e Ibarra (2001, 81).

Izan ere, Eusebio Maria Azcue 1873. urtean hil zen.

2. Azcue Mundakako Udalaren kontra. 1856. Azcueren ideologia

Bizkaiko Artxibo Foral nagusian aurkitu dugun bigarren agiria Azcuek Bizkaiko Aldundiari bidalitako salaketa bat da. 1856. urteko abuztuaren

hemeretzi gutun bat bidali zion Bizkaiko Aldundiari, hautesleen zerrenda bat agertu zela-eta, bere iritziz hauteskundeetan iruzur egiteko arriskua zegoelakoan:

Ha aparecido en la puerta de la Iglesia Parroquial una lista de electores para las próxima renovación de municipalidad, lista que solamente comprende ciento sesenta y nueve nombres, algunos de difuntos: este número de electores corresponde según el artículo treinta y uno de la ley á una población de doscientos y quince vecinos.

Esta Anteiglesia según la estadística, que hace muchos años no se ha renovado, tuvo trescientos cincuenta vecinos; pero actualmente su población pasa de setecientos vecinos [...]

El Ayuntamiento por ligereza o mala fé ha contravenido á la ley; esta contravención puede ser causa de amaños de pandillage (sic), origen de la ruina de los pueblos (BFA, K 200380/122).

Hain zuzen ere, 1857. urteko otsailean Udala berritu, eta Jose Fradua izendatu zuten alkate. Ikusi dugu Azcueren eta Udalaren arteko harreman deserosoa 1851. urtetik zetorrela, baina dirudienez ika-mika ez zen gozatu eta Eusebio Azcueren ideologia karlistak gogor jotzen zuen Udal konstituzionalaren aurka. Gainera, agian, arrazoia izango zuen, zeren, historiagileen arabera, Mundakak une hartan 2.250 biztanle zituen, gaur baino dezente gehiago.

Eusebio Azcueren ideologia karlista nabaria da. Izena ere karlista tradiziokoa da, Eusebio Maria gisa agertzen da bataio agirian (1813), baina lehenengo ezkontza agirian «de los Dolores» gehitzen du (1843) (Astigarraga; Bijuesca, 1990, 13). Izen hori karlistek jarri ohi zuten, Karlos VII.aren alabaren oroigarri gisa. Beraz, badirudi bere gogoz egin zuela aldaketa, kontuan harturik Lehen Gerrate Karlistaren bukaera hurbil zegoela oraindik. Bigarren ezkontza agirian (1857) eta heriotza agirian berriro «de los Dolores» (Astigarraga; Bijuesca, 1990, 547-551), baina ez beste inon. Dena dela, hala xe jarri zion bere alaba bati ere: Aurora Maria de los Dolores (1860).

Bere hainbat olerkitan ere joera tradizionalista nabaria da. Bada olerki bat garbi-garbi agertzen duena haren joera erlijioari eta tradizioari lotua:

«Pio IX eta Napoleon III» (EV, 219-227). Hain zuzen ere, Napoleon III. aren aurka egindako testua dugu eta, zentzu zabalean, Vatikanoko Estatua-ren aldekoa. Ezaguna denez, Aita Santuaren aurkako joera hori 1848. urtean hasi zen, eta 1848-1851. urteen buruan agertu. «Bardintasuna» (EV, 343-346) edo «Libertadian arguitasuna» (EV, 180-184) poemetan, liberalismoaren zenbait ezaugarri kritikatzeko ditu eta «Anchinarik ona» (EV, 228-235) poeman aspaldiko denboren nostalgia erakusten badu ere, «Guizaldi onetaco deungac» poemak (EV, 401-406) garaiko gizartearen kritika zorrotza dakar.

Gaurko girotik begiratua, Eusebio Azcueren poesiaren ideologia ez da oso abegikorra egiten, andreaken irudia oso barregarri eman ohi duelako maiz, eta, gainera, haiei buruzko iritzia iraingarria delako sarritan.

3. Epaiketa zibilak: 1851 eta 1857. Bizitza pribatua

Eusebio Azcueren bizitza pribatuaz dokumentu bi aurkitu ditugu Bizkaiko Artxibo Foralean. 1851. urtean gertatu zen lehen epaiketan (Busturia 0488/047), bera zen salaketa jarri zuena Migel Elordiren aurka, horrek samatik heldu ziolako («le echó mano al pescuezo»), Azcueren ustez motiborik gabe. Ondoren azaltzen da, Nautika eskola ematen ari zela, neskatotxo batzuek atea itxi ziotela eta Azcuek eskolatik irten eta bati ipurdiko bat eman ziola («le dio un azote sobre la ropa/capa?»). Neskato hori, hain zuzen ere, Elordiren alaba zen. Salaketaren ondoren, Elordi zigortu egin zuten: «un día de arresto».

1857. urteko apirilean gertatu zen bigarren epaiketan (Busturia 0489/028), aldiz, Eusebio Maria zen salatua eta Gabriel de Echevarria salatzaileria. Echevarriaren esanetan, Azcuek 1.027 erreal zor zizkion haren emazteari, Maria Paula Lezamizeri, Azcueren seme-alabei bularra eman zielako («latancia (sic) [...] ha dado á los hijos del demandado Conrado y Sol»). Azcuek erantzun zuen egia zela bi urtez eman ziola titia Maria Paulak Conrado-ri, baina ez zituela biak osatu, haurdun geratu zelako, eta egia zela Sol-i hamasei hilabetez eman ziola, baina Paulak gauza asko eraman zituela euren etxetik, eta horregatik prest zegoela akordio batera heltzeko. Zorra

kitatzeko, maiatzaren hasieran 200 erreal emango zizkion Echevarriari eta 80 hilaren bukaeran, eta beste horrenbeste hurrengo hilabeteetan zorra osorik ordaindu arte.

Ikusten denez, epaiketa bi horiek ez dute garrantzi handirik, baina Eusebio Azcueren nortasuna azaltzeko balio dute. Lehenak, agian, Eusebio Erkiagak bere ontasunean poetaz idatzi zuen irudia lausotzeko balio digu. Behintzat, haserre eta gogor agertzen zaigu bere bizitzako pasadizo horretan. Bigarren dokumentuak, baina, zerbait gehiago diosku. Alde batetik, Eusebio Azcuk diruarekin zituen arazoek berri ematen digu. Ez da lehenengo aldia zorretan ikusten dugula gure poeta. Mundakako Udalak berarekin zuen zorra eskatu zion poetari, gorago ikusi dugun bezala. Soldata aldetik ere ez zebilen diruz ongi hornitua Eusebio Azcuk. Bermeoko Nautika Eskolan 3.300 erreal urtero irabazten zituen. Mundakako Eskolako irakasleen soldataz hitz egiten denean, dokumentuetan 5.000 edo 4.000 erreal aipatzen dira, baina badirudi Sagredo maisuak 2.000 kobratzen zituela; beraz, Azcukentzat 3.000 edo 2.000 erreal izango ziren urtero. Horri gehitu behar zaio ikasketa partikularrekin lortzen zuena eta herriz kanpoko ikasleei kobratzen zitzaiena, ohitura zen moduan Nautika Eskoletan, hau da, udalerrikoentzat doan zen eskola, baina kanpotarrei kobratzeko joera zegoen Bermeon. Mundakan ere horrela gertatu ohi zen, inoiz Udalak zalantza izan bazuen ere jarrera horren gainean. Kontuan hartu beharko litzateke Bermeoko Eskolako soldata 4.950 erreal zela Azcuk utzi zuen urtean. Beraz, soldataren aldetik galdu egin zuen Azcuk Mundakara etorrira.

Beste alde batetik, alargunaren minak agertzen ditu. Eusebio Azcueren lehen emaztea, Laureana Ocerin, 1856ko azaroaren 23an hil zen. Laureana, Bilbao abizenarekin bataiatu zuten, eta hori ere lehen aldiz ematen den datua da, 1820ko uztailaren 5ean. Aita ezagunik ez zuenez, Bilbao abizena eta amaren abizena, Ocerin, erabili zituen. Bost seme-alaba izan zituzten Eusebiok eta Laureanak, eta hau ere datu berria da, orain arte lau zirela uste baitzen: Sofia, Bermeon bataiatua 1843ko abenduan (Bermeo, 1843-Zamudio 1846), Alfonso Maria (Bermeo, 1845-1894), Carolina (1849), Conrado (1853-1870) eta Sol (1855-12-19, bigarren abizena Bilbao jarri zioten bataiatu zutenean, bigarreana aldatuta, alegia, eta ama hil baino ia urtebete

lehenago jaio zen. Horregatik, 1857ko apirilean egindako epaiketan aipatzen den hamasei hilabeteko epea).

Jakina da bigarren ezkontzan Mari Carmen Aberasturi hartu zuela emaztetzat. Emakume hori alarguna zen. Bere lehen senarra, Tomas Aguirre, 1856ko maiatzean hil zen (1835-1856). Baina ezkontza horretan badira datu bi deigarriak. Lehendabizi, ezkonduen adina: 1857ko ekainaren 3an ezkontzen direnean, Eusebio Azcuek 44 urte ditu eta 1835. urtean jaioetako Mari Carmen Aberasturik 22. Bigarren datua ere jakina da, biak ziren alargunak, Mari Carmen 1856ko maiatzean alargundu zen eta Eusebio urte bereko azaroan. 1857ko ekainean ezkondu ziren eta beren lehen alaba, Julia, 1857ko urriaren 21ean jaio zen. Aberasturi haurdun ezkondu zen, beraz.

Ezaguna da baita ere elkarrekin zortzi seme-alaba izan zituztela, bi, dirudenez oso gazterik hilak: Julia (1857-1874), Aurora Maria de los Dolores (1860), Jesus Maria del Carmen (1862) Mundakan jaioak; eta Lekeition, Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves, euskal ikerlari handia (1864), Maria Luz (1867, urte berean hila), Diana Maria de la Paz (1868), Heliodoro Maria Antonio Pedro Pascual (1870-1872) eta Julia (1873-1874), aitaren heriotzaren urtean jaioa. Aitaren 13 seme-alabetatik lau goiz hil ziren.

4. Eusebio Azcueren poesiaz

Bizitzako min horiek izan zuten agerpenik bere obran? Ez da Eusebio Azcue nitasunaren poeta, nahiz eta lehen pertsona noizbehinka agertu bere obran. Adibide ederra da, Eusebio Azcueren pathos erromantikoaz hitz egiteko «Euskaldun bat Buenos Ayres aldian» (EV, 148-159) poema. Poema horretan nitasun bi agertzen dira, Eusebio Azcuerekin lotu dezakegun lehen, eta Buenos Airesetik idazten duen pertsonaiarena, bestea. Eusebio Azcuerekin identifika dezakegun ahotsa narratiboa da guztiz:

«Buenos Ayres aldeti
Artu dot carta bat:
Vertsoan imiñteko
Gurarijha daukat» (EV, 148)

Buenos Airesetik gutuna idazten duenak, ordea, bere bizitzaren zorigaiztoa azaltzen du. Pertsonaiak betetzen ditu ezaugarri erromantikoak, baina zorigaiztoa, tristezia, ametsa, negarra... ez datoz bat egilearen bizitzarekin.

Beste adibide bat ere badago. Poetaren nitasunarekin lotu dezakegun lehen pertsonaren erabilerak poemaren marko nagusia eratzen du, «Santo Domingoco Islaren Españara biurreriari» (EV, 455-462):

«Etorri naz Bilboruntz
Algortaco aldetic,
Ibaizabal ganian
Daguan bidetic» (EV, 455).

Eta orduan entzuten du poetaren irudiak Nereiden batzar bat eta hauek, berriro lehen pertsona erabiliz, Santo Domingotik datorren Nereida batek bere ahizpei gertaturikoaren berri ematen die. Agian «Adina» bezalako poemaren baten agertzen du Eusebio Azcuek joera erromantikoa; bestela, narritibotasunak eta alegoria joerak hartzen dute haren poesia.

Bere lehen editore izandako Manterolaren hitzak irakurriz gero, ez da dudarik asmatu egin zuela bere iritzietan:

El señor Azcue [...] ha cultivado más o menos todos los géneros de la poesía, y en su precioso volumen se encuentran al lado de algunas composiciones religiosas, llenas de sentimiento y que dan á conocer sus arraigadas creencias católicas, otras muchas de género satírico, llenas de gracia y de intención; numerosos epigramas [...], varias fábulas, originales unas, traducidas otras, y diferentes composiciones morales y de costumbres (*Parnasorako Bidea*, 7).

Eta beste iritzi molde batean:

Y así, si en *Mundaca-ko arraiñ saltzaillac* [...] y otras muchas de la misma índole, se vé al poeta popular asimilándose al pueblo en cuyo contacto vivía, pintar en cuadros, sencillos pero de verdadero carácter y adecuado colorido, tipos del país, fiestas, costumbres, usos y aun abusos, tratando á veces de corregir estos últimos de presentar otras como modelos dignos de imitación prácticas que van cayendo en desuso y describiendo y fotografiando siempre con hábil pincel, tiempos, hombres y cosas (*Parnasorako Bidea*, 11).

Genero nahasketa hori bera izan daiteke erromantizismoaren ezaugarri bakanetarikoa. Baina, nire ustez, Eusebio Azcueren poesia lotu beharko litzateke garaiko poesia burges eta neurri batean zaharkituarekin. Estimatzen ditut haren ohitura-poemak, Manterolak hain zuzen deskribaturikoak, eta haren poesia politikoaz luze hitz egiteko modua ere badugu. Baina ezin dut kendu gogotik ez dagoela haren bizitzako une krudelen aipamen biografikorik. Poesia narratiboa maite du Eusebio Azcuek, edo ideologikoa, edo deskribapenean oinarriturikoa. Horregatik, bera presente egon arren, ez dago lirika handirik haren lanean, sentimenduak aipatzen badira ere.

Gehienez, aipatu beharko nuke baduela poema bat ezkontza desorekatuen aurka, adinez desberdin diren senar-emazteen aurka. Eta gai hori bere bizitzarekin loturik dago. Baina hori ere gai topikoa da neoklasizismoan ere (Moratínen *El sí de las niñas* gogoratzea baino ez dago), eta horretan ere molde literarioak gaina hartzen dio zentzu autobiografikoari.

Artxibategiak

BUA. Bermeoko Udal Artxiboa

Bizkaiko Artxibo Forala

Bizkaiko Eliza Historiaren Artxiboa

LUA. Lekeitioko Udal Artxiboa

MUA. Mundakako Udal Artxiboa

Bibliografia

AZCUE, Eusebio Maria, 1990, *Euskarazko vertsoak*. Asier Astigarraga eta Josu Bijuescaren edizioa. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa.

ASTIGARRAGA, Asier; BIJUESCA, Josu, 1990, «[Sarrera]» in Azcue, Eusebio Maria, *Euskarazko vertsoak*. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, 13-44.

AZKUE, Resurrección, 1979 [1896], «Arrgibidea» in Azkue, Eusebio, *Parnasora-ko Bidea*. Donostia: Ed. Hordago. (Jat. ed.: Bilbo: Astuitar J. Bilbo).

DUO, Gonzalo, 2001, *Las escuelas de Náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi. Siglos XVI-XX. Análisis histórico documental*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

ERKIAGA, Eusebio, 1961, «Bizkai 'ko Olerkari bat: Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (Lekeitio, 1813-1873)», *Oleri*, 1 (1961) 67-79.

<andima.armiarma.com/oler/oler09/oler0941.htm>.

KORTAZAR, Jon, 1987, «Eusebio Azkueren poesiagintza» in Uriarte, José Antonio, 1987, *Poesia Bascongada. Dialecto vizcaino*. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiaren edizioa. Bizkaiko Foru Aldundia, 219-234.

Lan hau Gonzalo DUOREn, Jon KORTAZAR BILLELABEITIAren eta Kepa ORMAE-TXEAREN laguntzarekin idatzi da.



Parnasotik *Euzkadia*-ra. Eusebio M. Azkueren poesiagintza eta nazio identitatea

**Del Parnaso a *Euzkadia*. Creación poética de Eusebio
M. Azkue e identidad nacional.**

**Du Parnasso à *Euzkadia*. Création poétique d'Eusebio
M. Azkue e identité nationale.**

**From Parnassus to *Euzkadia*. Eusebio M. Azkue's
poetic creation and national identity.**

BIJUESCA, K. Josu
Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2014-07-01
Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 2. 395-432. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eusebio Maria Azkueren poesiagintzari eskainitako artikulu hau atal bitan dago banatuta. Lehenengoan XIX. mendeko euskal identitatearen ezaugarriak E. M. Azkueren diskurtso poetikoan arakatu eta ezaugarri horietako bat, abertzaletasun bikoitza iritzi izan zaiona, berrikusi da subjektu melankoliko euskaldunaren argitan.

Bigarren atalean Azkueren ideia metapoetikoak arakatu dira, batez ere Euzka musaren alegoriaren bitartez adierazitakoak, alegoria horrek sortzen duen subjektibazio prozesua aztertzen den bitartean.

Hitz gakoak: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Parnasoa, alegoria, subjektu euskaldun melankolika, nazio identitatea, patriarkalismoa.

Este artículo dedicado a la obra poética de Eusebio María Azkue está dividido en dos partes. La primera, investiga los rasgos de la identidad vasca del siglo XIX en el discurso poético de Azkue, y reinterpreta uno de esos rasgos en relación al sujeto melancólico vasco, lo que se ha venido definiendo como doble patriotismo.

En la segunda parte, se han estudiado las ideas meta-poéticas, sobre todo las representadas por la alegorías de la musa *Euzka*, analizando a su vez el proceso de subjetivación que genera dicha alegoría.

Palabras clave: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, El Parnaso, alegoría, sujeto vasco melancólico, identidad nacional, patriarcalismo.

Cet article consacré à l'oeuvre poétique d'Eusebio María Azkue est divisé en deux parties. La première s'intéresse aux traits de l'identité basque du XIX^e siècle dans le discours poétique d'Azkue ; il réinterprète l'un de ces traits en relation avec le sujet mélancolique basque qui a été défini comme double patriotisme.

La seconde partie s'intéresse aux idées métapoétiques, surtout celles qui sont représentées par l'allégorie de la muse *Euzka* ; elle analyse alors le processus de subjectivation généré par cette allégorie.

Mots-clés : Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Le Parnasse, allégorie, sujet basque mélancolique, identité nationale, patriarcalisme.

This article on the poetry of Eusebio Maria Azkue is divided into two parts. The first investigates the features of 19th century Basque identity in Azkue's poetic discourse and reinterprets one of those features, which has come to be defined as double patriotism, in the light of the Basque melancholic subject.

In the second part his metapoetic ideas have been studied, especially those represented by the allegory of the muse *Euzka*, together with the process of subjectivation generated by that allegory.

Keywords: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Parnassianism, allegory, Basque melancholic subject, national identity, patriarchalism.

1.

XIX. mendean euskal naziotasunaren ideiak toki zabala bete zuen politikari, kazetari, idazle edota pentsalarien artean. Euskal Herri penintsularrari dagokionez, esan izan da XIX. mendeko euskal identitatearen osagaiak ondorengoak direla: foruak; fede katolikoa; euskal lurraldeen historia berariazkoa; euskara; eta abertzaletasun edo *patriotismo* bikoitza, alegia euskal abertzaletasuna eta espainola (Rubio, 2003, 99-177). Abertzaletasun bikoitzaren ideia hori deigarri gerta dakiguke egun. Eusebio Maria Azkueren sasoian, ostera, jarrera hegemonikoa zen nonbait, abertzaletasun espainola oso modu estu eta berezian ulertuta baina: koroari zor zitzaion leialtasun gisa, koroa bera jotzen zenez gero foruen azken babesle eta bermetzat (Rubio, 2003, 160). Eusebio Maria Azkueren poesiagintzak ondo erakusten ditu XIX. mendeko euskal identitatearen alde horiek guztiak, beraren bertso sortak garantzean ikusiko dugunez. Aldi berean euskal identitatearen alde horiek ñabardura bereziak jasoko dituzte poeta honen eskuetan, batez ere *patriotismo* bikoitzari dagokion horrek.

Euskal identitatearen alde horiek ondoen erakusten duten bertso sailetariko bat «Anchinarik ona» tituluduna da. Poema horretan iragan loria-tsua eta orain negargarria aurrez aurre irudikatu dira, bai eta batetik bestera etortzeko arrazoiak eman ere. Lehengo euskaldunak erromatarrek eta Leongo erreinuak menperatu ezin izan zituzten bitartean, egungoak atzerriko indarren eragin kaltegarripean jausi dira. *Mundu zaharra* deitzen duenaren gainbehera eta baloreen iraultza salatzen ditu Azkuek. Horretarako arrazoiak bigarren ahapaldian laburtu eta ondorengoetan garatzen ditu:

Erakuzten cirian
 Lenago arpegijhak,
 Orain baña guebiltsas
 Maskaraz erdijhak.
 Asko guztuz aistu da
 Euskera gozoa,
 Ez dogu esagotuten
 Lengo Jaungoicua.
 (Azcue, 1990, 228; 9-16 l.)

Lehenengo arrazoia, beraz, ohitura zaharrak bertan behera utzi eta «ekandu zital» berriei (84 l.) ateak irekitzea; bigarrena, euskara ahaztea; eta azkenik, fedea galtzea. Euskal identitatearen ezaugarri funtsezko zenbaiten galarak jarri ei du *mundu zahar* hori arriskuan. Baina arrazoiak agertzeko ordena eta bakoitzari eskainitako luzera adierazgarri diren heinean, lehenengoa litzateke hiruretatik garrantzitsuena, alegia atzerriko ohitura berriak beso zabalik onartzea, eta horien artean janzkerari eta ibilgailu edota garraiobideei dagozkienak. Hona hemen azken horietan Azkuek salaturiko aldaketa:

¿Nun dira orduko guizon
Gueure Patriarcak,
Jhasten zituezanak
Oñetan abarcak?
Ez zan mando burdirik
Ibilteko euretan,
Nagozihak ebiltzan
Zamari ganetan.

Vizcajian eguin dira
Bide-laun zabalak
Libre sartu deitezan
Ekandu zitalak:
Orain gagoz eguiten
Burdina bidea
Fueruak igasteko
Segurua atia.

(Azcue, 1990, 231-232; 73-88 l.)

Lehenagoko ohituren kontra, «[g]aur dabil Vizcaitarra / mando burdijhetan» (105-106 l.), eta laster trenean, goratxoago ikusi dugunez. Beste horrenbeste gertatzen da gizarte ohiturei dagokienez, alegia janzkerari, berba-kerari eta jan-edateko erari:

Parisen ernetan da
Moda bat astian
Sustraihak dituzana
Laster gueure artian:
Cembait diru daroian
Urtian kabuan

Españati modeak,
 Ez daukat buruan.
 Ala francesa berba,
 Ala francesa jhan,
 Ala francesa jhantsi,
 Ala francesa edan:
 Española gorputza
 Francesa arima,
 Au da len esan dodan
 Gueure maskaria.

(Azcue, 1990, 234; 113-128 l.)

Poetaren begietan foruak, historia, hizkuntza eta fedea ez ezik, ohiturak ere identitate zeinu dira, batez ere janzkerari eta garraioari dagozkionak, ohitura berri horiek atzerriko eragin kaltegarriak ondoen erakusten dituztelako. Ohitura berri horiei buruzko aipamenetan modaren bitartez alegorizatutako inperialismo kultural atzerritarra identifikatu du Gabilondok (2003, 24). Atzerri hori, gainera, ez da zehazki Espainia. Espainiarrak baino askoz mehatxagarriagoztat jotzen ditu frantsesak, ikusi berri dugunez, eta ingelesak, biak ala biak liberalen laguntzaile izandakoak lehen karlistadan, ingelesen kontra agertzean iradokitzen denez:

Gutziz azpiratuta
 Ingelesak gaukaz
 Guri eguiten dozcuzan
 Citalkerijhagaz.
 Ogueta sei urtian
 Dogu adiskidia
 Gueure galtsaigarritsat
 Bere mesedia.

(Azcue, 1990, 234; 129-136 l.)

Azkueren bertso sail honetako subjektuak bere burua euskaldun eta era berean espainoltzat duela ematen du, era horretara gauzatuz hasieran aipaturiko abertzaletasun bikoitza. Badirudi espainolak beharrean, frantses eta ingelesak dituela euskaldunen egoeraren erruduntzat, haiek dira-eta azken batean gero liberal espainolek eurenak egingo dituzten ideia eta jarrera erasokorren asmatzaileak.

«Guizaldi onetaco deungac» bertso sailean ere ingelesak gaiztotzat irudikatzen dira. Ingelesen jarrera inperialista salatzeaz batera, Ilustrazioaren «argia» munduan zehar zabaltu izana leporatzen die:

Ingeles idun senduac
Danac euren antzecucac
Edo batetic
Edo bestetic
Dabiltz mundua argituten
Eta bazterrac ostuten.
(Azcue, 1990, 402; 37-42 l.)

Argi hori osteraren inoren kalterako izaten da euren mesederako beste, lapurretara emanak direnez gero, Italia batu baino lehenagoko Napolesen gertatuak erakusten duenez:

Egun deungaren batian
Sartu zan euren artian
Pausu pausuca
Ta issil ostuca
Guizaldi onetaco arguija

Chimista deunga gorija
Chimista onec zaurituric
Guelditu ziran itsuric
Guizon artezac
Eta Inguelesac
Artu cituezan argalac,
Alperrac ta Generalac.
(Azcue, 1990, 403-404; 61-72 l.)

Ill cirian gauza on zarrac
Asi cirian negarrac
Jan zan oguija
Ta miserija
An zan aguertu ugari
Esquerrac gaurco arguijari.
(Azcue, 1990, 405; 91-96 l.)

Azkuek hobetsitako argia antzinako erregimenaren oinarrietariko bat izandako fedearena da, Ozollo eta Uriarte frantziskotarrei misioetara irtean egindako «Zuace eta erreizuez» bertso sailean adierazi bezala:

Zuace ta erreizuez
Fediaren suagaz
Arima dagozanac
Otz pecatuagaz:
Zuace dozuela
Arguija ezpanetan
Ta ceruco bidia
Ceuen pausuetan
(Azcue, 1990, 349; 1-8 l.)

Gizaldi honetako argia -Azkueren iritzian ingelesek munduan zehar barreiatua- gaitzetsi duen era berean arbuiautuko ditu frantsesak ez ezik Frantziako Iraultzari bidea egin zioten baloreak ere. Berdintasuna susmagarria da, kaltegarria ez denean, onak eta gaiztoak maila berean jartzen dituelako elkarrengandik bereizi ezinik, «Inglaterraco leguiac» erakusten duenez «Mundu onetako deungac» sail berean:

Londres derichon errija
Da guizon deunguen abija:
Orain ta beti
Ta ango legueti,
Bardiñac dira guizonac
Munduan deungac ta onac.
(Azcue, 1990, 402; 25-30 l.)

Gutiz kaltegarritzat jotzen ez duenean ere, Azkue eszeptiko ageri da berdintasunaren aurrean. Horixe da ikusten dena «Bardintasuna» bertso sortan. Batzuk besteak beti «mutildu» (19 l.) edo «azpiratu» (88 l.) nahi dituztelarik, heriotza da benetako berdintzailea:

Alper dira guizonen
Munduco aleguiñac,
Ecin izan guiñaitz
Munduan bardiñac:
Guero erijotziac

Gaitu bardinduten:

Pobre, nai aberatsa

Dabe lurpetuten.

(Azcue, 1990, 346; 97-104 l.)

Gizarte mailaz gain, arraza eta generoa ere izan litezke desberdintasun iturri E. M. Azkueren irudimenean. Arraza ez da sarri ageri baina, ageri denean, diskurtsoaren subjektuak zalantza gutxi uzten du bere arrazakeriaz. Testuinguru kolonialean gertaturiko berriak garatzean ageri da arrazakeriazko jarrera hori. «Santo Domingoco isliaren Española biurreriari» izeneko bertso sailean zuriak beltzen gainetik irudikatu dira, batez ere zuri horiek espainiar kolonizatzaileak izanik:

Eta Saxoiac vizcor

Baltzac sututeco

Guizon zuri arguitsuac

Azpiratuteco

¡Guizon baltzen menpian

Seme Pelayoenac!

Nun da saxoiric onei

Iminteco gonac?

Españolen semeric

Iñoc ez dau goitu:

Gudan coldartasunac

Ez beinbere lortu:

Alan eracutsi eben

Dominicanuac

Beti beti goituric

Baltz haitianuac.

(Azcue, 1990, 458; 81-96 l.)

Generoari dagokionez, hemen ere aurkituko da desberdintasunerako aukerarik. Aipatu berri den bertso-lerro batean *gonak imintea* menperatzearen irudi eta menperatuaren zeinu legez erabili bada emakumea, gonaduna hain zuzen ere, gizonaren menpekotzat jotzen delako erabili da. Nazio identitatea aztertu izan dutenek identitate horri buruzko diskurtsoak genero identitateaz ere berriazko diskurtsoa txertaturik dakarrela ohartu dute (Mayer,

2000, 1-22). Azkue ez da salbuespena. Berak ere emakumearen egitekoaz iritzi argi bezain zurruna erakutsi du «Bertsolari edo koblakaria» izeneko sailean:

Emakumeak izango dira
gizonen lagun emeak,
etêko gauzak ondo erabagi
eta ondo asteko semeak
(Azcue, 1990, 273; 77-80 l.)

Izan ere, emakumeak diskurtsoaren objektu besterik ez dira Azkueren poesiagintzan, noiz objektu desiragarri («Zaldun baten mandatua dama bateri» sailean ageri dena, esate baterako), eta sarritan objektu arbuigarri (femeninotzat jotzen diren bizioak salatzeari eskainitako kutsu satirikodun poema ugarietan), baina beti objektu. Ez «Bertsolari edo koblakaria» poema horretan bertan, esate baterako, ez eta beste inon ere, Azkuek ez ditu emakumeak irudikatzen diskurtso poetiko-literarioaren subjektu posizioan, emakume horiek beraren pentsaera ildo bertsukoak izanik ere. Aipagarria da, kasurako, Bixenta Mogelekiko jarrera, ez baitu inoiz aipatzen bere bertsoetan. Paradoxikoki, baina patriarkalismoaren posizio hegemonikoak ulergarri egiten duenez, Bixenta Mogelek sortuak izan litezkeen bertso sail bi Eusebio M. Azkuek asmatutakotzat heldu zaizkigu (ikus Xabier Altzibarrek aurkezturiko txostena 2013ko irailaren 20an Eusebio Maria Azkueri Euskaltzaindiak Lekeition eskainiriko omenaldian).

Emakumeari diskurtso poetikoaren subjektu posizioa betetzeko aukera ukatzen dionean, Azkuek bere garaiko bertsolaritzan errotuta zegoen ohi-turari jarraipena ematen zion, nahiz eta jakina den XIX. mendean emakume bertsolariak eta bertso jartzaileak izan zirela, Carmen Larrañagak (1997) erakutsi duenez. Hala jokatzean emakumeak ez dira kultura sortzaile eta eragile gisa ikusten, inoren identitatearen bitartekari soil gisa baizik, patriarkatuak nahitaezko dituen ugaltzaile biologiko eta sozial soil gisa (Vickers, 1990, 485). Aldi berean, kolektibitatearen identitate eta ohorearen gordeleku sinbolikotzat jotzen diren heinean, «ordezkaritzaren zama» haien bizkar gainean uzten da. Emakumeek «berezko» portaera, «berezko» janzkera erakusten dutenean kolektibitatearen mugak adierazten dituen marra gorpuzten dute. Haien portaerak euren kulturak ezarritako mugak urratzen

dituenean, gizonezko senitartekoei eta kolektibitateari lotsa edota desohoreak ekarri dietela uste izango da (Yuval-Davis, 1997, 45-46). Azkueren bertso sorten artean ez dira gutxi emakumeen portaerak mintzagai dituztenak, sarritan desegokitzen jotzen direnak salatzeke asmoaz satiraren bitartez. Satirizatuak dira, besteak beste, planta egingzaleak («Emakume sendua») eta edanzaleak («Andra ordijha»). Ugariago dira ezkontzaren inguruko bertso sailak, ugalketa biologikoarekiko kezka azaltzen duenez. Lehenengo eta behin neskazaharrak joko dira barregarritzat, emakume ondo ezkonduaren eredia urratzeagatik («Neska gazte bat, eta aberatsa» titulu ironikodunean bezala, protagonista heldua eta pobrea denez gero), eta horiekin batera gazterik baina gizon limurtzaile alferrarekin ezkondu direnak, errua emakumeari berari egotziz «senar gurarik dagozalako / gazterik neskachak larri.» («Ezkontza bat beste asko lez», 41-42 l., eta ikus ere «Ezkontza bere modukoa»). Hala ere ez du uste Azkuek helduek beti erabaki behar dutenik etxeko neska gaztea norekin ezkondu, batez ere ezkontzaren bitartez onura ekonomiko soila bilatzen bada gauza guztien gainetik. Halakoetan sorgin antzeko emakume tratulariak eta ezkongaien amak dira irainaren objektu («Ezkontzeco bitartecuac»). Kutsu satirikorik gabe bada ere, gurasoen iritzia gaitzetsiko ditu Azkuek etxeko alaba osaba indianoarekin ezkontzeko badira, mutil gazte eta behar den modukoarekin ezkondu beharrean, nahiz eta azkenean bigarren aukera hori gailenduko den («Jhoane Bekoerrotakoa eta Concepción Ganburukoa»). Emakumearentzako ezkontide egokiarekiko kezka erakusteaz gain, indianoarekiko antsietatea agerian gelditu da, gerora euskal literaturan eta kulturen sarri azalduko den bezala, *Kresala* eleberriko indianoa dela horren paradigma. Emakume eredugarrien artean, gainera, bada Ameriketara joandako semeak gogoraturiko ama errukitsua («Euskaldun bat Buenos Ayres aldian») eta, batez ere, Andre Maria, emakumeen portaeraren eredu nagusia, laster ikusiko denez. Hortaz, arrazen arteko harremanetan bezala, generoen artekoan ere E. M. Azkueren diskurtso poetikoak subjektu gizonezko euskalduna irudikatzen du, zeinak emakumeekiko harremanetan posizio hegemonikoa gordetzen duen bere buruarentzat, bai eta gizonezkoentzat orokorrean.

Berdintasuna alde batera utzita, askatasunaz ere badago zeresanik Azkueren poesiagintzan. «Libertadia[re]n arguitasuna» izenburu ironikodun

bertso sailean berriro ere argiak eragindako askatasuna kaltegarritzat jotzen da, erlijioaren indar baketzaile eta era berean menderatzailea ahuldu delako. Azkueren iritzian askatasunak gizarte iraultzari bidea irekitzeko arriskua izango luke:

Piper biurtu deusku
arguijhak mundua;
gane ederren barruan
vereno ta süa:
ta erakutsiten dago
piperren narrua;
esaten ichi barik
cer daben barrua
(Azcue, 1990, 183; 81-88 l.)

Nekatuak ez badau
ariman cerurik
egongo da aberatsak
illteko suturik:
borrerua izango da
fedia ez daukana
odol ta diruagaz
asetan ez dana.
(Azcue, 1990, 184; 113-120 l.)

«Chorijhak» bertso sorta ere askatasunaren eragin kaltegarriaren alegoria legez irakur daiteke. Bertan txoriak kaiolatuta dituen gizon baten istorioaren berri ematen da. Semeek txoriak hegaz egiten ikusi nahi dituzte, pozago biziko direlakoan. Horretarako txoriak kaiolatik atera eta mahai batera lotuko dituzte hari batez. Orain osteratxoriak lehen baino okerrago bizi dira: «Len biciten cirian ardura bagarik; / oraiñ beti burruka, eta luma barik.» (Azcue 1990, 175; 85-86 l.).

Hala ere, askatasun eskubidea euskaldunei aitortzen zaie, euren identitatearen ezaugarri denez gero. «Euskaldun bat Veracruzen» bertso sailean diskurtsoaren iturburua aita lehenengo karlistadan hil dioten euskalduna da. Haren ustez gerraren emaitza Euskal Herriek (pluralean) ordura arteko askatasunari eusteko eskubidea izan zen:

Eguin zan guero baquia
 Guc galdu бага guerria:
 Euscalerriac
 Libre guztijac
 Dagoz betico leguian,
 Ta ez Gaztelarren mempian
 (Azcue, 1990, 434; 51-54 l.)

Baina euskaldun berori lehenengo Kubara eta gero Mexikoko kostaldeko Veracruzera doanean aberastera, bere burua kolonizatzaileen artekotzat du, espainoltzat alegia («egoten guinian sarri / Españolac guztiz larri», 115-116 l.) arerioek eraso egitean, eta kolonizatzaileon inperialismoaren alde agertuko da, gorago aipaturiko «Santo Domingo isliaren Española biurreriari» sortan aldarrikatzen denez. Propaganda inperialak esandakoaren ildotik, Azkueren iritzian ere lurralde kolonizatuak azken batean Jaungoikoak Isabel Katolikoari aspaldi eman eta oraintsu horietako batzuk Isabel II.ari itzulitako saria baino ez dira, erreginok erakutsitako fedearengatik:

Viva Isabel Segunda
 Ona baiño obia
 Isabel lelenguaren
 Biloba noblia:
 Alper vicico gara
 Ascoz urriñago;
 Ez da Erregiña izango
 Emen maitiago. [...]
 Jaunac len emoten eutsan
 Lenengocuari;
 Ta biurtuten deutsa
 Gaur bigarrenari:
 Onac.... zan ta dalaco....
 Isabel bitsuac:
 Ez dabe au sinistuten
 Fede baco itsuac.
 (Azcue, 1990, 460-461; 137-168 l.)

Berriro ere abertzaletasun bikoitzaren gaia Espainiaren inperialismoari atxikitako probidentzialismoaren eskutik. Ez edozelan, Isabel II.a izen bere-

ko Erregina Katolikoarekin batera aipatzea koroari leialtasuna erakustea zen, koroak foruak babes baleza (Rubio, 2003, 158). Azkueren poemako euskaldunak, koloniekiko jarrera inperialistari babes sutsua eskaintzen dion horrek berak, oztopoak ditu onartzeko koroaren gobernua estatu barruko lurraldeekiko ere politika zentralista erabiltzeko prest dagoela.

Azkueren jarrera lurralde kolonizatuekiko bikoitza da. Espainiaren koloniak diren bitartean, euskaldunak jarduera kolonialean murgiltzea begi onez irudikatzen da, Santo Domingo Espainiaren menpeko izatera itzuli zen epe laburrean (1861-1865) gertaturikoei eskainitako bertso sailean ikusi dugunez. Aldiz, independentzia lorturiko herrialdeak eremu arriskutsuak bihurtu dira euskaldunentzat: hara joandakoen gorabeherak zoritxarrekotzat ditu Azkuek «Euskaldun bat Buenos Ayres aldian» eta «Euskaldun bat Veracruz-en» bertso sailetan. Era batera edo bestera, Espainiaren inperio kolonialaren gainbeheraren lekuko aparta da Azkue, frantses eta batez ere ingelesten inperialismoak aurrea hartuta. Eta inperialismo berri horrek Bizkaiko merkataritza harremanei eragindako kaltea agerikoa zaio:

Orduko demporetan
Gomutetan gara
Cembat ontzi joiazan
Vizcaiti Ozamara:
Guc artuten guenduzan
Vizcaico burdiñac
Ta Ibaizabaleri emon
Urre zati fiñac. [...]

Baña guizaldi onetan
Gueldica gueldica
Gaulo-saxoi labanac
Ill dabe America:
Santo Domingo bere
Len zana cerua
Euracgaiti erquindu zan
-Gauluac errua-.

(Azcue, 1990, 457-458; 57-80 l.)

Gorago janzkeraz, berbakeraz eta jan-edateko eraz jardutean Parisen eragina salatu da, alegia Europatik datorren inperialismo kultural berria. Orain inperialismo kolonial berri horren parean kolonialismo hispaniarraren dekadentzia agerian gelditu da (Gabilondo, 2013, 24-25). Azkuek galera gisa bizi ditu prozesu horiek guztiak.

Orain arte ikusitako euskal identitatearen aldeek kutsu politiko-ideologiko nabarmena izan dute. Hortik kanpora ere bada tarterik euskaltzaletasuna erakusteko, abertzaletasun arrunt edo *banal nationalism* deritzon horren birtartez (Billing, 1995). Azkueren poesiagintzan kirolei eta zehazki estropadei eskainitako bertso sortetan ageri da euskal identitatearen aztarna. Sail bi behintzat idatzi zituen horretaz: «Iru aupada eguin dira» eta «Castrocuai». Lehenengoaren gaia 1861ean Santanderren egindako estropadak dira, Isabel II.a bertan oporretan zegoela. Kantauri aldeko herri guztiei dei eginda, Bizkaikarik ez zen aurkeztu, baina azkeneko orduan Santanderren ziren arrantzale euskaldunekin tripulazio bat osotu zuten, nahiz eta euskaldunek euren ez zen txalupa bat erabili behar. Castrokoa izan zen irabazle, baina. E. M. Azkueren esanetan euskaldunek ez zuten irabazi «batel charragaz» irten zirelako (61 l.). Horrekin batera aditzera ematen du euskaldunek irabazteari uko egin ziotela «aloguera» edo ordainsaria ziurtatuta zutelako:

Vizcaitarrak eukêlez
ciur aloguera,
ez eben vitorijhan
jhoan nahi aurrerá:
Zarijha irabazia
orduan zan errez...
batelak biar evan:
baña gizonak ez.
(Azcue, 1990, 277; 65-72 l.)

Alegia, estropada galduta ere, euskaldunak garaile atera dira jasotako ordainsariarengatik. Galtzaile atera dena batela da, euskaldunena ez zen batela. Dena den, Bermeo, Ondarroa eta Lekeitioko kofradiek berehalako erantzuna eman zieten kantabriarrei desafio berri baterako. Oraingoan euskaldunak euren ohorea defendatzeko prestuago ageriko dira haien artekoak ez direnen aurrean:

Ya [=Ea] bada Castroko,
 kaskabel jhotsallak,
 ez dabe ecer balijho
 guedar ta barallak:
 baldin nai badoz[u]ê
 honriagaz urten,
 ez da Euskalduna atsera
 inosh biurtuten.

Emen dagoz Bermeo
 goitu bakoakaz
 eta Ondarroa andijha
 bere chalupakaz:
 emen da Lequeitio
 liorrez ta ichasoz
 bardiñik ez daukana
 bere alboan inosh.

Asko ta asko zagozê
 abant-lari putsak,
 baña geugaz bardiñak
 bakarrik Guiputsak:
 artu ezkerro erremuak
 eskuan gogora,
 euskaldun batela da
 bardiñ ceñ *vapora*.

(Azcue, 1990, 277-278; 73-96 l.)

Azken emaitzaren berririk ez da eman bertsoak estropada berria jokatu baino lehenagokoak direnez gero. Hala ere, argi dago euskaldunen ohorearen defendatzaileak gizonezkoak direla, kirolen bitartez nazio identitatea aldarrikatzen denean gertatu ohi denez (Billing, 1995, 119-125). Berriro ere gizonezkoak dira soilik jarrera eragile eta aktiboa erakuts dezaketenak, nazioaren heroi izateko gaitasuna aitortzen zaienak.

Orain arte ikusitakoaren arabera Azkue bere aldiko euskal identitatearen eraikuntzan eragile sutsua da, diskurtso poetikoa eraikuntza horren alde jarrita. Diskurtso horrek erakusten duen subjektua gizonezkoa, euskaltzalea baina abertzaletasuna bikoitzaren aldekoa, foruzalea eta fededun katolikoa

da, alegia antimodernoa edo *mundu zaharrekoa*, Azkue moduko karlista batengandik espero zitekeenez. Alde horretatik ez dago ezusterik.

Dena den, deigarria da Eusebio M. Azkueren poesiari darion sunda moralista sendoa. Noiz txantxetan noiz benetan, bere gizartean ohikotzat dituen bizioak agerian jarri eta salatu egiten ditu, gizarte horren kritika moral zorrotza garatzen duen bitartean. Aldi berean XIX. mendean zehar bizi izandako aldaketa politiko-sozialei sentiberatasun nabarmenez erantzuten die, aldaketek berrikuntza kaltegarriak dakartelakoan. Berrikuntza horien jatorria atzerriko indar inperialistengan ezartzen badu ere, galeren errudun euskaldunak egiten ditu aldaketak onartzeko prest daudelako, onarpen horrek tradizioak irakatsitako balore moral eta ekanduak erkindu baino egiten ez dituenez gero. *Mundu zaharra* deitzen duen horren galera hala azaltzen du. Erruaren diskurtso horren subjektua euskalduna den heinean, kutsu autokritiko nabarmena dario Azkueren poesiagintzari.

Jakina da autokritikarako joera indartsuegia, norbere burua gaitzestea, melankolikoaren ezaugarri agerietakoa dela. Agambenen interpretazio murriztailetik iragazi (Agamben, 1995, 51-55) eta beste pentsalari ugariaren ekarpenekin nahasi eta itxuraldaturik, melankolia ergelkeriaren eskutik eskaini zaigu XIX. mendetik honako euskal nazio identitatearen eta batez ere aber-tzaletasunaren azalpenerako (Juaristi, 1997, 30-31). Freuden melankoliari buruzko ikuspegia, ostera, aipaturikoen bertsioetan jaso dena baino nabar-menki sakon, konplexu eta aberatsagoa da. Ez da hau tokia teoria horretan luzatzeko. Eusebio M. Azkueren poesiaren kutsu autokritiko eta melankolika argitzeko egoki izan litekeen heinean ekarriko da gogora hemen.

Herrialdearen galera melankolia eragin lezakeen arrazoiaren artean dago Freudek doluari eta melankoliari eskainitako saio ospetsuaren arabera. Melankolia dolaaren antzekoa da baina, doluan ez bezala, melankoliaren esperientzia bizi duenak ez daki beti zer galdu duen, nahiz eta litekeena den inkontzientean zerbait galdu izana. Galdutakoa edozer dela ere, niak bere buruari zuzenduriko destainak berez beste objektu bati zuzenduak ziren jatorrian. Baina azkenean subjektuak bere nia galduriko objektuarekin identifikatu du eta objektuaren galerak niaren galera ekarri dio subjektuari berari. Objektuak eragindako irain, bazterreratze edota desengainu egoerak

bizi direnean, subjektuak objektuarekiko atxikimendu edo maitasunari eusten dio -objektua bertan behera utzi badu ere- identifikazio nartzisistaren bitartez. Hala, objektuari zuzendu beharreko gorrotoa bere burua den ordeko objektuari zuzentzen dio subjektuak. Hortaz, objektuarekiko harremana anibalentea da, maitasun-gorrotoaren artekoa, baina aldi berean erreprimetua eta inkontzientea. Libidoak objektua bertan behera uztean gainditzen da prozesua eta orduan soilik egingo zaio gertatua ageriko kontzientziari, baina oso era berariazkoan: niaren eta beronen instantzia kritikoaren arteko gatazka gisa (Freud, 1996, 2091-2100). Instantzia kritiko hori aurrerago supernia izenez ezagutuko dena da psikoanalisian.

Arau moralen araberrako (auto)kritikari toki zabala eskaini zaio E. M. Azkueren poesiagintzan. Superniaren presentzia indartsu horren arabera ere azal daiteke erlijioari aitorturiko garrantzia, dela arauak bertso eginez («Jaunaren legueko aguinduek») eta arauon urraketak eskatzen duen portaera azalduz («Pecatari bat Jaungoikuararen aurrian»), dela otoitz ezagunen itzulpenen bitartez –horietako zenbait Jose Antonio Uriarte frantziskotarrak Bonaparte printzearentzat eskatuak- (*Dies Irae*, *Ave Maris Stella*, *Stabat Mater*), dela ospakizun bereziei eskainitako bertso sailen bitartez («Gabonetako cantak», «Mayatzeko lorak», «Ama Birginiaren konzepziñoari», «Kurutzia-
ren oñean dagoan amari», «Autsaen eguna») edo nazioarteko politikaren ondorioz erasopean dagoen Aita Santuaren defentsan idatzitakoenez («Pio IX eta Napoleon III»). Tradizioak eta fedea irakatsitako arauak ezagutarazi eta subjektuaren jardura zuzentzera datozela ziurtatu nahi duen poesiagintza da Azkuerena. «Aitarene legea» osatzen duen arau multzo hori hausten duen orok laidoa erakarriko dio bere buruari. Azkueren diskurtsoko subjektu euskaldunak kritika horiek saihestu edo zuritu beharrean berarengana erakartzen ditu, bizi dituen ezbeharren erantzukizuna eta errua berak balu bezala, zaharren irakatsiak bertan behera utzi izanaren ondorioz: oraineko hondamendia (*mundu zahar* horren galera hondamendirik ikaragarriena baita hemen) iraganeko arauekin hausteak ekarri die euskaldunei.

Azkueren diskurtsoko subjektu euskalduna melankoliaren eraginpekotzat joko balitz, subjektu horrek bere buruari zuzendutako kritika esperientzia traumatikoren bat biziarazi dion objektuaren batentzat dela pentsatu beharko litza-teke. Eta esperientzia traumatikoen mentsik ez zen izan XIX. mendeko euskal-

dun penintsularren artean. Espainiako estatuaren eraikuntzak ekarririko berrikuntza soziopolitiko ugarien aurrean jarrerak anitzak izan zirela onarturik ere, ez dago zalantzarik populazioaren multzo handi batek aldaketa horiek traumatikoki bizi izan zituela, hainbeste ze haien ondorioz sortuko zen euskal naziotasunaren kontzientzia modernoa. Ordurako hasieran bere buruari zuzenduriko destainak trauma horien guztien eragiletzat jotako beste instantzia bati, nazio-estatuari, zuzentzen hasiko zaizkio subjektu euskaldun abertzalea, bere desioaren objektu Euzkadi izeneko beste nazio bat bilakatuta. Azkueren poesia prozesu horren hasieran dago, bere burua harako *mundu zahar* haren galeraren erantzule egiten duen subjektu euskaldunaren aldia, antzinako erregimenetik datorren subjektuarenean alegia. *Mundu zahar* horretan nazio identitatearen irizpideetako bat foruen bermetzat jotzen den monarkia hispanikoa ageri denez gero, subjektu euskaldun horrek bere burua espainoltzat ere badu, nahiz eta ez gaztelartzat, gorago ikusi denez. Hortaz, euskaldunei monarkia hispanikoaren egituraren esleituriko zereginak naturalizat ditu subjektu horrek, besteak beste inperio kolonial hispanikoaren proiektuan eragile aktiboa izatea, bereziki proiektu horren alderdi administratibo-burokratikoan, militarrean eta merkataritzakoan. Ez da harritzekoa subjektu euskaldun horrek berak nahigabea erakutsi izana inperio horren dekadentziaren ikuskizuna begien aurrean ageri zaionean. Eta ez da harritzekoa ere itsasoaz haraindiko inperioari eutsi ezin dion bitartean estatu liberal zentralista eraikitzen ari den nazioari erantzukizunik ez eskatzea zentralismo horren eraginak bizi dituen subjektu euskaldunak, jasandako kalteen errua bere buruari botatzeko prest dagoen subjektu melanholikoa den heinean. XIX. mendeko estatu espainiarrak egitasmo kolonialari ez zion uko egin, galdutako lurraldeak berreskuratzeko eta beste batzuekin ordezkatzeko ahaleginak erakusten duenez: espainiar nazio identitatearen oinarritzko ezaugarria zen inperioa (Blanco, 2012, 24). Inperioaren erretorika, ordea, ez zen kolonietako biztanleak soilik irudikatzeko. Euskaldunak ere *beste* egin zituen Espainiako estatu nazionalismoak, sarritan kutsu orientalista agerikoaz: zer komeni zaion ez dakien herri heldugabea, barbaroen herria, herri primitiboa, nekazari ezjakinen herria, matriarkatuaren lurraldea, alegia emakume fanatikoek menpeko zituzten gizon ahulen herria, Afrikako herrien parekoa (Molina, 2005, 159-186). Baina Azkueren poesian ez dago honekiko kexurik, ez erantzuteko ahalegin txikienik ere.

Naziotasun bikoitza egotzi izan zaie XIX. mendeko euskaldun penintsularreri. Eusebio M. Azkueren poesiagintzak naziotasun bikoitz horri buruzko ñabardura aski gogoangarriak eskainiko lizkiguke: erreprimetua den heinean, agerikoa ez baina ezkutuko maitasun-gorrotoko anibalentzia harremana ontzat jo beharko litzateke nazio espainiarrarekiko, euskaldunei egindako kritika-itxuraz azaleratzen dena. Behin honetara helduta subjektuak bere burutik hurbilen duen nazio aukera hobetsiko du eta bestea baztertu, beste horrekiko lotura mingarria dela onartuta. Nazio identitateari dagokionez, emaitza hori izango duen prozesuaren hasiera erakutsiko liguke E. M. Azkueren poesiak.

2.

Eusebio Maria Azkueren bertsogintzak badu baina berariazko beste ezau-garririk. Haren sasoian horren ohikoa ez zen autokontzientzia poetikoa nabari zaio, bertsogintzaren jardunaz hausnartzea gogoko du. Autokontzientzia hori alor literarioan eragile edo agente izateko jarreran adierazi eta hausnarketa metapoetikoak dituzten bertso sailetan gauzatzen da. «Munduaren escu bijhac» sailean bada horri buruzko hausnarketa behin-behinekorik. Alde batetik kanta berria egiteko asmoa erakutsiko du, horren bitartez bere burua bertsopaper idazleen artean lerratu duela, bai eta aditzera eman ere plaza eta tabernetako bertsolariek baino gehiago zaintzen dituela neurriak. Beste alde batetik bertsoak idaztea jostuntzaren irudiaz adierazten du: «Euzkak irakatzu deust / vertsoak neurtuten / ta jhosi ta alkarregaz / ondo batsanduten» (81-84 l.). Literatura klasikoari dion miresmena gogoan izanik, ez litzateke gehiegikeria izango jostuntzaren metafora kultura klasikoaren eremu horretatik jaso izana, bere burua *rapsoda* edo bertso lerro ehule gisa irudikatzeko asmoz, gerora Unamunok egingo zuen bezala (Juaristi, 1997, 109). Beraz Azkueren poesiagintzaren eredu garrantzitsuenak aipaturiko biak lirateke: batez ere bertsolaritzaren bertso berrigintza eta, bigarren maila batean, poesia klasikoa. Azkenik, neurri mugatuagoan bada ere, badu Azkueren poesia honek erromantizismoaren bitarteko kutsu sentibera eta exotiko edo orientalistaren oihartzunik.

Azkueren ustez bertsolariaren egitekoa egia esatea da, «Bertsolari edo koblakaria» bertso sailean dioenez:

Egia billoiz jantzi bakoak
 igas dau gaur gizarteti.
 Erdu goiazan bertsolaria,
 bera ioan dan bideti.
 (Azcue, 1990, 270; 9-12 l.)

Egia hori ez da gaitza antzematen lehen atalean ikusitakoaren arabera: galbidean den *mundu zahar* horrek irakatsia aldarrikatzea eta mundu berriaren argiak sorturiko kalteak salatzea, zenbait poematan azaldu eta «Egiaren ispilua» izenekoan laburtzen duenez, burgesiaren inguruan sorturiko hegemoniaz kexu ageri den bitartean:

Zabaldu dira mundu guztiti
 goibelarritzarr zatarrak,
 eta gitxitu zori tšarrean
 gizon artezen batzarrak.
 Barritsuenak gaurr dira onenak
 ta baketsuak ezer ez;
 onen egunak ioan zirenean
 ta bizi dira gaurr nekez.
 Orain dirua daukan guztia
 da gizaldiko gizona,
 prestu iakitun guztirakoa,
 arreteza guztiz eta ona.
 Ezta gizona diru bakoa;
 da elorr arantza latzena,
 lengo munduko mukurr gogorr bat
 arrgirik ezin leiena.
 (Azcue, 1990, 522; 65-80 l.)

Hortaz, ez da harritzekoa bere aldiko egunerokotasunak eta egunerokotasun horrek dakartzan aldaketek kutsatutako poesia izatea Azkuerena, bestela ere bertsolaritzan gertatu ohi zenez. Bada, ostera, bertsolaritzatik kanpoko oihartzunik poeta honengan. Bertsotarako etorriari dagokionez, mitologia

klasikoaren ideietara jo zuen. Parnaso mendiari lotutako istorioekin liluratu-ta ematen du Azkuek. Istorio horien haritik, bertsolariak ere Castalia iturriko ura edan behar duela deritzo, «Apolo eta musak» bertso sailean dioenez:

Ura edaten ez badau
an vertsolarijhak;
eguingo dituz vertso
gauza ezak guztijhak.
(Azcue, 1990, 60; 77-80 l.)

Hala ere, testuinguru umoretsuagoetan Castaliako urari beharrean Bakoren ardoari aitortzen dio bertsoarako gaitasuna, «Munduaren escu bijhac» bertso sailean esate baterako:

Oh ardao tokijhetako
vertsolari latzak
ce arguitasuna daukan
estutu ta matsak!
Eguizuez vertsoak
tragu bitartian
Bako Jaunagaz ondo
zagozên artian.
(Azcue, 1990, 137; 18-24 l.)

Musa bakoitzari eta euren nebatzat duen Apolo jainkoari eskainitako sortan Azkuek bere burua poeta lirikotzat jotzen du, Eratoren eraginpeko-tzat, alegia:

¡Erato Musa ederra!
arren betatuizuz
neure vertso bigunak
gracijhâz eta suz;
irakurri deijhezan
Poeta euskaldunak
Frances, Napar, ta Guipuz,
ta neure lagunak.
(Azcue, 1990, 66; 217-224 l.)

Hortaz, poeta euskaldunez osaturiko alor literarioa bereizten du Azkuek, eta bere burua ere horien artean txertatzen du. Ahapaldi horretan

esandakoak badu aldarrikapenetik zerbait. Antzinako erregimeneko alor literario espainiarrean errotuta eta hedatuta zegoen Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea zela, orduko idazle erdaldunek sarri idatzi zuten. Iritzi horren aurrean Azkue dio, alde batetik, badirela poeta euskaldunak, eta bestetik, poeta horiek berariazko alor literarioa osatzen dutela, alegia ez direla beste alor literario bateko parte edo ez daudela haren menpean.

Baina horrekin pozik ez zen gelditu, antza, eta hasierako intuizio hori are gehiago garatu zuen, harik eta poeta euskaldunentzat berariazko musa bat asmatu zuen arte. Euzka izena eman zion Parnasoko musa berriari eta poema epiko bat eskaintzeko gogoia ere izan zuen, nahiz eta egitasmo handinahi hori erdizka baino ez zuen burutu, lehen kantuko ia mila bertso lerroak idatzi ondoren. *Euzkadia* da musa euskaldunari buruz idatzitako bertso sailaren izenburua, *Iliada*, *Eneida* eta halakoetan inspiratua nonbait baina artikulua eta guzti (*Euzkada* + *a* > *Euzkadia*). 1979. urtera arte ez guztiz ezezagun baina bai ia ahazturik eta argitaratu barik izan zen. Aita Lino Akesolori zor zaio bertso horiek lehen aldiz argitara eman izanaren meritua. Aspaldikoak dira musei zuzenduriko inbokazioak euskal literaturan, noiz musa profanoari eta noiz sakratuari, Ana Toledok (2006) aztertu duen bezala. Azkueren ekarpena berariazko euskal musa bat asmatzean datza, Euzka izeneko musa:

iEuzka, Musa Vizkaitar,
Erato[re]n laguna
biar dan lez maiterik
gaur ez daukaguna!

(Azcue, 1990, 139, 61-64 l.)

Poemaren hasiera baino ez diruditen mila lerro horietan Olinpoko jainko-jainkosak elkarren artean borrokan egin eta gudarako prestatzen ageri dira, batzuk Apoloren alde eta beste batzuk kontra, azken horiek inbidia diotelako Parnason gizon legez zoriontsu bizi denez gero arrebatzat dituen musa ederren artean. Hor amaitzen da Euzkaren gorazarrerako izan behar zuen bertso sorta. Dena den, musa euskaldunaren berri gutxi batzuk ematera heldu zen, haren genealogiaren zertzeladaren bat behintzat, aitaren aldetikoa. Izan ere, Euzka hori Pirafros edo Heliafros jainko asmatuaren

alaba zen eta Pirafros bera Apolo eta Venusen semea, Venusek Vulcanori egindako iruzurraren fruitu (*Euzkadia*, 270-302 l.). Erato musa lirikoaren lagun («Munduaren esku bijhac», 62 l.) eta iloba (*Euzkadia*, 930 l.) zela ere esaten zaigu, musa guztiak Apolok arrebatzat zituenenez gero («Apolo eta Musak», 144 l.; *Euzkadia*, 715 l.). Azkuek egitasmo hori noraino garatzeko asmoa zuen ez dugu jakiterik.

Dena den, idatzita utzi zuen horretatik ondorio argi bi behintzat ateratzeko modua dago. Lehenengoa Euzkaren genealogiatik eratorria da. Mitologia klasikoaren arabera musak Zeus eta Mnemosyneren alabak dira, Euzka ez bezala. Beraz, badirudi berariazko genealogia honen bitartez nola edo hala euskal diferentzia adierazteko asmoa egon litekeela, Apolorekiko senidetatsun are estuagoa irudikatuta. Hala ere, paradoxikoa da Euzka musari berariazko jatorria eman nahi eta jatorri hori atzerrian jartzea, sarritan gertatu ohi denez emakume gisa irudikatutako nazioaren ideia eta aldi berean musa inspiratzaile diren izaki horiekin, haien izateak kutsu anbigua baitu, aldi berean tokian tokikoa eta arrotza (Stirling, 2008, 32-33).

Bigarren ondorioa Euzkak ordezkaturiko euskal kulturaren Apolorekiko harremanetik eratorria da. Apoloren kontrako gudu poetikoak ezagunak ziren antzinako erregimenean alor literarioko lehiak alegorikoki irudikatze-ko. Horietako bat Salas Barbadillok idatzitako *Coronas del Parnaso y plato de las musas* (1635) dugu. Alegoria horretan euskaldunak Apolori eta bertso- gile gaztelar kalitatezkoei gudua egiten dieten poeta kaskarren artean irudikatu dira. Azkuerenean, oster, Euzka musa Apoloren ondorengo zu- zena da. Beraz, euskal poesiaren aldarrikapen alegorikoa eskainiko liguke *Euzkadia* bertso sortak, alegia euskal literaturari alor literario espainiarrean eskaini ohi zitzaion subalternitate posiziotik kanpoko toki duina. Bigarren ondorio hau ere ez da paradoxarik gabekoa oster, Azkuek zehazten ez due- nez gero horren aspaldikoa den musa noren inspiratzaile izan den, zeintzuk izan litezkeen inspirazio horren emaitzarik gogoangarrienak, zein izan lite- keen musaren inspirazioz sorturiko emaitzen kanona.

Euzkadia poeman esandakoaz gainera, Euzkaren berri beste bertso sorta- ren batean ere eman zuen haren asmatzaileak, «Munduaren esku bijhac»

sailean esate baterako. Euzkaren eragin onuragarria euskaltzaletasunean eta hizkuntza garbitasunean gauzatzen zuen Lekeitioko bertsogileak:

Ez zaitezê atseratu
vertsolari andijhak
berbak egon ez arren
Euzkaraz guztijhak
esan ardura barik
«artun bei higoa»
«berorrek Dn. Joan Jauna»
«neure amigoa».

Baña nik guisa orretan
ez dot cantau gura
ezpada Euzka maitiak
dakijhen modura
iEuzka, Musa Vizkaitar,
Eraton laguna
bihar dan lez maiterik
gaur ez daukaguna!

(Azcue, 1990, 138-139; 49-64 l.)

Egunerokotasunaren esperientzia desatseginari emandako erantzun gisa azaldu da subjektu (auto)kritiko melankoliko euskaldunari atxikitako poema multzoa, lehen atalean ikusi denez. Insatisfakzioa bizi duen subjektu berorrek kexua eta satira noiz edo noiz alboratu egiten ditu errealitateak ukatzen dizkion esperientzia desiratuak asebetetzeko. Literatura klasikoa eta batez ere mitologia klasikoa da E. M. Azkueren poesiagintzako subjektu euskaldunak darabilen kodea bere eldarnioak irudikatzeko, batez ere «Apolo eta Musak» eta *Euzkadia* poemetan. Neoklasizismoaren aztarnatzat jo izan da poema horietan txertaturiko osagai literario eta mitologiko klasikoaren erabilera. Sistema literarioen periferietan ohikoa den arren guneko oihartzunak garaiz kanpo heltzea, behar bada zehatzagoa litzateke kutsu klasikodun poema horietan subjektu euskaldun beraren beste aldea ikustea, fantasien bitarteko desioen asebetetzea alegia, frustrazio iturri den errealitatearen aurreko konpentsazioa. Zaharkitua baina oraindik prestigioduna den kultura klasikoaren bitartez Azkuek literarioak eta aldi berean politiko-

nazionalak diren desioak gauzatzen ditu, *Euzkadia* poemaren hasieran ageri denez:

Nik, euki dodaz sarri ta askogaz ez-baijhak
baldiñ ete izan daben Musarik Vizcainjhak;
eta bici izan bada gueure artian ifiosh
icelan bere soñian daukagun aif billosh?

Baña oraiñ ciurtu naz bota ta barrijhak
Parnasoko nagosi Jaun maitegarrijhak,
Musa bat «*gueuk bakarrik*» beti euki dogula
«*gueure libertadia*» jhagoten deuskula.

(Azcue, 1990, 95; 7-14 l.)

«Apolo eta Musak» poeman Eratori inspirazioa eskatu badio ere bere «vertso bigunak / [...] / irakurri deijhezan / Poeta euskaldunak», *Euzkadia* honetan Azkuek zalantza du Bizkaia –edo Euskal Herriak, metonimia gisa interpretatuz gero– musarik ote duen eta, izatekotan, «celan bere soñian daukagun aif billosh». Euskal tradizio literario baten gabezia salatuko luke Azkuek pasarte horietan, genero batzuetan batez ere, eta bereziki historiografian, ez behar bada genero honetan gabezia hori besteetan baino handiagoa delako, baizik eta merezi izandakoaren eta emaitza diskurtsiboaren arteko aldeagatik, Cliori eskainitako pasartean ageriko egiten duenez:

Ez dau Clíok ikasi
inosh bere euskara:
historijha bakoak
euskaldunak gara:
iCeimbat gauza andi armêtan
emen eguin dira!.....
i ta lumak tinta barik!.....
ta Clío beguira!.....

(Azcue, 1990, 65; 193-200 l.)

Funtsean Azkue salatzen ari dena Euskal Herri penintsularreko euskal literaturaren subalternitate egoera litzateke. Euskal tradizio literario sendo batean txertaturiko historiografia euskarazkoa lanabes ezin lagungarriagoa izango luke Azkuek *mundu zahar* haren defentsarako bertsogintzaren bitartez, estatu liberal zentralistak bere helburuetarako erabiltzen zuen zenbait

idazlek egin ohi zuenez. Sarritan Eusebio Mariaren poesiagintzara hurbildu direnek bitxikeriatzat jo izan dituzte Parnasoko pertsonaiak mintzagai dituzten poema hauek. Bestelako iritzia izango zuketzen gogoan hartu balute zein indartsua zen Parnasoari buruzko formazio diskurtsibo espainola ez soilik antzinako erregimenean baizik eta oraindik ere estatu liberalaren eraikuntza garaian. Poema horiek dira Azkuek asmatu zuen era formazio diskurtsibo horrekin negoziatzeko, ondorengo lerroetan ikusiko dugunez. Izan ere, alor literarioa alegorikoki irudikatzen zuen Parnasoan erabateko kontsagrazioa lortzeko modua idazleak ereinotzeko koroa bereganatzea zen. Mezenasgoa eskaintzen zuenak ere idazle koroatuaren ospeaz hornitzen zuen bere burua. XIX. mendeko burgesia espainiarrak iraganeko eta oraineko idazleak ospatu ohi zituen antzinako erregimenekotik bereizten zen kultura berariazkoa erakitzeke baliabide gisa (Palenque, 2008, 28), baina nekez aurkituko dugu idazle euskaldunik estatu liberaleko gobernuak koroaturiko idazleen artean, antzinako erregimenean ere aurkituko ez genukeen bezala.

Azkueren poema gehienak datatu baino lehentxoago Isabel II.aren gobernuak Quintana idazle eta politikaria poeta nazional gisa koroatu zuen Senatuan erreginaren beraren eskutik 1855.eko martxoaren 25ean. Quintana bera liberalek heroia abertzale gisa irudikaturiko Padilla eta Guzman bezalako pertsonaia historikoen laudatzaile izan zen, koroatzean parte hartu zuten poeta lagunek gogoratu zutenez (Palenque, 1991, 243). Koroatze ospakizunaren bitartez estatu-boterearen alorra alor berorretako eta aldi berean alor literarioko gizarte eragile ospetsu bat helburu politikoetarako erabiltzen ari zen: «Esta imagen social del poeta se construyó como autorrepresentación triunfante del régimen liberal, para el cual Quintana simbolizaba la lucha continuada contra la opresión y el mantenimiento de unos valores de integridad y honestidad a los que quería remitirse el propio sistema: el patriotismo liberal» (Sánchez, 2011, 6). Quintanaren erabilera politikoa berriro ageriko egin zen poetaren hileta ospakizunean gobernuak jarritako arreta berezian haren poeta nazional kondizioa azpimarratzeko, Fomentoko ministro Moyano bera (lasterrera hezkuntzan horren eraginkorra eta hizkuntza gutxituentzat horren kaltegarria izango zen Moyano legearen egilea) hileta segizioaren buru zela, hildakoa partaide izandako erakunde-ordezkarien laguntzaz. Erakundeon artean honako hauen ordezkariak izan ziren: Real Academia de la Historia,

Real Academia Española, Real Academia de Bellas Artes de San Fernando, Senatua, Consejo de Instrucción Pública, prentsa eta 1855.eko koroatze ospakizuna antolatu zuen batzordea (Sánchez, 2011, 9). Hortaz, ezin agerikoa goa da estatuko indar hegemonikoek lorturiko kontsentsua Quintanaren inguruan. Horixe bera erakusten du Senatuko koroatze ospakizuna irudikatzen duen pintura egin izana erreginak santzionaturiko lege baten aginduz. Egitasmo hori Vicente Lopezen seme Luis Lopez y Piquerrek burutu eta 1860ko Nazio Erakusketan plazaratu zen lehen aldiz. Pintura hori egun Pradoko Museo Nacional bere jabeak Senatuan du gordailatua (Miguel, 2014). Quintanaren bizitzaren inguruko xehetasun horiek guztiek ezin argiago erakusten dute zenbaterainoko garrantzia aitortzen zien estatuak artearen eremuko ondasun sinbolikoei eta bereziki literaturari nazio identitatearen eraikuntzarako.

Prentsari esker hedapen zabala lorturiko berri horiek guztiek izango zuten oihartzunik Euskal Herrian eta bereziki Azkuerengan. Parnasoari eta musei buruzko irudikapen poetiko horietan Azkue estatuak bere nazio identitateaz sorturiko diskurtso indartsuarekin negoziatzen ari da. Estatuaren diskurtsoa eta honek dakarren nazio identitatea bere horretan onartu beharrean, diskurtso horren ordezkoa proposatzen ari da poema horien bitartez, estatua-
ren diskurtso hegemonikoari nolabaiteko erresistentzia ezarri nahirik, subalternitatetik hurbil dagoen posizio zeharo ahulago batetik bada ere. Gorago aurreratu bezala, Parnasoa aipatzea literaturaren eta artearen alorra alegorikoki irudikatzeko ohiko era zen antzinako erregimenean. Parnaso espainola nonahi ageri da aldiko argitalpenetan eta oraindik ere XIX. mende osoan zehar (Quintanak berak bilduriko antologia batzuetan, besteren artean: *Tesoro del Parnaso español. Poesías selectas castellanas desde el tiempo de Juan de Mena hasta nuestros días*), eta horrekin batera musa gaztelar edo espainolari zuzenduriko inbokazioak.

Literaturatik kanpo ere Parnasoaren ideari nazioaren kultura maila jasoa iradokitzeke ahalmena aitortzen zitzaion ikonografiaren bitartez. Europako zenbait gortetan bezala, Madrilekoan ere Carlos IV.ak Parnaso español ize-neko portzelana multzo bat eskatu zion 1802an Real Manufactura de Porcelana del Buen Retiro erakundearen lantegiari. XIX. mendeko gorabeheren ondorioz Parnaso mendian sakabanaturiko 63 figura izan behar zituen multzotik 14 baino ez dira heldu, horien artean Apolo eta musak (Melpo-

mene izan ezik), hiru idazle (Cervantes, Calderon de la Barca eta Jeronimo Bermudez), Herrera arkitektoa eta Tajo ibaia, gehienak Madrileko Museo Arqueológico Nacional erakundera eramanak 1869. urtean (Barriuso, 2001). Museo horrek urte batzuk beharko zituen irekitzeko, egoitza nagusia eraikuntza prozesuan baitzen, baina ez zegoen zalantza izpirik eraikin horrek eta bertan batuko zituen erakundeek nazio identitatearen eraikuntzan izango zuten egitekoaz: Palacio de Biblioteca y Museos Nacionales izeneko eraikina esandako museoaren eta Biblioteca Nacional de España erakundearen egoitza da. Ez da harritzekoa nazioaren kultura jasoaren alegoria gisa –eta beraz nazioaren beraren gorentasunaren ikur gisa– kontzebituriko portzelana multzoa, Parnaso español hura, nazio identitatearen eta nazio horren batasunaren froga izateko pretentsio zientifikodun erakundean amaitu izana. Holoren analisia XX. mendeko egoerari zuzendu bazaio ere, gehienez egokia izan liteke sorrera unerako ere:

El Museo Arqueológico Nacional es la clásica institución destinada a la construcción de identidad [nacional] y está lleno de objetos gloriosos procedentes de todas las regiones de la Península Ibérica expuestos con el fin de recrear la historia oficial de España. [...]. Empieza su discurso con la cultura existente con anterioridad a los íberos y continúa de forma unificada, lineal y clara hasta llegar a la actualidad; en esta historia todas las batallas y las victorias nos llevan a la unificación última de España. La escultura, las Artes Decorativas y los objetos funerarios se usan aquí para hacer hincapié en la construcción histórica del Estado-nación, a través de todas sus expediciones, conquistas y reconquistas» (Holo, 2002, 32).

Alde horretatik antzinako erregimenari zor zitzaion Parnaso español bezalako dekorazio artelan batek ere badu gaitasun nahikoa estatu liberal zentralistaren asmoei erantzuteko berez duen zentzu identitario hori azpimarratuz antzinako erregimenarekiko loturak ahaztu ondoren. Portzelanazko Parnaso español horri estatu zentralistaren erakunde identitate-eraikitzaile berrian egindako harrerak izango zuen oihartzunik garaiko komunikabideetan. Azkueren irudimena pizteko balio behar izan zuten berri horiek. Baina idazle honen erantzuna aski berezia izan zen: literaturan nahiz artean eraiki zen Parnaso espainolari buruzko diskurtso erraldoiarekin negoziatzen jarri-

ta, Azkueren erantzuna ez da zehazki euskal literaturaren aukera bera ukatzen zuen espazio horretan sartzen ahalegintzea, baizik eta Parnaso euskaldun batetik hurbilago egon zitekeen alor berri bat irudikatzea eta alor hori berariazko musa euskaldun baten inguruan hedatzea.

Euzka musaren beraren itxura ere ezin adierazgarriagoa da. Musaren deskripziorako testuinguru hurbilagoko osagaiak lehenetsi ditu poetak, mundu klasikotik zuzenean bildu beharrean, «Munduaren esku bijhac» poeman eskainitako erretratuaren arabera:

Kaltzaiduzko coroia
dauko Euskak buruan
ota loraz beterik
ganeko inguruan,
ulia zati bijhan
eijhorik atserantz
mantu azulen ganeti
dindilizka beratz.

Gonia ta chambria
zurijhak soñian
ta cillar hebillakaz
zapatak oñian:
otso narru ediaz
estu ta garrijha,
Olimpoko andra andijhen
amurrugarrijha.

Euzkak irakatsi deust
vertsoak neurtuten
ta jhosi ta alkarregaz
ondo batsanduten:
belarrijhetan daukat
vertsoên neurrijha
ebaten dodanian
andi nai chikijha.

(Azcue, 1990, 134-140; 65-88 l.)

Euzkaren ezaugarriek, eta batez ere apaingarriek, Erdi Aroan girotuak dirudite. Musa bizkaitarra izanik, jaureriaren aztarna izan litezke koroa, mantua eta otso larruaz egindako hedeak, Bizkaiko armari zaharrean ageri ziren otsoen oihartzun. Erdi Aroa erreferente urruna izanik, badira idazlearen garaitik hurbilagoko ikonografiaren aztarnak. Eugenio Azcue pintore oriotarrak 1856an koadro alegoriko bat bidali zion Gipuzkoako Foru Aldundiari Parisetik, bertan zenez gero arte ikasketak osatzen. Irurac bat izeneko koadroak¹ hiru probintziak irudikatzen ditu emakume gisa:

Alegoriazko margolan horrek hiru probintzia euskaldunen batasuna adierazten du: itxura eta arropa klasizistak dituzten hiru emakume euren eskuineko eskuak batuta ageri dira, eta, hondoa dagoen paisaiaren erdian, haritz bat ikus daiteke, Gernikako arbolari aipamena eginez, zalantzarik gabe; ezkerreko eskuan, berriz, emakume bakoitzak bere lurraldeari dagokion armaria darama. Egikera akademikoa eta oihartzun puristak dituen obra da, eta [Eugenio] Azcueren mintzairan marrazkiak eta bolumenak zuten garrantzia erakusten du. (Fornells, 2013, 14)

Eusebio Mariaren Euzkak pintore oriotarraren Bizkaiarekin izan lezake antz handiena. Hala ere, hiru probintzien sintesi bezalakotzat ere jo liteke Euzka: Bizkaiaren koroa, mantua eta arropa zuria badiu ere, koadroko mantua ez da azula, gorria baizik; janzteko azula duena Araba da, eta Gipuzkoa gerrikodun bakarra. Eusebio Mariaren irudikapenean hiru probintzien arteko banaketa gainditua izango litzateke batasunaren alde. Horregatik eta gorago aipaturiko kutsu politikoagatik («*gueure libertadia*» jhagoten» duena denez gero) musa ez ezik nazioaren beraren alegoria ere bada Euzka.² Eskoziako literaturako Scota aztertzen diharduela, Stirlingek uste du funtzio bien arteko gainezarpen hori ez dela nahitaezkoa. Britannia,

¹ Eugenio Azcueren koadroa, oraintsu Gipuzkoako pintore erromantikoei eskainitako erakusketa baterako bildua, Fornellsen liburuan ikus daiteke (73). Coro Rubioren liburuaren azalean ere ageri da.

² Nazioa emakume gisa irudikatu duten tradizio literario ugarien artean badira inoiz estatu egiturekin harreman istilutsuak izandakoak, besteak beste Eskoziak (Stirling 2008) eta Irlanda (Rosen-de 2008). Stirlingen lana bereziki lagungarri izan dut E. M. Azkueren poesia alegorikoaren interpretaziorako eredu gisa.

Helvetia, edo Marianne emakume itxurako nazioaren figurak dira Britainia Handian, Suitzan eta Frantzia hurrenez hurren. Figura horiek egiteko instituzionala dute: eraikin, txanpon edota zigiluetan ageri dira. XVIII. mendearen amaieran sorturiko Scots musak, oster, ez du egiteko instituzionalik, Eskozia Erresuma Batuarien parte denez gero. Haren eragina eremu literario mugatuko litzateke: «The lack of an institutional role for a Scotland-as-woman figura means that literature becomes her natural habitat. Alexander Ross's muse Scots is very much concerned that he should write in Scots, and the production of literature in the national language is the most significant nationalist act to which she can push her sons» (34). Euzkari egotzitako egitekoa ere poeta euskaldunak euskaraz idatzaraztea litzateke. Baina beraren inguruan alor literario berariazko bat antolatzen den heinean, euskarazkoa den literaturaren alorra hain zuzen ere, alor berri horrek badu nazio berariazko baten prefiguraziotik zerbait. Euzkaren egitekoa ez da soilik inspiratzea, baizik eta *libertateak* zaintzea ere. Ez dago zalantzarik Eusebio M. Azkueren pentsaeran libertate horiek mundu zaharrari atxikitako foruak direla, baina aldi berean foru sistemak berezko ez duen euskaldunen arteko batasun irrika ere erakusten duela Euzkak. Alde horretatik, utopiatik edo etorkizunerako egitasmotik zerbait ere badu Azkueren fantasiako proposamenak. Luze eztabaidatu izan da Sabino Aranaren Euzkadi hitz asmatuaren sorreraz baina gutxitan ekarri da gogora Eusebio Mariaren *Euzkadia* (Azcue, 1990, 25-28), eta ekarri izan denean ere, haien arteko harremana ukatzeko izan da (Zabaltza, 1997, 78). Harremanaren proba empirikorik ez badago ere, zalantza gutxi egin liteke hitz bien arteko filiazioaz. Nekez kasualitate izan litekeen idazkera aldetiko berdintasunaz gain, Aranaren Euzkadik *eguzki* hitzarekin eta Bizkaiarekin duen lotura, Zabaltzak aztertu duenez, bazen alde aurretik Azkueren Euzkarengan: alde batetik, Pirafros edo Heliafrosen alaba izanik, aitaren izenak suarekiko eta eguzkiarekiko harremana adierazten du, eta besterik ez da Pirafros edo Heliafros hori bera Apoloren semetzat jo izana; beste batetik, agerikoa da Euzkaren beraren kutsu bizkaizentrista, bai behinik behin Bizkaiaren musatzat jotzen delako, bai eta Eugenio Azcuere Irurac bat koadroko emakumeen artean Bizkaia irudikatzen duena antzekoen duelako. Euzkadi baino lehen poeta batek asmatuiko Euzka izeneko musa izan zen, bai eta musa horren gorazarrerako izan behar zuen poema egitasmo amaitu gabekoa ere, *Euzkadia*.

Apalategik Aranaren diskurtsoak eskatzen duen subjektu mota berria identifikatu du:

Lortzeke dagoen Estatuaren beharra aldarrikatuz, Sabinok euskal(dun)tasunaren urrezko aroa etorkizunean kokatzen du, benetako irakultza kopernikanoa burutuz ordura arteko euskal pentsamendua-
rekiko. Euskal pentsamendua, ordutik aurrera, utopikoa izango da, eta ez nostalgikoa. Bestalde, bigarren iraultza bat etortzen da Sabinoren premisa estatuzaletik (azken hau ez hain kopernikanoa, Errenazimentuko euskal humanisten ildora itzultzea suposatzen baitu, funtsean): Estatuaren beharrak esan nahi du «besteen gradura» igo-
tzea, alegia beste nazio modernoekin homologatzea. Bi iraultzak uz-
tartuz gero –etorkizunera begira jartzea eta nazio modernoarekiko
homologatze nahia adieraztea-, euskal subjektu moderno sortu dela
ohartzen gara. Sabinoren paradoxa honakoa da, beraz: sakonki
erreakzionarioa den esentzialismo erromantiko batetik abiatu-
ri modernotasunaren norabidean jarri izana euskal subjektua. (Apalategi,
2013, 64)

Azkueren egitasmo poetikoan ez dago estatu proposamenik oraindik. Eta hala ere Aranaren egitasmora heltzeko bidean dagoela esan liteke. Izan ere, Azkueren diskurtsoak ere baditu bere paradoxak, eta horietan txikiena ez da Euzka musaren jatorriari dagokiona, Parnaso mendia alegia. Literatura eskoziarra aztertzean, paradoxa bera aurkitu du Stirlingek ez soilik Eskoziaren emakume gisako irudikapenean, baizik eta beste nazio askorenean ere, tokian tokikoaren gauzatzea izanik ere, sarritan inondik etorritakotzat jotzen direnez gero, eta horrexegatik denak elkarren antzekoak. Paradoxa hori azaltzerakoan Stirlingek diskurtso horiek adierazten duten nazio auto-kontzientzia azpimarratzen du:

The similarities between the iconic figureheads are greater than their differences. Although each figurehead is meant to embody a pure national essence, a shared sisterhood seems more important than the distinct national identities the individual women represent. This runs counter to the idea that the woman-as-nation figure is home-grown, identified with the soil of her native land – rather, she is part of a larger aristocratic family. In this model the idea of nation itself is more important than individual national identity, and this

makes sense in the case of Scotland when we consider that the use of a Scotland-as-woman figure asserts Scotland's similarity to other nations and her participation in the condition of nationhood itself. (Stirling, 2008, 30)

Alegoria den heinean, Euzkaren jatorria ere haren jatortasuna adierazteko aipatzen da, nahiz eta baduen kontraesanik bertakoa izatearekin, kontraesan hori azaltzeko ahaleginik eskaintzen ez dela. Baina horrek berak naziotasunaren beraren aldarrikapena errazten du, Euzka beste nazio batzuen irudikapenen maila berean jartzen baitu. Lehen atalean aipaturiko subjektu melankoliko eta abertzaletasun bikoiztunetik abiatutako subjektu utopiko berrirako eraldaketaren lehen aztarnak Azkueren beraren diskurtsoan aurki litezke.

Euzkaren alegoriari lotutako diskurtso poetiko honen inplikazioak geopolitikoak ez ezik biopolitikoak ere badira, batez ere generoari dagokionez, emakume gisa irudikatutako nazioaren subjektuaz baldintza zorrotzak ezartzen direnez gero. Eta horretan ere Azkueren diskurtsoa ez da paradoxarik gabekoa, emakume figurako alegoriak erabili ohi dituzten diskurtsoetan gertatu ohi denez. Euzkaren deskripziora une batez itzuliz gero, ageriko egiten zaigu bere itxuraren zurruntasuna, eta batez ere birjintasuna eta kastitate adierazten duten sentsualtasun gabezia: arropa zuriaren sinbolikotasunaz gain, mantuak are gehiago estaltzeko balio du, bai eta belarri edo hebilladun zapatek ere, eta ile ehoa ere sentsualtasun gabezia horren aztar-na da. Emakume itxurako alegoriak sakonetik aztertzean, Marina Warnerrek Atenearengan identifikatu du irudikapen horien eredua, bai nazio identitatearen aldetik, bai eta musa inspiratzailearenetik ere: «Athena, goddess of wisdom and of war, is the pattern for the armed maidens, invulnerable epitomes of the nation, like Britannia, as well as the Renaissance's muse of muses, patroness of learning and the arts» (XXI). Euzkari arretaz begiraturaz gero, ez da zaila ohartzea haren eredu hurbila Erdi Aroan badago ere, oraindik Atenearen ezaugarrien aztarnak ez direla guztiz ezabatu: altzairuzkoa du koroa, jainkosaren kasketaren antzera; otso narru hede-egindako gerrikoa Atenearen egidarekin berdinean liteke; eta bere itxura orokorrean jainkosa baten parekoa da, «Olimpoko andra andijhen / amurragarrija», baina nekez amatasuna edo edertasun limurtzailea adierazten duten jainko-

sen. Armadurarik ez duen arren, Euzka ere burdin jantzi eta guzti irudikatutako emakume alegoriko itxura androginoaren horien artekoa da³, eta ez nolanahi, gizarte patriarkaletan hobetsitako irudi sinboliko garrantzitsua izan da-eta. XIX. mendeko gizarte viktoriarrean Ateneari egindako harrera beroa arakatzean, orduan eta ondoren ere emakumearen irudikapen horrek lortutako arrakasta honela azaldu du Warnerrek:

Armour is worn by so many imaginary women, projections of the ideal, visual and literary, in our civilization today in order to demonstrate by deep association their law-abiding chastity, their virtuous consent to patriarchal monogamy as the system by which descent is traced and property transmitted. [...] Their bodies are made masculine through buckler, breastplate, helmet and spear, often directly recalling representations of Athena, to manifest their good behaviour in recognizing male precedence in kinship, or male authority in society and home. The chastity of the female body and the fidelity of a wife are essential to that. (Warner, 1996, 124-125)

Hortaz, Euzkaren itxurak berak bat egingo luke Azkueren poesiagintzak emakumeei eskainitako objektu posizioaz, lehen atalean ikusitakoaren arabera. Euskal poesiaren musari eta nazioaren irudikapenari emakume itxura eman izana ez da inondik ere emakumeak nazioan subjektu izateko gonbidapena. Sabino Aranaren pentsaeran agerikoa da gerora ere XX. mende hasierako abertzaletasunak emakumeari eskainitako maila apalagoa (Amurrio, 2006). Horretan ere Eusebio Maria Azkue aitzindari izan zen. Aldi berean, musa nazionalak emakume itxura hartzen duenetik, emakumeei poeta edo idazle izateko aukera ukatzen zaie, subjektu poetikoaren posizioa gizonezkoentzat gorderik gelditzen den heinean, literatura eskoziarrean gertatutakoaren antzera (Stirling, 2008, 34). Beraz, ez da harritzekoa emakume bertsolariak edota Bixenta Mogel bezalako idazleak oihartzunik gabe gelditu izana Azkueren poesiagintzan, lehen atalean ageriko egin denez.

³ Eugenio Azkueren koadroan Gipuzkoa irudikatzen duen emakumeak biltzen ditu Ateneari dagozkion ezaugarri gehienak: gerritik gorako armadura janzteaz gain, kaskoa eta lantza dautza bere oinetan. Gainera hiru emakumeek euren probintziaren armariari eusten diote ezkerreko eskuaz ezkutua balitz legez.

Azkueren Parnaso euskalduna euskal literatura subalternitate egoeratik ateratzeko ahalegin gogoangarria da, bai bere horretan, bai eta gerora hegemonikoa izango zen euskal nazio identitatearen aurrekari gisa, euskaldunak subjektu poetiko eta politiko izateko bidean jartzen dituen gero. Baina aldi berean subjektu posizio hori bera ukatzen zaie beste batzuei, eta batez ere *mundu zaharra* atzean uztearen aldeko eta emakumeei.

Bibliografia

AGAMBEN, G., 1995, *Estancias. La palabra y el fantasma en la cultura occidental*. Valentzia: Pre-textos.

AMURRIO, M., 2006, «Las mujeres en el proceso generizado de construcción de la nación vasca», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28 (2006) 119-134.

APALATEGI, U., 2013, «Euskal subjektuaren bilakaera erromanekoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak» [artikulu linean], 452^oF. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9 (2013) 56-77. <http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf>

AZCUE, E. M., 1990, *Euskarazko vertsoak*. Bilbao: Labayru Ikastegia.

BARRIUSO, I., 2001, «Apolo y el Parnaso. El pensamiento neoclásico en las representaciones alegóricas», <<http://www.man.es/man/dms/man/actividades/pieza-del-mes/historico/2001-creencias-simbolos-y-ritos-religiosos-3/9-diciembre/MAN-Pieza-mes-2001-12-Apolo-Parnaso.pdf>>

BILLING, M., 1995, *Banal Nationalism*. Londres, Thousand Oaks, New Delhi: SAGE.

BLANCO, A., 2012, *Cultura y conciencia imperial en la España del siglo XIX*. Valentzia: Universitat de València.

FORNELLS, M., 2013, *Gipuzkoako Pintore Erromantikoak. Pintores Románticos Guipuzcoanos*. Donostia: Kutxa Fundazioa.

FREUD, S., 1996, «Duelo y melancolía», in *Obras completas. Tomo II (1905-1915) [1917]*. Madril: Biblioteca Nueva.

GABILONDO, J., 2013, «Galdós, Etxeita, Rizal – Madrid, Mundaka, Manila: On Colonial Disavowal and (Post) Imperial Articulations of the Hispanic Pacific-Atlantic» [online article], 452^oF. *Electronic journal of theory of literature and comparative literature*, 9 (2013) 13-41. <http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-joseba-gabilondo-orgnl.pdf>

HOLO, S., 2002, *Más allá del Prado. Museos e identidad en la España democrática*. Tres Cantos: Akal.

JUARISTI, J., 1997, *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*. Madril: Espasa Calpe.

LARRAÑAGA, C., 1997, «Del bertsolarismo silenciado», *Jentilbaratz*, 6 (1997) 57-73.

MAYER, T. (ed.), 2000, *Gender Ironies of Nationalism. Sexing the nation*. Londres eta New York: Routledge.

MIGUEL, P. de, 2014, «Coronación de D. Manuel J. Quintana, 1859», <http://www.senado.es/web/conocersenado/arteypatrimonio/obrapictorica/detalle/index.html;jsessionid=zm2TSxdXVLg7GxDGvKnLzpyvTM2zPmQF2y5nwRyZVRPRpWfzZqX2!209784553?id=SENPRES_013992>

MOLINA, F., 2005, *La tierra del martirio español. El País Vasco y España en el siglo del nacionalismo*. Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

PALENQUE, M., 1991, «La persistencia clasicista en la poesía decimonónica: Las «coronas» a Manuel José Quintana (1855)», *Philologia hispalensis*, 6 (1991) 237-247.

———, 2008, «La coronación de Manuel José Quintana (1855)», *Insula*, 744 (2008) 26-29.

ROSENDE, A., 2008, «La iconografía femenina de Irlanda. Creación y re/construcción de una nación en femenino», *Lectora*, 14 (2008) 251-267.

RUBIO, C., 2003, *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Madril: Biblioteca Nueva.

SANCHEZ, R., 2011, «Los funerales de Quintana», *Cuadernos de Ilustración y Romanticismo*, 17 (2011) 1-13.

STIRLING, K., 2008, *Bella Caledonia. Woman, Nation, Text*. Amsterdam, New York: Rodopi.

TOLEDO, A., 2006, «Musen arnasatik goi-arnasara euskal letretan barrena», *Euskera*, 51-2 (2006), 629-656.

VICKERS, J., 1990, «At His Mother's Knee: Sex/Gender and the Construction of National Identities», in G. Nemiroff (ed.), *Women and Men: Interdisciplinary Readings on Gender*. Toronto: Fitzhenry and Whiteside, 478-492.

WARNER, M., 1996, *Monuments and Maidens. The Allegory of the Female Form*. Londres: Vintage.

YUVAL-DAVIS, N., 1997, *Gender & Nation*. Londres, Thousand Oaks, New Delhi: SAGE.

ZABALTZA, X., 1997, «El significado oculto de la palabra «Euzkadi»», *FLV*, 29-74 (1997) 77-83.

Eusebio Maria Azkueren nortasunaz eta harreraz argitasun batzuk. Harenak ote dira «Carlistenac» bertsoak?

Eusebio Maria Azkue: algunas noticias sobre su vida y sobre la recepción de su obra. ¿Quién es el autor de los versos «Carlistenac»?

Eusebio Maria Azkue: quelques renseignements sur la vie et la réception de son oeuvre. Qui est l'auteur de la composition en vers «Carlistenac»?

Eusebio Maria Azkue: some information about the life and the reception of his work. Who is the author of the poem «Carlistenac»?

ALTZIBAR ARETXABALETA, Xabier
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-06-30

Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 2. 433-483. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ikerlan honek, alde batetik, Eusebio M. Azkueren alde biografiko batzuk erakusten ditu, Lekeitioko Nautika Eskolako irakasle izan zen garaikoak (1862-1873). Esaterako, katedrak lan zama handia ezarri ziola baina soldatari esker kitatu ahal izan zituela zorrak, eta, bestalde, aita familiako gisa arduraz jokatu zuela bere bi ezkontzetako seme-alaben arteko batasuna eta elkar laguntza bilatuz. Bestetik, Eusebio M. Azkueren hizkuntza, idazkera eta metrika beste testu batzuetakoekin konparatuta, ikerlanak ondorioztatzen du «Carlistenac» bertsoak, Eusebio M. Azkueren poemen biltzaile eta argitaratzaile batzuek Eusebio M. Azkueren izenpean agerrarazten dituztenak, ez diratekeela harenak, Bizenta Mogelenak baizik.

Hitz-gakoak: Bertsoak, «Carlistenac», autoretza, Bizenta Mogel, Lekeitioko Nautika Eskola, Azkue aita-semeei omenaldia (1936).

Este artículo, por una parte, muestra unos datos biográficos de Eusebio M. Azkue, de la época que fué profesor de la Escuela de Náutica de Lekeitio (1862–1873). Por ejemplo, que la cátedra le supuso gran carga de trabajo, pero que gracias al sueldo pudo saldar sus deudas. Como padre de familia actuó con responsabilidad, promoviendo la armonía entre los hijos e hijas de sus dos matrimonios. Por otro lado, comparando el lenguaje, la escritura y la métrica de Eusebio M. Azkue, el artículo concluye que los versos «Carlistenac», que algunos recopiladores de poesías y editores atribuyen a Eusebio M. Azkue, nos son suyos, sino de Bizenta Mogel.

Palabras clave: Versos, «Carlistenac», autoría, Bizenta Mogel, Escuela de Náutica de Lekeitio, homenaje a Azkue padre e hijo (1936).

Cet article présente d'une part des données biographiques sur Eusebio M. Azkue, à l'époque où il était professeur à l'Ecole de Navigation de Lekeitio (1862–1873). Que par exemple sa chaire supposait une grande charge de travail, mais que grâce à son salaire il put solder ses dettes. Qu'en tant que père de famille il se montra responsable, instaurant l'harmonie entre ses fils et ses filles de ses deux mariages. D'autre part, en comparant le langage, l'écriture et la métrique d'Eusebio M. Azkue, l'article conclut que les vers «Carlistenac», attribués à Eusebio M. Azkue par de quelques chercheurs, ne sont pas de lui mais de Bizenta Mógel.

Mots-clés: Vers, «Carlistenac», paternité, Bizenta Mogel, Ecole de Navigation de Lekeitio, hommage à Azkue père et fils (1936).

On the one hand, various biographical data relating to Eusebio M. Azkue are presented, from the period when he was a teacher at the Lekeitio navigation school (1862-1873). For example, that the post was a source of considerable hard work, but that the income allowed him to pay off his debts. As a father he acted responsibly, promoting harmony between the

sons and daughters of his two marriages. On the other hand, based on a comparison of the language, style of writing and metrics with other texts by Eusebio M. Azkue, the conclusion is reached that the verses entitled “Carlistenac”, which many poetry anthologizers and editors attribute to Eusebio M. Azkue, are not his but Bizenta Mogel's.

Keywords: Verse, “Carlistenac”, authorship, Bizenta Mogel, Lekeitio Navigation school, homage to Azkue father and son (1936).

Sarrera

Euskalzaleentzat Eusebio Maria Dolores Azkue (Lekeitio 1813-1873) Resurrección Maria Azkueren (1864-1951) aita izan zen, olerkaria baino gehiago, luzaroan, baina dagoeneko olerkari alderdiak gaina hartua dio guraso alderdiari. Diogunaren lekuko dira Eusebio Mariaren aipamenak bere garaian (Fr. J. A. Uriarte, J. Manterola), poemen argitalpenak hilda gero, eskainitako omenaldiak, haien kariatara eginiko azterketak etab. Hala ere, haren poesien transmisioa eta harrera ez ditugu ongi ezagutzen, ezta haren bertsoen testu-ingurua, eraginak, pentsamoldea edo bertsogintza; areago, zalantzak ditugu ea harenak ote diren hari egozten zaizkion bertso-sorta batzuk.

Euskaltzaindiak eta Lekeitioko Udalak antolatu eta ospaturiko jaiotza mendeurreneko omenaldia (Lekeitio, 2013) aitzakiatzat hartu eta E. M. Azkueren poemak eta bizitza hobeki ezagutzeko aukeraz baliatuz, bi arlo aztertuko ditugu artikulu honetan: bata, haren biografiari eta harrerari dagozkien alderdi batzuk (1); bestea, haren poema batzuen egiletza arazoak, «Carlistenac» bertsoak adibidetzat hartuta, hain zuzen, bertso horiek E. M. Azkuerenak balira bezala agertzen baitira Uriarteren bertso-bilduman eta E. M. Azkueren olerkien edizio oso eta zehatzenean, Astigarraga-Bijuescarenean (2). Ondorioz, XIX. mendeko idazle bizkaitarrak eta haien poemen egiletza arazoak, elkar eraginak eta testuartekotasuna ikertu beharra azpimarratzen dugu (3).

Uste dut gure artean hain erabilia eta askotan emankorra izan den biografia lanak laguntzen duela E. M. Azkueren bertsoak garaian kokatzen eta hobeto ezagutzen. E. M. Azkue irakaslea izan zen ogibidez, seme-alaba ugari izan zituen eta ez zuen olerkirik argitaratu (bat edo beste izan ezik), baina XIX. mende bukaeran Manterola eta Resurrección Maria Azkue haren poemak argitaratzen hasi zirenetik haren ospea gora-goraka joan zen, batez ere Pizkunde giroan. Bestalde, E. M. Azkueren bertso edo olerkiak sakabana-tuak zebiltzan, harik eta A. Astigarraga eta J. Bijuescak bildu zituzten arte (*Eusebio Maria Azkue-koa. Euskarazko bertsoak*, 1990). Eskuizkribu, iturri eta aldaerak biltzen dituen ikerlan horren bikaintasuna aitorturik ere, zalantzan jarriko genuke bilduma horretako bertso-sorta batzuk harenak direla.

Lan honetan, alde batetik, E. M. Azkueren biografia datu berriak biltzen ditugu haren irakasletzaz eta familiaz, Lekeitioko eta Euskaltzaindiko artxi-boak ikertuta, J. Kortazarrek bilduak osatuz. Bestetik, E. M. Azkueren poemak egiletza arazoak eztabaidatzen ditugu testukritikaz baliatuz eta testuen arteko konparazioak eginez.

Eskerrak zor dizkiegu artxiboetan ikertzeko eman diguten informazioa eta laguntasunagatik Maite Garamendi Lekeitioko Udal Artxiboko, Josune Olabarria Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako, eta Iñaki Goiogana Sabino Arana Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko langile teknikariei. Baita Euskaltzaindiari, Eranskinetako agiri batzuk argitaratzen uzteagatik.

1. Argitasunak Lekeitioko irakasletza aldiak eta harreraz

Atal honetan E. M. Azkueren alderdi biografikoak aztertuko ditugu: Irakasletza Lekeitioko Nautika Eskolan (1.1.), familiaren ardura (1.2.), 1836ko omenaldia (1.3.).

1.1. Jakina denez, lehenengo Bermeoko Nautika Eskolan egon zen irakasle (1842-1848), gero Mundakakoan (1848-1854)¹ eta azkenik Lekeitiokoan (1862-1873). J. J. Uribarrenek eramanda joan zen bere jaioterriko Nautika Eskolara, hark eta J. L. Abaroak 1861ean sortutakora.² Lekeitioko Udal Artxiboan gordetzen dira Nautika Eskolako matrikula liburuak eta agiri ugari. Horien artean, E. M. Azkue beraren eskuko informe bat, zuzendariaren ordezkari Demetrio Duro Valladolideko Errektoreari 1868/02/06an bidalia (ERASKINAK: 1). Ondorengo lerroetan azalduko dugu informe horrek zer dioen.

¹ J. Kortazarrek aztertu du E.M. Azkueren Bermeo eta Mundakako irakasaldia. Haren arabera, Mundakako Nautika Eskolak 1854 arte iraun zuten, eta ondoren, eskola partikularrak eman behar izan zituen (Kortazar, J. 2013).

² «Lekeitioko urian Jose Jabierr Uribarrendarr biotz andiko erri-maiteak itsas-gizonentzako ikastegia sortu ebanean, Uribarrenek berak begiz io ta eroan eban ikastegi barri atako irakasle izatera, 1861 garren urtean.» (R.M. Azkue: 1896:5). Uribarren bankaria zen Parisen eta aberatsa, Lekeitioko inguruko baserri askoren jabea. Baita ongiegilea, Nautika Eskola ez ezik, neskontzako eskola, etab. sortu baitzituen. Ik. Duo, G. 1995.

Nautika eskolak Pilotutza karrera eskaintzen zuen. 1859an sortua Erret-Aginduz, sortzaileak partikularrak ziren (esandako Uribarren eta Abaroa). Beste Nautika Eskolen parekoa zen baina graduak eta errebalidak emateko ahalmenik ez zuen, horiek Itsas Armadako departamenduetako kapitain jeneralen esku baitzeuden. Hala ere, karrera amaierako ziurtagiriak ematen zituen.

Eskolaren arduradunak lau pertsona ziren: zuzendaria, idazkaria, katedradun bat eta kontserjea. Zuzendaria Bruno L. De Calle zen, patroikidea hura ere. Idazkaria Angel M. Ventades zen, katedraduna Aritmetika eta Algebra, Geografia, Fisika, eta Metereologian. Beste katedraduna E. M. Azkue zen, Kosmografia, Pilotutza eta Maniobrak, Geometria eta Trigonometria, Marrazketa Lineala, Geografikoa eta Hidrografikoa irakasgaietan.³ Gero kontserjea zegoen, Garamendi izeneko bat, eskolak atekak ixtean eta irekitzean garbiketaz eta ikasleen gizalegezko jokaeraz arduratzen zena. Katedrari zegozkion eskolak egunerokoak ziren. Katedradunek urtean 12.000 erreal irabazten zuten, kontserjeak 3000.⁴

Ikasketak hiru ikasturtetan banatzen ziren. Ikasle matrikulatuak 33 izan ziren 1868an, 57 1870ean. Gehienak ingurukoak ziren.⁵ Matrikula ordaintzen zuten, 100 erreal. Eskolak urtero 3.300 erreal irabazten zuen matrikula-tasekin baina erdia Estatuari ordaindu behar zitzaion matrikula papere-tan. Ordea, ez zuen dirurik jasotzen Estatutik, ez Foru Diputaziotik ez Udaletik. Irakasle-langileak eta materiala diru-iturri pribatutik ordaintzen ziren.

Aipatu irakasgaietan ez ezik, ikasleek beste lau arlotan ere izaten zituzten kalifikazioak hilero-hilero: Jokaera (Conducta), Memoria, Adimena eta Ahalegina (Aplicación). Baita hutsegiteei buruzko oharrak Asistentzia,

³ Irakasgaien artean Musika ere agertzen da, 1869-1870 ikasturtean behintzat.

⁴ Lekeitioko Nautika Eskolaz eta Nautika eskoletako maisuen lan-baldintzez, ik. Duo, G. 1994, 2000.

⁵ 1862-1863 eta ondoko bi ikasturteetako ikasleak honako herri hauetakoak ziren: Bermeo, Elantxobe, Lekeitio, Mundaka, Abando, Ibarrangelua, Ea, Axangiz, Gautegiz, Natxitua, Kanala, Busturia, Aulesti, Oñati, Leintze-Gatzaga, Vitoria-Gasteiz, Corcubion eta Padron (A Coruña) (NEA, 9/2).

Ikasgaia (Lección) eta Gizalegea (Compostura) arloetan. Administrazio lana ez bide zen makala: agiri ugari daude E. M. Azkueren eskuz sinatuta.

Valladolideko errektoreari zuzendutako informean E. M. Azkuek diotso Pilotutza, Fisika eta Geografiako kabinete hautak eratu dituztela, diru asko kostata. Baita Biblioteka on bat egiteko urratsak hasiak dituztela.

Bere seme Alfontso Maria (Bermeo 1845–Lekeitio 1894) izan zuen ikasle. Ikasle bikaina, aitzak bultzatuta duda gabe: 17 urterekin (1862) sartu eta eta katedradun bihurtu zen, 1872-1873an 28-29 urterekin katedrari zegozkion eskolak aitarekin aldizkatzen hasita; gero, katedradun oso zela, 12.000 erreal irabazten zuen. 1874-1876 bitartean soldata ordaintzeko arazoak izan bide ziren Nautika Eskolan: 1876ko agiri batean aitortzen da 14.000 erreal zor zaiola Alfontso M. katedradunari, 8.000 J. M. Ibarra katedradunari eta 3.500 Agustin Garamendi kontserjeari (NEA 21/3). Ik. Alfontso Maria Azkue Ozerin-en jaiotze-agiria, Mundakako eskolakoa, abadearena eta Lekeitio Nautika Eskolako kalifikazioak (ERANSKINAK: 2).

Alfontso Maria ez ezik, beste seme bi ere matrikulatu ziren Lekeitioko Nautika Eskolan: Conrado Maria Jesus (1853-1870), 16 urterekin, 1869-1870 ikasturtean (NEA, 11/1) eta Resurrección Maria. Honek bi urte egin zituen hor ikasten.

1.2. E. M. Azkuek arduraz jokatu zuen bere familian tirabirarik izan ez zedin ondasun kontuan, familiakoak batuta egon zitezen eta elkarri lagun ziezaioten, bakoitza bere bizimodua ateratzen hasi arte. Esandakoa frogatzeko bi agiri aipatuko ditugu, biak hil aurreko urtekoak (1872).

Bata, bere ondasunen aitortpena, bi ezkontzetako seme-alabek ondasunen gorabeherak jakiteko eta liskarrik ez sortzeko helburuz eginga, ordura arte ez baitzuen ondasunen inbentariarik egin.⁶ Aitorpen horretan E.M. Azkuek adierazten du ez zuela ondasunik irabazi lehen ezkontzan (1843-1856), bai zorrak egin (etxearen mailegua, jateko eta jantzeko gastuak, Alfontsoaren piano ikasketak Mungian eta Conrado eta Solen inudea), eta zorrok biga-

⁶ Lekeitio, 1872-VI-15ean, 59 urteko zela eginga, P. Olaortua lizentziatuaren aurrean (Azkue Bibliotekako Artxiboa, RMAren funts dokumentalak, 130/24).

rrenez ezkondu ondoren (1857) kitatu zituela. E. M. Azkueren borondatea zen, bera bere emaztea baino lehen hiltzekotan, seme-alaba guztiek eskubide berdinak izatea ezkontza batekoak balira bezala, eta bere alarguna (M. Karmen Aberasturi) amatzat hartzea, eta honek ondasunak erabiltzeko ahalmena izatea (ERANSKINAK: 3).

Bere seme Alfontsoaren piano ikasketen harira, ohargarria da nola arduratu zen seme-alabek musika ikas zezaten. Azkuetarrak oso musikazaleak izan ziren. Aitak flauta jotzen zuen⁷ eta trebeki abesten, Alfontso Mariak ahots ederra zuen, neba-arreba nagusiek Juan Maria Blas Altuna durangarrarekin solfeo eta piano ikasketak egin zituzten (Arana 1983: 12), eta ez dugu aipatuko Resurrección M. Azkueren musikalaritza. E. M. Azkuek musika zuen bertsogintzarako dohai eta lanabes: «belarrihetan daukat / vertsoen neurrija / ebaten dodanian / andi nai chikijha» dio (Astigarraga-Bijuesca 140). Aitak latinetik himnoak euskaratzen zituen eta semeak musika jarri.⁸

Beste agiria, bere seme eta katedran oinordeko Alfontso Mariarekiko notario-kontratua da. Aita zahartua zela-eta, katedra eginkizunei aurre egin ezinik, semearekin akordio bat egiten du, aitaren katedrako eskolak erdi bana emateko eta semeak soldataren laurdena jasotzeko, ezkondu gabe eta aitarekin bizi bazen, eta ezkonduko balitz soldataren erdia, katedradun jarraitzen bazuen beti amaordeari eta neba-arrebei soldataren laurdena emateko obligazioarekin, amaordeari hil arte eta neba-arrebei hauek bizimodua ateratzeko gai izan arte (ik. ERANSKINAK: 4).

Beraz, Lekeitioko Nautika Eskolako katedrari esker ondo irabazten zuelako kitatu ahal izan zituen zorrak. Ez da dudarik azkenean bere sorterrian bizi ahal izan zela inoizko erosoan. Eta, bestalde, aita familiako gisa, ardura handiz jokatu zuen. Ezkontza bietako seme-alabak batuta egotea nahi zuen,

⁷ «Apolo ta Musak» poeman (ibid. 57-73), kontatzen du nola eta zergatik Euterpek asmatu zuen flauta, Mourlane Michelenak ohartarazten duenez (1918:627-28).

⁸ *Ave Maris Stella euskeraz da latinez. E. M. Azkuetarrak euskeraratua. Mundakan 1861. R. M. Azkuetar abadeak erezteko ipinia* (Bilbon 1895). Hona horren bertsio bat: *Begoñako Andra Marid-sari / Ave Maris Stella / euskeraz / Eusebio Maria Azkuetarrak ipiniñda / R.M. Azkuetar abadiak*. (Euskaltzaindia, Azkue Bibliotekako Artxiboa, Resurrección María Azkueren funts dokumentalak, 15/2, 15/3).

denek bere bigarren emaztea amatzat hartzea eta elkarri laguntzea, batez ere bere katedran oinordeko jarri zuen Alfontso seme nagusiak.

Baina Lekeitioko Nautika Eskolako irakaskuntza- eta administrazio lanak eta zamak bertso ontzeko astia jango zion ziur asko. Ezen badirudi Lekeitioko Nautika Eskolara etorri artekoak direla E. M. Azkueren olerki gehien-gehienak, Lekeitiora etorrita gero bere lan literarioa «baztertutxoago» utzi zuela, behintzat (Astigarraga-Bijuesca 1990:15). Ordea, Lekeition idatzi bide zuen Ama Birjinari bederatziurren bat, erdaraz, Uriartek euskaratuta argitaratu zena (1964) eta Azkue aita-semeen izenpean 1931n berrargitaratu zena, bermoldatuta.⁹

1.3. 2013ko Omenaldi hau baino lehen E. M. Azkuek beste bi izan ditu XX. mendean (1936, 1973). 1936koa izan zen entzutetsuena, Pizkunde giroan antolatua eta zinez handikiro ospatua: Azkue aita-semeei egin zitzairen gorazarre, Lekeition, bagilaren 27 eta 28an, VII. Euzko Olerti Egunarekin batera (ik. Egitaraua: ERANSKINAK: 5).

Gorazarrea Euskaltzaleak kultura erakundeak eratu zuen, Lekeitioko taldearen laguntzaz, Bizkaiko gobernadorearen baimen eta Lekeitioko Udalaren babesaz, gastuak partekatuta. Euskaltzaleak eta Lekeitioko Udalaren arteko harreman onak Errepublikarekin hasi ziren: Aitzolek Lekeitioko Udalarir diru-laguntza eskatu zion Euskaltzaleaken kultura-kanpainarako, euskal eskoletan materiala sortzeko (1931). Eta Udalak dirua eman: 1931, 1933 eta 1934an 50 pezeta; 1932an, 75 pezeta.

Azkuetarren Omenaldi egunerako propaganda orri politikak atera zituzten, «euzko gogoaren taupadak, euzko izatearen ezaugarri bizien eta agirienak»

⁹ Fr. J. A. Uriarteren *Lequeitiyoco Ama Virgīna Antiguacuaren Bederatzi urruna* liburuan E. M. Azkueren bertso batzuk daude: «Andra Mariya Lequeitioco Antiguacoari Pozgar[r]ijac». Liburu hori R. M. Azkuek bermoldatuta berrargitaratu zen: *Lekeitioko Andra Mariari / bederatziurrena / Eusebio Maria ta R. M. Azkue lekeitiar aita-semeak egina*. Bilbao, Editorial Vasca, 1931. Hitzaurrean R. M. Azkuek esaten du (3-9. or.) bazela beste bat, *Lequeitioco Ama Virgīna Antiguacuaren bederatziurruna* (1864), erderaz Eusebio Maria Azkuek egin eta Aita Uriartek euskeratua. R. M. Azkuek Uriarterena aldatu zuen, Lekeitioko abadeen eskabidez, «azaletaraegi egina dalako», «gure egun ónetan aīñ egoki eziturdian zer edo zertxo ikusten dala-ta» (Euskaltzaindia, Bibliotekako Artxiboa, Resurrección María Azkueren funts dokumentalak, 92/6).

eta holako adierazmoldez beteak. Alkateari gutunak egin zizkioten Aitzolek, Eusebio Erkiagak (Batzordearen izenean), Xanti Meabek¹⁰ etab. Jai Batzordeak, E. Erkiaga zuela idazkari, gonbidapenak egin zizkien Zita enperatrizari, ezker eta eskuineko politikari, ahaldun eta pertsona ospetsuei, batez ere kulturako jendeari, baita prentsari.¹¹ Gorazarrerako diru-laguntza eman zuten pertsona eta erakunde batzuek: Austriako Familia Imperialak 100 pezeta, Espainiako Akademiak 100, Iruñeko apezpiku Olaetxeak 50, Sotak 50, Fermin Irigaraik 25, Altubek 25, F. Belaustegigoitiak 25, Santanderko apezpikuak 25, Erramun Ertze abade lekeitiarrak 15, J. Larreak 10, gainerakoek gutxiago.

Bagilaren 27ko ospakizunak umeen idazketa eta irakurketa sariketarekin hasi ziren. Irakurketa sariketan parte hartu zuten: 17k 17 urtetik beherakoetan eta 14k gorakoetan. 10, 5 eta 3 pezetako sariak jarri ziren. Mutikoak baino azkarragoak agertu ziren neskatoak, E. Erkiagaren arabera.¹²

Hitzaldiak eman zituzten: bat Lauaxetak «Eusebio Maria olerkari» izenburuduna, eta gainerakoak Altzo, Labaien eta Aitzolek R. M. Azkueren irakasletzaz, antzerkilaritzaz eta musikalaritzaz, eta literatura lanaz, hurrenez hurren.

Abestaldeak «Vizcay'tik Bizkai'ra»ren arrantzaleen abestia kantatu zuen, eta ondoren Eusebio Mariaren «Antxinarik ona!» eta «Gaba» deklamatu zituzten bi neskatok eta «Sur bateri» Malax delakoak.

¹⁰ Buruzagi sozialistak R. M. Azkue goستن du bere gutunean: «mi admirado primer maestro de euzkera en el antiguo Instituto Vizcaino (ya son años) D. Resurrección, de perseverancia viril, (...)» (Lekeitioko Udal Artxiboa, 1005-4).

¹¹ Zerrendan agertzen dira: Sotatarrak, Kanpion, E. Bilbao, J. Urkixo, B. Bizkarra, R. Picavea, Ondarroa eta Motrikuko zirkulu tradizionalistak, Fr. Belaustegi, F. Belaustegigoitia, P. Larrañaga, A. Isusi, M. Lekuona, J. M. Barandiaran, Larrea'tar Jon, *Euzkadi* egunkariaren zuzendaria, *Jaungoiko Zale*, *Ekin*, *Argia*, *Karmengo Argia*, etab.

¹² «Umien azterketak izan genduzan lenen. Euzkeraz zeñek obeto idatzi, eta irakurri. Eun bat mutiko-neskatok jaso eben gure deya. Ikusgarria egoan Udaletxea; ango zarata ta zaparradea! Nok ixildu eta nok ezi ango lagun-taldea? / Neskatoak izan ziran txapeldun, mutikuak baño azkarrago bai zati bat. Sariak, ostera, guztientzako lain izan ziran. / Kepa deunaren egunez banandu yakezan sariok. / Sariketok urtero egiteko asmoa artu dau Lekeitio'ko «Euskaltzaleak». Ori ondo!» (Endaitz, «Lekeitio'ko Oleriti-Eguna. Gomuta samurrak», *Euzkadi*, 1936-VII-05, lehen or.).

28an, meza ostean, Olerki-sariketa, Euzko-Poema sariketa eta herri olerki sorten sariketa udaletxean: olerki sailean, zilarrezko haritz abarraren irabazlea I. Otamendi izan zen, ohorezko aipamenduna G. Sukia (gero kardinala izango zena) eta gainerako aipamendunak Iraizoz, S. Onaindia eta E. Erkiaga. Euzko-poema sailean, Manuel Lekuona, 500 pezetako sariaren irabazlea. Herri olerki sorten sailean sarituak izan ziren L. Salaberria, G. Rementeria, J. Arriaga eta I. Ziarsolo, 100, 75, 50 eta 25 laurlekorekin hurrenez hurren.¹³ Ondoren, M. Arantzazu Barrenak deklamatu zuen saritutako olerkia.

Gero, bertsolariek kantatu zuten plazan: *Basarri*, *Uztapide*, *Zepai*, Uriarte eta *Txapelek*, J. Zubimendi artezkari zutela.

Bazkarian, bakoitzak 10 pezeta ordainduta, 106 bazkaldar bildu ziren, parte hartzaileen artean euskal kulturaren munduko pertsona ospetsuenak.

Bazkari ostean E. M. Azkue jaio zen etxe-aurrean gomutarria agerrarazi zuten, T. Montzonek hitzaldi samurra eginik.

Bandak euskal kantak baino ez zituen jo (Euskaltzaleak-en jaia zelako), eta jendeak gogo txarrez hartu eta txistuak jo.

Gaueko bederatzieta antzerkia, Gora Buru antzokia bete-bete eginda: Oiertzungo Mendiburu taldeak Lekuona anaien «Eun dukat» antzeztu zuen. Erkiagaren arabera, «Karmeleren etorkizuna» ere antzeztu zuten (*Euzkadi*, 1936-VII-05). Bertsolariek eman zioten amaiera VII. Eusko-Oler-ti-Egunari.

Azkuetarren lanen erakusketa egon zen udaletxean, lau egunez; hiruzpau mahai hizkuntza, literatura eta musika saileko liburu eta idazkiz beterik. R. M. Azkue euskaltzainburuaren lanen zerrenda bat ageri da paperetan (ERANSKINAK: 6).

Komunikabideek omenaldiaren berri eman zuten oparo, xehetasun ugariekin: Union Radio Donostia, *Euzkadi* (1936-VI-25, 26, 27, 28; VII-1,

¹³ Sariketaren oinarriak ik. *Yakintza* 1936:240). Ohargarria da baldintza bat: «Aditzeko errez ez dan olerkirik ez da saritua izango».

VII-5), *El Día* (1936-VI-28; VI-29). *Euzkadi* egunkariko editorial artikulua sinatu gabe baten egileak (Lauaxeta?) Azkue aita-semeak aberriaren izar-tzat hartzen ditu.¹⁴

Omenaldi egunetatik laster gerra ekarri zuten faxistek, Pizkunde giroko amets gozoa amets gaizto bihurtuz. Lekeition Azkue aita-semeen omenaldiaren antolatzaile edo lehen lerroko parte hartzaile batzuk fusilatua, erailak izan ziren: Aitzol, Martin Lekuona, Lauaxeta...

1936ko Omenaldirako Carlos Solano pintoreak Eusebio Mariaren koadro bat marraztu zuen, eta udaletxean jarri zuten, izan ere aitaren koadroaren eta seme euskaltzainburuaren presentzia ospatu ziren jaiak. Koadroa Resurrección Mariaren jabetzakoa zen baina Udalak eskatu zion udaletxean gelditu zedila (1936/07/15).¹⁵ Egun koadro horren arrastorik ez dugu, ez dakigu non egon litekeen ez zer gertatu den, Lekeitioko udaletxean ez baitago.

2. Nor da «Carlistenac» bertsoen egilea?

E. M. Azkuek ez zuen poema-libururik argitaratu. Haren poemak zein diren eta ez diren jakiteko, transmisioa eta egiletza arazoaren sorburua azalduko dugu, lehenik, eta arazo horien erakusburu bat jarriko: «Carlistenac» bertsoak (2.1), ondoren bertso horien egilea E. M. Azkue den edo ez eztabaidatu eta aztertuko dugu (2.2), azterketaren ondorioz bertso horien egilea gure ustez nor datekeen adieraziko dugu, baita egile horren ustezko beste kanta batzuk aipatuko (2.3), eta, azkenik, egile edo kantuen arteko elkar-eraginaren eta testuartekotasunaren adibide batzuk erakutsiko ditugu (2.4).

¹⁴ Egilearen arabera, E.M. Azkueren omena Uriarte eta Manterolari zor zaie, bere garaian ez omen baitzen lekeitiar poeta aintzat hartua izan. Bidezkotzat jotzen du E. M. Azkueren entzutea berriztatzea eta gaztediari eredutzat jartzea. «Olerkari arauz, ona zan. Punterengua? Eztiñogu olakorik, baña guztiz ona. Asko beragandik ikasi daikegu. Neurritz idazten eban eta gogayak, be, sakonak eukozan» («Azkuetarrak», *Euzkadi*, 1936-VI-28).

¹⁵ Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako artxiboa. Resurrección Maria Azkueren funts dokumentalak, 103/153).

2.1. Arazoen sorburua eta adibide bat: «Carlistenac»

Eusebio M. Azkuek bere eskuizkribuak etengabe orrazten, aldatzen eta euskalzaleen artean zabaltzen jardun zuen. Eskuizkribuok eskualdi ezberdinetakoak dira eta haietako bakar batean ez dira batzen haren olerki guztiak; eskuizkribu-bilduma bat baino ez zuen argitaratu semeak (*Parnasorako Bidea*, 1896).¹⁶ Eusebio M. Azkueren olerkien eskuizkribuak eta orain arte ezagutzen ditugun iturriak eta aldaerak bildu dituzte A. Astigarraga eta J. Bijuescak beren argitalpen lan zehatz txalogarrian (*Eusebio Maria Azkuekoa. Euskarazko vertsoak*, 1990). Baina, nola eskuizkribuok sakabanatu ziren, eta batzuk beharbada galdu ere, gutxienez galdetu behar da zein diren Eusebio M. Azkueren olerkiak, batez ere *Parnasorako Bidea* bildumatik kanpo geldituak.

Guk ez dugu uste Astigarraga–Bijuescak Eusebio M. Azkuerenak direlaketozat jotzen dituzten guztiak harenak direnik. Egia esan, nolabaiteko duda azaldu zuten argitaratzaileok *Parnasorako Bidean* edo J. A. Uriarteren *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino* bilduman baino agertzen ez direnei buruz: «ez dakigu Uriartek edo Manterola–R. M. Azkuek erabili eben bildumen atalen bat diran edo beste bideren batetik heldu ziran honeen eskuetara.» (Astigarraga–Bijuesca: 1990: 34). Aitortzen dute, baita ere, «hutsune handiegiak dagoz oraindino Eusebio M. Azkueren lanaren ezagutzan» (ibid., 35).

Adibide bat jarriko dugu: «Carlistenac» bertsoak. Bertso horiek J. A. Uriarte frantziskotarrak (Arrigorriaga 1812–Zarautz 1869) baino ez ditu biltzen, ez baitira ageri E. M. Azkueren eskuizkribuetan ez argitalpenetan. Ez dakigu bertso-paperetan agertu ziren edo nondik jaso zituen Uriartek. Uriartek nonbaitetik kopiatuta jarri zituen bere bilduman (eskuizkribuan 143-146. orrialdeetan, Kortazar–Billelabeitiaren edizioan 93-96. or.). Uriarteren bilduman ustezko egilearen izena ageri da parentesi artean: (Azcue); ez bertsoen hasierako orrialdean baina bai 3.ean, 145. or., goikoertzean. Ustezko egilearen izena bere eskuz jarri zuen Uriartek (itxura ba-

¹⁶ L. Akesolok aztertu ditu Zarauzko eskuizkribuak, *Parnasorako Bidea* eta Uriarteren bildumaren (PBDV) arteko ezberdintasunak eta ondorioztatu, zenbaiten iritziaren kontra, semeak egindako aldaketak garrantzi gutxikoak direla (Akesolo 1879, 1988).

tean, behintzat, nahiz ezin dugun ziurtatu).¹⁷ Egiletzakoa Uriartek E. M. Azkueri ezarri ziola ikusi eta fidatuta edo, Astigarraga–Bijuescak ere Eusebio M. Azkueren olerkien artean jartzen dituzte bertsook (279-284 or.). Eusebio M. Azkuerenak ote dira, benetan? Horixe eztabaidatuko dugu ondoko azpiataletan.

Hona bertsook:

Carlistenac

I. Zabaldun belarrijac / Euscaldun maitiac, / Entzuteco gozaro / Zuben albistiac: / Ez da beste soñuric / Mundu zabaletan, / Zuben icena baño / Aspaldi onetan.

II. Eguia esateco / Ez da erraz sinisten, / Beguiz icusi arren / Jacuna jazoten: / lau urte luceetan / Beti guerra baten; / Mundubac arrituric / Zaitube icusten.

III. Zubec asi cenduben / Guerra odoltsuba, / Bacarric lagun zala / Jaungoico altsuba: / Lurreco indar бага / Guizonen ustian, / Gueijago arguituteco / Ceuben entzutian.

IV. Barria ta burlia / Arerijuetan / Ez zan beste gauzaric / Lelengo egunetan; / Eun bategaz leguez / Yzanic gudia, / Uste eben bertatic / Zubec goitutia.

V. Milla osuetan / Talda ugarijac / Alde guztijetatic / Ona etorrijac: / Arma, diru ta soñez / Osaro jantzijac, / Ynglaterratic dauquez / Cañoen barrijac.

VI. Guichi balira leguez / Millazco eunac; / Cristiñuac ditubez / Billatzen lagunac, / Gente arrotzai deutse / Bertara deituten / Gozatuten dirala / Bazterrac ondatzen.

VII. Frances, Yngles, Polaco, / Portugues galdubac / Cristiñu malmutsacaz / Emonic escubac; / Alde guztijetatic / Talda ugarijac / Betetan ditubez gaur / Euscaldun errijac.

¹⁷ Arantzakoko frantziskotarren artxiboan dagoen eskuizkribu originalean hatz batek puskatuta dago ustezko egilearen izena, artxibozainak esan didanez, baina nire 1983ko fotokopian garbi ageri da Azkueren izena: (Azcue).

VIII. Mendi basuetara, / Diñue euscaldunac: / Elduco dira nosbait / Ybarren egunac: / Bacochar al dabena / Lepuan arturic, / Guazan ardura бага / Ez euqui bildurric.

IX. Ez ciran Euscaldunac / Beinbere mempetu; / Erroma bera ez zan / Euracaz jaubetu: / Gure Asaba onacaz / Ez gara iños aztu; / Talda arro orrecaz / Gura dogu neurtu.

X. Suba eta odola / Bazter guztijetan, / Alperric da zabaltzen Euscal-errijetan: / Egunic egunera / Yndarrac barriac / Eracusten ditube / Euscaldun arguijac.

XI. Batzube amaitu, ta / Bestiac etorri... / Bazan arerijua / Numbaita ugari...! / Ychaso ta liorrez, / ¡Noc leique cembatu, / Cembat buru gaistoco, / Emen jacun sartu?

XII. Euren soñ ta armacaz / Dira orniduten. / Menditarrac ez ditu / Ascuac bildurtzen. / Celai ibarretan / Asi dira jasten: / Nunnai arerijuac / Azartu billatzen.

XIII. Emen gara mutilloc, / Dirautse euscaldunac, / Ygaro ciran nosbait / Lelengo egunac. / Urten errijetatic / Guria da lurra; / Bes-telan ganian da / Suba ta egurra.

XIV. Orma artetan dira / Cristiñuac sartzen; / Baña queia emonic / Ditube ateraten. / ¡Cembat triscantza gogor / Yngles azurretan, / Baitabere ez guichi / Euren lagunetan!

XV. Euscal errijac dira / Arrotzen izuba; / Agaitic arrituric / Gueijago munduba, / Banaca guelditubac / Dacusez iguesi; / Len arro, apaindubac / Arlote, ta ichusi.

XVI. Francesac batera, ta / Ynglesac bestera, / Duaz euren lecutan / Barri emotera: / Polaco, Portuguesac, / Lagunac ichiric, / Ta ona etorrijaz / Ondo damuturic.

XVII. Amaitu ciran bada / Burla ta barriac, / Bildurrac artu ditu / Zanzuen ordiac; / Billatu Cristiñuac / Goruntzco bidiac / Ez zaituz lotsatuco / Ygues eguitiac.

XVIII. Baña atzian dira / Euscaldun senduac, / Guztiz amaituteco / Arturic goguac, / bein asitaco salla / Nai dabe aurrera; / Garaitza osuagaz / Orduban echera.

XIX. *¿Celan ez da zurtuco / Gaur mundu guztija, / / Ta eracutsi arguiro / Bere mirarija? / Ezpadau iñoz izan / Guerra onec besteric, / Lurraren azalian / bardindutecoric?*

XX. *Cerubari esquerrac, / Euscaldun maitiac; / berac sendatu ditu / Zuben eguitiac. / Beragan daucazubez / Garaitza guztijac; / Daben leguez esango / Guda onen amaijac.*

XXI. *Goratuco zaitubez / jatorri guztijac; / Ta benetan dontsutu / Uri ta errijac. / belaunic belaunera / Zuben entzutiac, / Pocez beteco dtu / Zarrac ta gaztiac.*

XXII. *Baitabere esquerrac / Erregue Jaunari, / Carlos bostgarren-go, ta / Zuben burubari: / Bera izan dozube / Guztijan [Guztijen? Guztijon?] laguna, / Zubecaz igaroric / Gaba ta eguna.*

XXIII. *¿Noc dau iñoz icusi / Alan erregueric, / Gose egarrijetan, / Sarritan ez loric? / Bala artetan bere / Batbere bildurric / Ycusten ez jacola... / ¿Nun da irudiric?*

XIV. *Ymiñi bada laster / Bere jarlecuban, / Escribiduric dago / Alanche ceruban: / Alperic amorratu / Guztiz infernuba, / Etsi daique benetan / Aucija galduba.*

Bertso horiek 1837 bukaera aldekoak dira, bertso-jartzailea atzeritar soldaduez mintzo delako («Frances, Yngles, Polaco, / Portugues galdubac», VII). Zazpigarren ahapaldi horretan 1834/04/22ko ituna, Itun edo Aliantza Laukoitza aipatzen da zehar bidez; 12.000 soldadu bidali zituzten gerrara ingelesek, Lacy Evans jenerala buru.

Gerratean zabaldu ote ziren bertso paperen bidez? Izenburua, behintzat, geroago norbaitek ipinia dirudi, beharbada Uriartek berak; bertsoetan ez da ageri *karlista* hitza, eta, bestalde, orduan *errealistak* deitzen ziren eta geroxeago *karlistak*.

2.2. Zergatik egilea ez datekeen E. M. Azkue

«Carlistenac» bertsoak E. M. Azkuerenak direla uste izateko arrazoi batzuk badira. Alde batetik, Uriarteren bilduman Azkueren izena agertzen da paren-

tesi artean, azaldu dugunez. Bestetik, Uriartek E. M. Azkueren poema multzo handi bat bere bildumaratu zuen (PBDV), Markinako idazleen idazkeran jarrita eta beste aldaketa batzuekin; E.M. Azkueren 74 poema horiek Uriarteren bildumaren erditsua osatzen dute eta elkarren jarraian ageri dira, baina «Carlistenac» izenekoetatik bereiz. Gainera, Uriartek aspalditik ezagutzen zuen Eusebio M. Azkue: elkarren ikaslagun (Bilboko S. Fraiskuko komentuan) eta adiskide ziren, hari eta Ozollo misionistei eskaini poemaren sarreran adierazten duenez (eskuizk. 491; Kortazar–Billelabeitiaren ediz., 245). Bermeon bizi izan ziren biak eta Uriartek adierazten dio Bonaparteri berak bultzatuta ondu dituela Azkuek bertso asko eta bizkaierazko poeta onena dela (Ruiz de Larrinaga 1957:333). Bestalde, bertsoen egilea karlista amorratua agertzen da eta badakigu E. M. Azkue ere ideologiaz eta hizkeraz tradizionalista porrokatua zela.

Baina hala eta guztiz ere, esandakoei hiruzpalau eragozpen jarri behar zaizkie.

Lehenengoa: Uriarteren bilduman «Carlistenac» ez da ageri E. M. Azkueren poemekin batera sailkatua, haietatik bereiz baizik. Uriartek lau multzo bereizi zituen bere bilduman (ipuinak, bertsoak, gabon kantak eta E. M. Azkueren poemak, azken hauetan egilearen izena noizbehinka ageri dela) eta «Carlistenac» bigarren multzoan kokatu zuen, bertsoen multzoan.¹⁸ Uriarteren bilduman egile batzuen obrak ez daude batera, bereiz baizik eta izenik gabe (adib. Iturriagaren alegiak).

Bigarren eragozpena: Uriarteren bilduman egilearen izena askotan agertzen da (maizenik parentesi artean), baina ez beti. Adib., alegien multzo mardulean ez da J. A. Mogel, Iturriaga edo Uriarteren ordea bereko kide zen J. M. Zabalaren izenik agertzen, alegi gehienen egileak haiek izanik; ez bide zekien norenak ziren. Egile batzuen bertso-sorta guztiak ere ez ditu biltzen Uriartek, nahiz asmo hori zukeen.

Hirugarren eragozpena: Uriarte eta E. M. Azkueren arteko harremanei buruz ez dakigu gauza handirik (Astigarraga–Bijuesca 16). Uriarte komentu batetik bestera ibili zen. 1856. urtean hasi bide zuen bere bilduma eta bizitza

¹⁸ Uriarteren eskuizkribuan «Carlistenac» 143-146. or. kokatuak dira, Azkueren poemak 273-598. or.; Kortazar–Billelabeitiaren edizioan haiek 93-95. or., hauek 155-290. or.

osoan osatzen joan zen (Kortazar–Billelabeitia 1987: 9), baina ez zuen argitaratzeko prest utzi.¹⁹ Gainera, 1856az geroztik Bibliaren itzulpen lanek hartuago zegoen Uriarte poesia bilduma argitaratzeko ardurak baino. Eta, nola nahi ere, bilduma beretzako egin zuen Uriartek, eta beraz, testuen jatortasun eta fidagarritasunari dagokionez, Uriarteren transkripzioa ez da E. M. Azkueren Zarauzko edo Bizkaiko Aldundiko eskuizkribuen maila berekoa, Zarauzko eta Bizkaiko Aldundiko horiek E. M. Azkuek bere eskuz idatziak baitira.

Beste eragozpen bat: «Carlistenac» bertsoak Azkuek 1837an ondu bazi-tuen, nola gelditu ziren bakartuta, egileak bere eskuizkribuetan jaso gabe (salbu Uriarteren bilduman)? E. M. Azkueren olerki gehienak 1850-60 inguru-tukoak dira, ustez, eta alde horretatik ere dudan jartzekoa da haren egiletza.

Gure ustez, «Carlistenac» nekez izan daitezke E. M. Azkuerenak, alde batetik, enuntziazio moduari begiratuta eta, bestetik, ustezko egileen tes-tuak bertso horietakoekin konparatuta.

Bertso horiek atera edo zabaldu zirenean (1837) E. M. Azkue gerran ze-bilkeen,²⁰ baina enuntziatio moduari ohartuta, gerratik kanpoko batek idaz-ten ditu bertsoak, euskaldun soldaduei zuzentzen baita *zuek* erabiliz:

Zubec asi cenduben / Guerra odoltsuba («Carlistenac», III).

Carlos bostgarrengo, ta / zuben burubari: (ibid., XX).

Izan ere, *zuek* hori ez zatekeen egokiena soldadu edo ofizial batek eginiko bertsoak izan balira.

Baina, batez ere, testuen arteko konparazioaz baliatzen gara bertso horiek E. M. Azkuerenak ez diratekeela argumentatzeko. Horretarako bertsook Bilboko gabon kantekin (GK 1818-1832), egile beraren 1828ko «Vizcai

¹⁹ Esaterako, poema batzuk birritan kopiatuak daude. Seguru asko ez zuen argitaratzeko asmorik ere, Akesolok dioenez (1988:12). R. de Larrinagak dio PBDVren aurkibidea Uriartek berak egina dela baina arreata gabe (Ruiz de Larrinaga: 1954: 292).

²⁰ *Pamasorako bidean*-en sarreran R.M. Azkuek dio E. M. Bilboko S. Fraiskuko komentuan latina eta filosofia ikasten ari zela «Karlos V-n aldeko gerlari edo gudariakana ioan bearr izan eban» (R.M. Azkue: 1896: 5). Baita Bergarako hitzarmena ez zuela aintzat hartu. Uriartek dio gerran ofiziala izan zela (Ruiz de Larrinaga: 1957: 333). S. Fraisku komentua karlisten gunea izan zen.

guztiz linargui» bertsoekin (Altzibar 2008) eta E. M. Azkueren poemekin konparatu ditugu, zehatzago E. M. Azkueren honako iturri edo eskuizkribu eta argitalpen hauekin: Z (Zarauzko eskuizkribuak), CV (*Cancionero Vasco*), EE (*Euskal-Erria*), PB (*Parnasorako bidea*, 1896), PBDV (Uriarte, *Poesia Bascongada, Dialecto Vizcaino*), B (Bizkaiko Diputazioaren Artxiboa: «Apolo ta musak» eta «Dies irae») eta A-B (Astigarraga-Bijuescaren edizioa). Esan dugunez, edizio honek aurreko guztien aldaerak biltzen ditu eta horregatik berori baliatu dugu gehienik; adibide gehienetan eskuizkribu edo argitalpenen ondoren A-B edizioko orrialdea jarri dugu, eta parentesi artean testu beraren beste iturri bateko aldaerak aipatzen ditugunean.

Konpara ditzagun testuok hizkuntza aldetik (hiztegia, adizkiak, posposizio-atzizkiak, eufonia eta grafiak), baita estilo, topiko literario eta metrika aldetik.

Hiztegia

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Gueuc dongsutu</i> guinaiz / betico errijac (1828, (II), IX) [dongsutu 'zoriontsu egin']. <i>Josepe ta Marija / Artu vitarteco</i>, / dongsutu gura bozu, / <i>secula betico</i> (1825, III) ['zoriontsu izan'; 'santutu']. <i>Gau dongsuta</i> (1820 Pozgarriya) [dongsu 'zoriontsu'].²¹	<i>Goratuco zaitubez / jatorri guztijac</i>; / <i>Ta benetan dongsutu / urita errijac</i> (XXI)	(Ama Birjinaz) <i>Ez iakan eldu orbanik / lora dongsuari</i> (PB 38) [dongsu 'santu']

Ikus dezakegunez, E. M. Azkuek ez du erabiltzen *dongsutu* aditza, are gutxiago *errijac dongsutu* hitz konbinazioa, ziur asko gaztelaniazko «hacer

²¹ Adibide ugari gabon kantetan: *Mesias dongsuta* (1829, VI); *seme ain dongsuta* (1830, V); *hurrian dongsutac* (1832 (I), VI).

felices a los pueblos» klixearen kalkoa (ilustrazioaren arabera, hori zen politikaren helburua). Ez da erraz sinestekoa E. M. Azkuek, bera ikasten egon zen tokian zabaldu ziren gabon-kanta horietako klixek bakan hori ikasi eta erabiliko zuela gerran zebilela. Ohargarri da, bestalde, *dontsutu* 'zoriontsu egin' aditzaren adiera ez dela OEHN bildua.

Hitz, kolokazio, esamolde eta forma berberak ageri dira «Carlistenac» beretoetan eta gabon kantetan, baina ez dugu aztertu E. M. Azkueren poemetan haietako zein agertzen den eta zein ez. Gabon kantetako adibideak, hitz batzuenak, ugariak dira (*arrotz*, *asaba*, *ikusi*-ren adizki trinkoak, *Vizcai*, *vizcaytar*, *goitu*, *guda*, *malmutz*, *mempetu*, *osoro*, *zurtu*) eta ez ditugu hemen denak jarriko.

GK (1818-1832)	«Carlistenac»
<i>Ezagutuco</i> (...) <i>arguiró</i> (1824, XVI)	<i>eracutsi arguiro</i> (XIX)
Ez da <i>arrotzic sartu</i> (1818 [II], XII); <i>jente arrotza</i> (1819, V)	<i>Arrotzen izuba</i> (XIV), <i>gente arrotzai</i> (VI)
<i>Gure ásaba onac</i> (1830, V)	<i>Gure Asaba onacaz</i> (IX)
<i>azartu</i> (« <i>Vizcai guztiz linargui</i> » 1828, VI)	<i>azartu</i> (XII)
<i>dacusez</i> (1818, III)	<i>dacusez</i> (XV)
<i>Dirautse</i> (1818, VI); <i>dirautsé</i> (1831 [II], I)	<i>Dirautse</i> (XIII)
<i>Egunic egunera</i> (1825, XIII)	<i>Egunic egunera</i> (X)
<i>Icusico dau buruban egurra</i> (1824, V); <i>ibillico da / echian egurra</i> (1830 [II] [[irudizko adiera]	<i>Bestelan ganian da / Suba ta egurra</i> (XIII)
<i>euscaldun garbijac</i> (1824, VIII)	<i>euscaldun arguijac</i> (X); <i>euscaldun sendo</i> (XVIII)
<i>Vizcaia</i> , <i>Vizcaitar</i> (urtero, salbu 1820); <i>España</i> (1820, VIII, XII; 1830, XI), <i>españarrac</i> (1820, VIII)	<i>Euscaldun errijac</i> (VII), <i>Euscal errijac</i> (XIV), <i>Euscal errijetan</i> (X);
<i>goitu</i> (-) (1819, VI; 1824, III, VI)	<i>goitutia</i> (IV)
<i>bizico gara</i> (...) <i>gozaro</i> (1824, XIX)	<i>entzuteco gozaro</i> (I)
<i>Guda</i> (1824, VI); <i>arrotz gudatsuba</i> (1825, IX); <i>gudatu</i> (1818 [II] IV; <i>guda guizonac</i> (1828, IV); <i>Gudari</i> (1828, IV)	<i>guda</i> (IV)

GK (1818-1832)	«Carlistenac»
guerraric (1818 (II); <i>guda edo gerratic</i> (1832, VII); <i>guerra amaitzaillia</i> (1820, XIV))	Guerra (II, III)
malmutz ta gaistuac («Vizcai guztiz linargui» 1828, IV); <i>Otzo malmutzac</i> (1824, XIV); <i>malmutz ta arruac</i> (1829, VII); <i>guizon eskerbaga malmutzen</i> (1830, VIII)	cristiñu malmutsacaz (VII)
<i>Gura leuque</i> / (...) mempetu (1818 (II), VI); <i>nai cituban mempetu</i> (1819, III); <i>etsaien mempian</i> (1820, XIII); <i>euren mendian</i> (1824, XVIII); <i>mempecuac</i> (1825, XVII)	<i>Ez ciran Euscaldunac</i> / <i>Beinbere mempetu</i> (IX)
<i>zainduco</i> (...) / osoro forubac (1819, XXVIII); <i>Jangoicuarren leguia</i> / <i>osoro gorderic</i> (1820, X); <i>gorde osoro</i> / <i>Vizcaico forubac</i> (1824, I); <i>gorde</i> (...) / <i>osoro forubac</i> (1825, IX); <i>gorde osoro</i> / ... <i>aguindubac</i> (1829, XI); <i>osoro beteetaco</i> (1832, VIII)	osaro jantzijac (V)
zurtu ta arrituric («Vizcai guztiz linargui» 1828, VI); <i>daucac zurturic</i> (1820, XVII)	<i>Celan ez da zurtuco</i> (XIX)

Bat datoz gabon kantak eta «Carlistenac» arruntagoak diren honako hitz hauetan ere:

Gerra amaitzaillia (1820, XIV), guztiz amaitu (Car XVIII); *ez deusé ardura* (1830 [II], XVI), *ardura бага* (Car VIII); *arerijo, areriju(-), are-riyu(-)* (1818 [II], VI; 1820, VII; 1825, XII; «Vizcai guztiz linargui» 1828, X), *areriju(-)* (Car IV, XII); *Baita bere* (1819, Pozg.; 1831 [II], X), *Baita bere* (car XIII, XIV); *Bertatic* (1828, Pozg.; «Vizcai guztiz linargui» 1828, VII), *bertatic* (Car IV); *beteetaco* (1832, VIII), *betetan* (Car VII); *bildur* (1818 [II], VII *ez dago bildurrik*; 1828, V *eguan bildurra*; 1820, VIII *ez dabe* (...) *bildurric*; 1831, IX *ez dauca bildurric*); *ez euqui bildurric* (Car VIII); *billatu* (1828 (II), VIII; 1831 (II), XX *billatutera*), *billatu*, *billatzen* (car VI, XII); *ganian* (1830 Gaboneco cantac / Jesusen ...*ganian*; id. 1830, VII *gañian*), *ganian* (Car XIII); *glorija gocetaco* (1820, XXII), *gozatuten dirala* (Car VI); *gura* (1818 (II), V, VI; 1820, XIV; 1824, V [gutxitan *nai*, 1824, XV eta beste behin edo behin]), *gura dogu* (car IX); *igaro(-)* 1819, XI, XX; 1824, XX; 1829 (II), XIV; «Vizcai guztiz linargui» 1828, III), *Ygaro ciran*, *igaroric* / *Gaba ta eguna* (Car XIII, XXII); *imini*, *iminteco* (1829 (II), XXI; 1831

(II), XX [inoiz ez ipini]), Ymiñi (...) jarlecuban (Car XXIV); *infermu*(-) (1820, VII), *inpemu* (1831, IV), *infernuba* (Car XXIV); *iñoz* (1819, VIII), *iñoz* (Car XIX); *izugarri* (1818 (II) Sarr. Bizcaitar sendo / *izugarriyac*; 1819, VII *Erroma izugarri* / *fede bagakuak*; «Vizcai guztiz linargui» 1828, X *izugarrija*, *Euscal erriyac dira* / *arrotzen izuba* (Car XV); *jaube* (1819 XVII), *euracaz jaubetu* (Car IX); *mirari*(-) (1818, V; 1831, I), *eracutsi arguiro* (...) *mirarija* (Car XIX); *bijotzak sendotu* (1819, XIX), [cerubac] *sendatu ditu* / *Zuben eguitiac* (Car XX); *basuac trisque-tan* (1831 (II), XIII), *triscantza gogor* (Car XIV); *zubec, ceuben* (1825, V; 1831 (II), XIX), *zubec, zuben* (Car I, III, IV).

Hitzen aldaerak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Azquenengo</i> (1819, XIV)		<i>Azkan</i> (Z, CV, PB); <i>azquen</i> (PBDV, batzuetan) ²²
<i>Igues</i> (1818, IX)	<i>Ygues eguitiac</i> (XVII)	<i>igas even, igas doaz</i> (Z, EE, CV); <i>igues</i> (PBDV), <i>iges</i> (PB, ez beti)
[adjekt.] <i>duaz iguesi</i> (1818, II-III)	[adjekt.] <i>Dacusez iguesi</i> (XV)	<i>igas/igasi</i> ²³

²² Adibideak: E.M.A. «Munduaren escu bijhac» 42. bertso lerroa *azkanak*, A-B 138. Uriartek batzuetan *azkan* aldatu egiten du eta *azquen* jartzen: PBDV, A-B 326 *azquenera artian* (PB *azkanera arrtean*); PBDV eskuizk. 499 *azcana* / ibid. *Azquen*, A-B 442; PBDV eskuizk. 563 *azquena*, A-B 496; «Micheletia eta viciputza» PBDV, A-B 501 *Azquenera*.

²³ Adibideak: E.M.A. «Euzcadia» Z 535 *igas even*, A-B 114 (PBDV *igues eben*); Z «Euzcadia» Z 725 *igaz doaz*, A-B 120 (PBDV *igues duaz*); «Munduaren escu bijhac» Z 40 *igas doianian*, A-B 138 (PBDV 483 *Ygues doianian*); Z *igas ez deijhen*, A-B 169 (PBDV *Ygues*; PB 122 *iges*); Z *igas even*, A-B 191 (PB 133 *iges eben*); Z *Igas eutsan*, A-B 194 (PBDV 345 *Ygues eutsen*; PB 136 *Iges eutsan*); Z *igasten deutso*, A-B 211 (PBDV *Yquesten deutsa*; PB *Igesten deusku*); CV *igas* (...) *ebiltsezala, igas eben*, A-B 245 (PB *igesi ebiltzala*); EE *igas ioan*, A-B 272 (310 *igas ioan*). *Igues* PBDVn batez ere; *iges*, PBn (badira *igas, igasi* adibideak ere PBn): PBDV *iguesten* 288 (PB 81 *igesten*); PBDV *igues juan cirian* 292 (PB 85 *iges eben*); PBDV *igues eguin guraric* 324 (PB *igasi guraric*).

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>daucaguna leguez</i> (1818, I)	<i>Daben leguez esango</i> (XX)	<i>dalez, egozalez</i> (Z, PB); <i>Dan leguez, egozan lez</i> (PBDV) ²⁴
<i>Alperric gura eban</i> (1819, IV); <i>alperric dira / nire aleguiñac</i> , <i>Alperric legue onac dira zabalduten</i> (1825, IV, VIII); <i>Alperra izango da / ondo aguintzia</i> (1825, XVIII)	<i>Suba ta odola (...)</i> / <i>alperric da zabaltzen</i> (X); <i>Alperric amorratu</i> (XXIV).	<i>Alper da</i> , <i>Alper gabiltz</i> ²⁵

Beraz, hitzen aldaera zenbaitetan bereizi egiten da E. M. Azkue gabon kantetatik eta «Carlistenac» bertsoetatik. Uriartek E. M. Azkueren hitzei aldaketak egin zizkien, Markinako idazleen eredu literarioa (*azken*, *iges*) hobesten baitzuen. Uriarteren aldaketei dagokienez, hemen eta ondorengo atal zenbaitetan aztertzen ditugun batzuk Akasolok aipatuak ditu (Akasolo 1988: 11-12). Ohargarria da, bestalde, *alperric da zabalduten/zabaltzen* esaldia agertzen dela bai gabon kantetan eta bai «Carlistenac» bertsoetan.

²⁴ Adibideak: «Euzkadia» Z 895 *ez egozalez*, A-B 126 (PBDV *ez egozan lez*); Z *ez jhakalez*, A-B 145 (PBDV *Ez jacon lez*); Z *parkatu dotseguléz*, A-B 156 (PBDV *parca deutsegun leguez*; PB *parrkatu deutsegunez*); Z *dalez*, A-B 165 (2) (PBDV *dan lez*); «Apolo ta Musak», A-B 61 *daukêlez*; PBDV *dagozan leguez*, A-B 320 (PB 273 *dagozalez*); PBDV *daguan leguez* 326 (PB *dagoalez*); PBDV *ez dan lez*, A-B 340 (PB *extalez*); «Stabat mater» PBDV 499 *eutsan lez*, A-B 441 (PBn *ez dago poema hori*). Salbuespenak: PBDV *cijalez* (PB *zia lez*).

²⁵ Adibideak: PBDV 563 *Alper gabiltz*, A-B 496; PBDV *alper dira (...)* *aleguiñac*, A-B 346 (= PB 334); «Moguel ta Characa», A-B 290 *Ta alper eraguin jaquen / Boticaco drogai*.

Adizki laguntzaileak eta trinkoak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Ciran</i> (1819, XIV) / <i>cirian</i> (-) (1818, VI; 1820, III, IV; 1825 IX; 1830, I)	<i>Ciran</i> (XIII), <i>dirala</i> (VI)	<i>Cirian</i> , <i>dirian</i> (Z) ²⁶
<i>ditubana</i> 'hark haiek' (1820 (I), <i>citubanac</i> (1828, VIII)	<i>Ditu</i> 'hark haiek' (XII);	<i>Dituz</i> , <i>Cituzan</i> , <i>balituz</i> 'hark haiek' ²⁷
<i>Ditube</i> (-) 'haiek haiek' (1819, XVI; 1820, XIX; 1825; 1829 [II], XIII), 1830 (II), XIII / <i>ditubez</i> (1829, I; [II], XVIII); <i>cituben</i> (1819, XI; 1824, VI)	<i>Ditube</i> 'haiek haiek' (X, XIV) / <i>ditubez</i> (VI); <i>zaitubez</i> 'zaituztete' (XXI); <i>Ez zaituz</i> 'ez zaituzte' (XVII)	<i>Cituezan</i> 'haiek haiek' ²⁸
<i>dauca</i> (1820, XI; 1831, IX), <i>daucaz</i> (1829, XVII); <i>daucagu</i> (1820, 1824, 1831); <i>daucaguz</i> (1831); <i>daucat</i> (1829), <i>daucadaz</i> (1832)		<i>Dauko</i> , <i>nauko</i> (Z, PB), <i>dauka</i> (Uriarte, PBDV) ²⁹

Beraz, E. M. Azkue besteetatik bereizten da -z- pluralgilea darabilelako (*dituz*, *cituezan*) baina ez -b- eufonikorik. -z- pluralgilearen erabileran zalan-tza erakusten dute gabon kanteak eta «Carlistenac» bertsoek, eta horretan ere bat datoz.

²⁶ Adibideak: «Euzcadia» Z *lotu cirian*, A-B 102; *bannatu cirian*, A-B 104; A-B 172 *motstuta biciten cirian*, *ce pozik biciko dirian*.

²⁷ *Dituz* 'hark haiek': «Euzcadia» *Envidijhak mempetu / dituzan guizonak*, A-B 97; «Euzcadia» 743, A-B 121 *Neptumok baltzuz dituz / berreun ta amar Triton*; «Euzcadia» 753, A-B 121 *azurrezco ezpatak / gogortu dituzanac / cresalen embatac*; A-B 163 *dituz. Cituzan* 'hark haiek': «Euzcadia» 859, A-B 125 *imiñi cituzan*; A-B 164 *erre cituzan / ordi pestiak*. *Balituz* 'hark haiek': «Euzcadia» 932 *bigun euki ez balituz / Eratok erraijhak*.

²⁸ *Cituezan*: 'haiek haiek' «Euzcadia» 629, A-B 117 (Musak) *eroan cituezan* (gudariak); A-B 104 *ta bere beguijhak / botaten cituezan / suzko oñastarrijhak*.

²⁹ *Dauko*, *nauko*: «Euzcadia» A-B 112, 167 *ez dauko*, 169 *Iduna dauko* (PB 122 *Iduna dauko*); PBDV, A-B 326 *ez dauka usteric* (PB 278 *eztauko usterik*). A-B 167 *nauko oraiñ atsegin barik* (PB 121 *nauko gaur atsegin barik*).

Posposizio-atzizkiak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
-a + (genit.) -ren: <i>seinchubaren</i> (1818, 1819)	-a + -ren: <i>lurraren</i> (XIX)	-en; -n (Z, CV, EE, PB) (Uriartek aldatu à -aen, -aren, -en) ³⁰
-tic: <i>Atzetic</i> (1818 Pozgarrija); <i>Aurretic</i> (1818, VI) / <i>echeti</i> (1825, VII)	-tic: <i>bertatic</i> (IV), <i>guztijetatic</i> (VII)	-ti, -di, -ric (Z, PB), Uriartek aldatu à -tic) ³¹

Nabarmena da E. M. Azkueren berezitasuna (-en, -ti). Gabon kantetan badira salbuespen batzuk, jokabide arruntetik (-aren, -tic) kanpokoak: -en errima arrazoiengatik (*Jaincuen semia*, *Jaungoicuen legia*, GK 1824, XI, XIII); -ti (*echeti*, GK 1825, VII).

³⁰ E.M.A.ren adibideak: -en ‘-aren’, sing. bokal, diptongo, edo kontsonantez bukatzen diren hitzetan): Z, A-B 121 *ezpata alan derichon ichas arrañenak*; Z, A-B 194 *iNok esan lei mutillen bijhotsen larrija* 194; Z, A-B 195 *bijhotsen keia asi zan agoti botaten*; Z, A-B 199 *Jhoane (...) / bere Conce maitien / penak jhakinagaz*; Z, A-B 200 *egoan Bekoerota / (...) / jhoten Conce galanten / ventanako zura*; Z, A-B 201 *igaro even Mungúa / urijhen Campoti*; «Pio IX, eta Napoleon III» Z, A-B 221 *Mastai Aita Santuen / besoetakoa*; CV, A-B 241 *Jaungoikoen echia*; EE, A-B 257 *andra gaztia etorren / gizonen aurreti*; «Moguel ta Characa» PBDV, A-B 287 *Icusten ez ebela / egunen arguic*; PBDV, A-B 289 *Juan zan erdi billa / Zaldijen ganian* (PB 82 *ioan zan errdi-bila / zaldien ganean*); «Nesca gazte bat, eta aberatsa» PBDV, A-B 313 *Cerbait nastetan jaco / buruen ganian*. -n (-a, -o bokalez bukatzen diren hitzetan, artikulatu gabe): Z, A-B 115 *Minervan*; Z, A-B 115 *Apolon*. Zalantzak: EE, A-B 269 *Iauman* (baina *Jaumen* ere).

Uriarteren ukitukoak: -aen: PBDV, A-B 324 *amaen* (PB *amen*), PBDV eskuizk. 499, A-B 442 *Jaumaen*; PBDV 563, A-B 495 *Autsaen* / *ibid. zoruen* ‘zoroaren’; PBDV eskuizk. 595, A-B 503 *Chacurraen*. -aren: PBDV eskuizk. 501, A-B 443 *Curutze Santuaren*; PBDV *guessuaren* (PB *gai-soen*); PBDV eskuizk. 593, A-B 501 *erijotziaren*. -en: PBDV eskuizk. 492, A-B 440 *Franciscoen*; PBDV 595, A-B 503 *San Pedroen*.

³¹ E.M.A.ren ezaugarria da -ti: Z, A-B 185 *Baquoio-ti gora* (PB *Bakioti gora*; PBDV *Baquiotic gora*); Z A-B 195 *agoti botaten* (PB 137 *agoti*; PBDV *Aotic*); Z, A-B 199 *bijhotseti, menpeti* (PB 141 *biotze-ti, menpeti*; PBDV 348 *vijotzetic, mendetic*). Arrunta da -di (-n bukaeradun hitzetan): *andi, emendi* etab. -ric (batez ere erimagnetik): Z, A-B 186 *ezelan kendu eciñik / zeloak bururik* ‘burutik’ (PB *bururik*; PBDV *bururic*); «Ezcontzetaco bitartecuac» PBDV (iturri bakarra), A-B 316 *umetatic*.

Uriartek gehienetan -tic: «Stabat mater» PBDV eskuizk. 499 *curutetic/bijetatic/lecutic* (erriman).

Eufonia eta grafiak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
[Eufonia bokalikoak] -ia, -ija, -ua, -uba	-ia, -ija, -ua, -uba	-ea, -ijha, -oa, -ua
[Grafiak] j, c, ts, tz, ss, b	j, c, ts, tz, ss, b	jh, k (jhakanian), ts/tz (Alabantsac), sh (eshetu), v, tt [battera]

E. M. Azkueren idazkeraren beste ezaugarri bat: partiz. + *ta*, *da* elkarren-gandik bereiz (eraguiñ *ta* *cartai* ‘eraginda kartai’; *galdu ta izatiak* A-B 57, *paperian Taliak / esan da daukana* A-B 70; *Bota ta plantia*, A-B 229).

Estilo ezaugarri batzuk

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
[Maiz aditz <i>inversioa</i> : laguntzailearen eta trinkoen aurreratzea] <i>Alperric legue onac dira zabalduten</i> (1825, VIII). ³²	[Maiz aditz <i>inversioa</i>] <i>Suba ta odola (...) / alperric da zabaltzen</i> (X). ³³	[Gutxitan aditz <i>inversioa</i>] <i>laster cirian / amaitu</i> (Apolo, A-B 62). ³⁴
[Bakan beste <i>inversio</i> batzuk] <i>Eriotzaren bere / ez dauca bildurric</i> (1830, IX)		
		Hiperbaton: <i>gudarizko eguin evan / banari</i> [banaketa'] <i>zuzena</i> («Euzkadia», A-B 116); <i>Ciclope bizar barik / daukazanai garrak</i> (ibid., A-B 122)

Aditz laguntzailearen aurreratzea oso ugaria da gabon kantetan eta «Carlistenac» bertsoetan; ez, ordea, E. M. Azkueren poema narratiboetan (behin bakarrik «Apolo ta Musak»en eta «Anchinarik ona!»n, birritan «Moguel ta Characa»n). Errimogatik baliatzen dira haiek, askotan, *-ten*, *-tu* errima errazagoak eta erabilgarriagoak direlako adizki laguntzaileak baino. Baina estilo erretorikoaren adierazle ere badira; horretan ere bereizten dira haiek E. M. Azkuerenetik.

³² Adibideak ugariak dira. 1818koak eta egile beraren «Vizcai guztiz linargui» neurtitzetakoak baino ez ditugu jarriko: *yatorcu eracustera* (1818, VIII); *duaz igesi* (1818, [II], III); *jaco edeguico* (1818, [III] IX). *deutsez / bidiak zarratu* («Vizcai guztiz linargui», 1828, VI), *deutsagu / (...) erreгутuko* (ibid., XIII).

³³ Adibideak oso ugariak dira: *Jacuna jazoten, Zaitube icusten* (II); *ditubez (...) Billatzen, deutse (...)* *deituten* (VI); *Noc leique cembatu, / (...) / jacun sartu?* (XI); *dira orniduten* (XII), *dira / (...) sartzen, ditube ateraten* (XIV), *Dacusez iguesi* (XV), *Duaz (...) / barri emotera* (XVI).

³⁴ Adibideak oso gutxi dira poema aski luzeetan: *egozan vicirik* («Moguel ta Characa», A-B 289); *Cer eguan / (...) escatuten* («Apolo, ta Musak», A-B 292); *zirianak / Aberats* («Anchinarik ona!», A-B 232).

Joskeraren bihurritzea (hiperbaton): hona E.M. Azkueren beste ezaugarri edo berezitasun bat, gabon kantetan eta «Carlistenac» bertsoetan agertzen ez dena; E. M. Azkuek poema kultoetan baliatzen du noizean behin.

Topiko literarioak

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
<i>Vizcaitar sendo izugarriyac</i> (1818, (II) Sarrera) <i>Beti Bizkaija leial / bere jaunarentzat / eta izugarrija arrotz geistuentzat</i> («Vizcain guztiz linargui», 1828, X)	<i>Euscal erriyac dira / arrotzen izuba</i> (XV)	
<i>Erroma izugarri (...)</i> ezarri buztarrija (1819 [VII]); <i>Erromatarrac (...)</i> aldendu biar eben (1825, X). <i>Vizcaico ezaugarrija / len zan lauburuba</i> (1819, XX; 1824, III)	<i>Erroma bera ez zan euracaz jaubetu</i> (IX)	[Gutxiagotan] <i>Erromatar soldadu, (...) ona etorri ziran / Ezarten catiak</i> («Anchinarik ona»», A-B 229). <i>Leongo Infantea, Jaun Zuria, Padurako bataila, Bizkaiaren libertatea</i> (ibid., A-B 228-231)
[asaba zaharrak eredu] gure asaba/guraso zaharrak edo onak (1818, 1819, 1825, 1828, 1829, 1830 1832)	<i>gure Asaba onacaz / ez gara inoz aztu</i> (IX)	
[Ubi sunt edo lehen eta orain] <i>Nun dogu Vizkaitarrac orduco fedia?</i> (1819, XVIII); <i>Nun da orain orduco / Guizonen indarra?</i> (1825, XIII).		<i>Nun dira orduco guizon / Gueure Patriarcak</i> («Anchinarik ona!», A-B 231) <i>Au da bicimodua / Orain daukaguna / Lengo guisaldijhetan / Etzana ezaguna</i> (ibid., A-B 235)

Batzuek eta besteek mito edo sinbolo eta topiko literario bertsuak darabiltzate (bereziki *Ubi sunt* edo *lehen eta orain* dei genezakeen hori) baina gabon kantetan ugariagoak dira E.M. Azkueren bertsoetan baino. Ik. beste antzekotasun batzuk 2.4. atalean.

Metrika

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
Bizkaiko zortziko txikia guztiz nagusi	Bizkaiko zortziko txikia	Bizkaiko zortziko txikia ugari. Bertso moldeetan bariazio handiagoa.
Bakan zangalatraua: <i>dinue, lenago / il senar ta emazte</i> (1819, VIII); <i>Ceuben eche aldeco / lanac egin ondo</i> (1831 [III], XIX)	Zangalatraurik ez	Zangalatraua noizbehinka: <i>Eta alan salduteco / Guero, euquiten ditu</i> (PVDV 290, XI); <i>baleukê lez, bici bat / galdu ta, barrija</i> (Z, A-B 180)
Lizentzia metriko gutxi, sinalefa gutxi ³⁵	Sinalefa ugari baina ez egitera jotzen du gehiagotan ³⁶	Neurkera zorrotza: beti sinalefa, noizbehinka sineresia ³⁷

³⁵ GK 1830 (II): 20 estrofatan 2 sinalefa bakarrik, beste 37 aukeretan sinalefarik ez. GK 1832 (II): 13 sinalefa; beste 38 aukeretan ez, ordea.

³⁶ 24 estrofetan 13 sinalefa, baina beste 17 aukeretan ez dago sinalefarik.

³⁷ E. M. A.k aukera guztietan egiten du sinalefa: ondorio hori atera dugu bost poematan lehen bost estrofak aztertuta. Adibideotan sinalefa (laburduraz, s.) kopuruaren ugaritasuna ohartarazi nahi dugu: «Apolo ta Musak» I, II: 5 s.; III: 7 s. «Euzcadia» I: 4 s.; II: 4 s.; IV: 4 s. «Libertatian arguitasuna» II: 3 s.; IV: 2 s.; V: 2 s. «Anchinarc ona!» I: 2 s.; IV: 3 s. «Moguel ta Characa» I: 3 s.; II: 3 s.; III: 3 s.; V: 2 s. Sineresiak, ordea, noizbehinka egiten ditu: «Apolo Ta Musak» III, «Moguel ta Characa» III.

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
Gehiagotan errima ertaina eta ez gramatikala, oro har. Errima errazak nagusi: <i>-rik, -ia(k), -u(b)a(k), -etan, -tu, -ten</i> . Bizkaiko zortzikoan ere errima bakarra edo antzekoa estrofa frankotan.	Gehiagotan errima ertaina eta gehixeagotan ez gramatikala. Errima nagusiak: <i>-iac/-ijac, -ten/-tzen, -ric, -etan, -tu, -uba, -ac</i> . Errima bera edo antzekoa estrofa askotan	Errima aski aberatsa: ertaina, silaba bikoa gutxienez; errima gramatikalari ihes. Errima bariatua goa, zailagoa eta aberatsagoa.

Bat datoz hirurak Bizkaiko zortziko txikia erabiltzean (7/6A/7/6A/7/6B/7/6B). E. M. Azkuek ere maiz darabil («Apolo ta musak», «Jaunaren Legueko aginduak», «Euzcadia», «Ipuiñac», «Libertadian arguitasuna», «Anchinaric ona!», «Moguel ta Characa»...); horietako batzuetan 4 bertsolerrotan tolestuta, Iparraldekoen erara. Baina bertso moldez bariatua goa da.

Zangalatrauaren erabileran aldetxoa badago ere, askoz nabarmenagoa lizentzia metriko edo poetikoen, eta, partikularki, sinalefaren erabileran. Gabon kantetan baino gehiago erabilia da sinalefa «Carlistenac» bertsoetan, baina haietan nola hauetan sinalefa egin edo ez egin aukerakoa da, eta E. M. A. ren poemetan, ordea, nahitaezkoa. Horrek esan nahi du gabon kantak eta «Carlistenac» herri bertsogintzatik hurbil direla: haiek sinalefaz ahalik eta gutxien baliatzeko joera erakusten dute; «Carlistenac» bertsoak, bertsolariak bezala, komentziaren arabera baliatzen dira, arau zehatzik gabe.³⁸ E. M. Azkueren poemek, ordea, neurkerari dagokionez beste eredu bat jarraitzen dute, zorrotzagoa, kultuagoa (Oihenartek bezala), agian gaztelaniazkoaren bidez.

Errimari dagokionez, bat datoz «Carlistenac» bertsoak gabon kantekin: gehiagotan ageri dira errima ertainak eta ez gramatikalak. Bat datoz errima

³⁸ «Carlistenac» bertsoen bertsogintzari oharrituta, A. Zavalak dio egilea ez dela herri-bertsolaria, «gizon eskolaturen bat» baizik (Zavala 1992: 301). Gure ustez, komeni da bereiztea herri poesia bertsogilea eskolatua izatetik edo ez izatetik, herri-bertsogintzaren bidea hartu baitute hainbat bertsogile landu edo poetak. Bestalde, zergatik bazterten ditu Zavalak emakume eskolatuak?

nagusietan ere, baita zortzikoan estrofa askotan errima bera izatean (zortziko txiki arrunta balitz bezala) edo antzekoa behintzat, bertso lerroak binaka errimatuz: hala gertatzen da «Carlistenac» bertsoetan estrofa herenetan baino gehiagotan; gabon kantetan ere frankotan, ik. GK 1830, (II), XIII, XV, XVI. Errimaren luze-laburrari dagokionez, gabon kantetan errima laburrak ugariak dira, luzeak urriak, baina asonantzia bokalikoa ere badira noizean behin.

E. M. Azkueren berezitasun bat da gabon kanta eta «Carlistenac» bertsoetakoa baino errima aberatsagoa, zailagoa eta bariatagoa erakustea. Haren neurtitzetan gutxitan ageri dira errima laburra edo gramatikala, egileak ia beti errima ertaina edo silaba bikoia gutxienez lantzen du, franko aldiz hirukoa edo luzea, eta laburretan ere hoskidetasunaz aberasten du errima.³⁹ Errima arloan nekez egin zezakeen aldaketarik Uriartek; are nekeago, E. M. Azkueren errima landuagoa izanik.

2.3. Nor datekeen egilea

Testu konparaketaren ondorioz, garbi ageri da «Carlistenac» bertsoek kideasun ugariago dituztela Bilboko gabon kantekin (1818-1832) E. M. Azkueren poemekin baino. Hori erakusten dute gure azterketa-puntu nagusien emaitzek (enuntziazioa, hiztegia, *herriak dontsutu* klisea, adizkiak, *inversioa* eta hiperbatona, sinalefa, zangalatraua, errima, etab.). Beraz gure hipotesia da «Carlistenac» bertsoen egilea gabon kanta horien egile bera datekeela: Bizenta A. Mogel (1782-1854). Ezin uka bertso horiek badutela antzekotasunik Juan Jose Mogelen bertsoekin ere, baina askoz gehiago Bizentarenekin.⁴⁰ Bestalde, logikoa da Mogel neba-arrebak pentsamoldez ez

³⁹ GK eta «Carlistenac» bertsoetako errima ohikoez gainera, beste honako hauek ere ageri dira «Apolo eta Musak», «Euzcadia», «Libertadian arguitasuna», «Anchinaric ona!», «Moguel ta Characa» poemetan: adizkiak, *-ago*, *-ena*, *-ana*, *-aric*, *-eric*, *-iric*, *-era*, *-aten*, *-duten/tuten*, *-oan*, *-uan*, *-akaz*, *-ira*, *-antia*, *-urun/urrun*, eta hainbat.

⁴⁰ J. J. Mogelen eta haren ustezko bertsoetan (Altzibar 1992:385-400) agertzen dira «Carlistenac» bertsoetako hitz eta joskerak batzuk gabon kantetan ez daudenak, adib. *burla ta barriac*, *garaitza osuagaz*, *garaitza guztijac*, *nunbaita* (Car XVII, XVI, XX, XI), *burla ta barreric*, *Vizcaytarren garaitzac*,

ezik hizkeraz ere antzekoak izatea, eskola berekoak baitziren eta seguru asko elkarren eraginpekoak. Nolanahi ere, egilea Bizenta edo Juan Jose Mogel izatea askoz probableagoa edo sinesgarriagoa da E. M. Azkuerenak direla eta Uriartek ohiko aldaketak egin zizkiela pentsatzea baino.

Uriartek Bonaparteri eginiko gutunetan Bilboko gabon kanta batzuk aipatzen dizkio, 1814, 1816, 1820 urteetakoak (Ruiz de Larrinaga 1954, X, 265-266) baina ez egilearen izenik. Seguru asko ez zekien 1820koen egilea B. Mogel zela. Izan ere, Bilboko gabon kantak bertso-paper inprimatuetan ateratzen ziren, egilearen izenik gabe; horregatik ez Uriartek ez Manterolak ez zuten ezagutzen Bizenta Mogel gabon kanten egile gisa (bai alegigile gisa). Bonapartek eta batez ere J. Urquijok batu zituzten Bilboko gabon-kanta horiek baina Bizentarenak ziren ez zekiten. Ezta Uriarteren gutunen argitaratzaile Ruiz de Larrinagak ere.

Ikusi dugunez, egiletza arazoak agertu zaizkigu ustez E. M. Azkue eta J. J. Mogelenak omen diren bertsoetan. Egile horiek lehen karlista gerratea bizi izan zuten eta ez zuten bertso-libururik argitaratu. Bertsoen –batez ere bertso anonimoen– egileak nor ziren jakiteko eragozpenak handiak ziren XIX. mendean. Hona beste adibide bat: Uriarteren bildumako hirugarren multzoa gabon kanten osatzen dute (ez, ordea, Bilbokoek, guk aztertuek). Haien arteko bat edo beste ez ote Bizentaren eskukoa edo, behintzat, haren eraginpekoa? Bizenta Mogel 1854an hil zen, eta Uriarte 1856an hasi bilduma egiten. Ez litzateke harrigarri Uriarteren bildumako gabon kanten multzoko batzuk Bizenta Mogelenak izatea.

Hain zuzen, Uriarteren gabon kanten multzoko lehen lau-bostak Bizenta Mogelen hegatsakoak dirudite hizkeraz eta pentsamoldez («Gabongo cantac», PBDV esk., 217-235; Kortazar–Billelabeitiaren ediz., 132-141). Gainera, «Carlistenac» bertsoetako hitz bereziak agertzen dira gabon kanta

cerchubaita (J.J. Mogel). «Carlistenac» eta gabon kantetako beste asko ere bai: *Asabeen leguiac*, *ondo entzunian* 'entzutetsuan', *goitu*, *igaro*, *imini/ipini*, *-en irudian/irudira*, *lelengo*, *mirari*, *zurturic*, etab. «San Antonio Paduacuarenac» bertsoetan (Uriartek PBDVn bildu eta J.J. Mogelen bertsoen ondoan jarriak, egile izenik gabe) beste bizpahiru agertzen dira: *dontsuric*, *eracutsiten arguiro* («Carlistenac»-etan bezal-bezala) eta *gozaro*. J.J. Mogelenak ote dira bertsook? J.J. Mogel apaiza Bizentaren anaia zen eta Bizkaiko Aldundi Karlistako diputatu jenerala gerratean, 1834-1838 urteetan.

horietan (*albisti*ac, *entzute* 'fama', *garaitzia* 'garaitza'); hona beste arrazoi bat «Carlistenac» bertsoak B. Mogelenak direla uste izateko.

Dataz ere «Carlistenac» bertsoen garaitsukoak dira Uriarteren bildumako gabon kanta horiek. Bigarren gabon kantak 1837ko data agertzen da, gerrari aipamena egitean: «Mundubac sarri dituz / Guerra aserriac» (IX). Hirugarrenean «Garaitziaren azquenia / Ondochu gozatu gaitian» (Estribillua), eta laugarrenean «Pocera birau ditu Naibague guztijac» (II). Beraz 1837, 1838 eta 1839koak dirateke gabon kantak. Hortaz, itxura guztien arabera B. Mogelek gabon kantak ontzen (argitaratzen ere?) jarraitu zuen, beti bere izenik jarri gabe.

2.4. Elkar-eragina eta testuartekotasuna

Aztertu ditugun bertso anonimoen egiletzari lotua da haiek utzi duten arrastoa, haien arteko elkar eragina eta testuartekotasuna. Bada, azken atal honetan hori erakusteko adibide batzuk jarriko ditugu.

Ikusi dugu gabon kantetan, «Carlistenac» bertsoetan eta E. M. Azkueren neurtitzetan mito edo sinbolo politiko-ideologikoak (topikoak) berrerabiltzen direla. Izan ere, tradizio beraren parte dira B. Mogel eta E. M. Azkue. Tradizio hori azaltzen da bertso-moldeetan (batez ere Bizkaiko zortzikoa) eta joskura bereko adierazmolde edo kliseetan. Hala bada, bera baino lehenagoko B. Mogelen gabon kanten ildo beretik dabil E. M. Azkue, edo B. Mogelen eragina du.

Tradizio horretan asaba zaharren eredua, antzinako euskaldun menperatu gabeena goraiatzaren dute bata eta besteak, eta garaiko euskaldunen jokaerarekin kontrajartzen dute eredu hura, garaikoen jokaera gaitzesteko arlo askotan (janzkera, ekonomia, moda berriak, hordikeriaren ondorioak, narzismoa...). Mito edo sinbolo politiko-ideologikoen erabilera hori Astarloatarrekin hasten da edo behintzat haien eraginpekoa da (*Urteko Domeka*, II, hitzaurrea; Bilbo: P. Apraiz, 1818). Joera morala –eta legezaharrekoa, tradizionalista– Bizentaren bertsoetan agertzen da, baita M. Zabalarenetan («Anchinaco euskaldunen alabantzaac»). Arrese Beitiarekin esanahi politikoa nabarmenduko da («Bizkaitar zarrak eta erromatarrak», 1882).

Adibide batzuen bidez ikus daiteke pentsamolde berekoak eta adierazmolde bertukoak direla B. Mogelen gabon kantak eta E. M. Azkueren zenbait poema:

Vizcaitar sendo / viotz andicua / iños makurtu ezdiran / leial, ta senduac! (GK 1819, sarrera).

Orducoak cirian / Utzak Vizcaitarrak, / Iñok vencidu bako / Munduan bakarrak:/ (...) Euskaldunak danak («Anchinarik ona!», A-B 231).

Nun dira Vizcaitarren / ezne ta artuak? / Nun gaztañak ugari, eta Sagardauac? (GK 1829, [II], XIII).

Nun dira vizcaitarren jhakechu laburrak? / Nora mendijetako / Igas dabe egurrak? / Arech ta egurrak saldu / Ta erosi gabana / Au da gaurko eguneko / Guizonen afaná (E.M.A., «Anchinarik ona!», A-B 233).

Lehenagokoak izanik, logikoa da Bilboko gabon kantek bere eragintxoaz izatea E. M. Azkueren neurtitzetan eta guk haien oihartzuna entzutea honen neurtitzetan:

Vizcailac ez dirudi / iñolaz lengua, / ardaia, ta pipia, / ta carta jocua. / Onéc dira oraingo / guizonen lagunac, / ugarturic ascoren / laia ta achurrac (GK 1829 [III], III).

Vizcailan eguin dira / Bide-laun zabalak / Libre sartu deitezan / Ekan-du xitalak (E.M.A. «Anchinaric ona!», A-B 232).

Gure Asaba zarrac / viztu al baleitez, / semetzat ezagutu / naico ez guinduez (GK 1819, XXV).

Biztuko balitz ere / orain Jaun Zuria / Ezagutuko ez leuke / Vizkaikogentia (E.M.A. «Anchinaric ona!», A-B 228).

«vici modu barri bat / aurrera jarraitu. // Alan izango dogu / eriotza ona / eta aren ondoren / Ceruco ondasuna (GK 1832, XII).

Eta igaroten badot / bici modu charra / neuretsat izango dot / betiko negarra (E.M.A. «Ezkontsa bere modukoa (A-B 147).

Hortaz, badirudi gabon kanten tradizioak bere eragina izan zuela XIX. mendean, baita E. M. Azkuegan. Ez da harritzekoa: latina eta filosofia ikasi

zituen Bilboko frantziskotarren komentuan, harik eta karlisten altxamendua gertatu arte.⁴¹ Beraz seguru asko ondo ezagutuko zituen 1828-1832 bitarteko gabon-kantak behintzat, hain zuzen Bizenta Mogelenak, izenik gabe agertuak, eta beharbada Bizenta bera ere ezagutuko zuen.

3. Ondorio batzuk

«Carlistenac» bertsoen, Bilboko gabon kanten nahiz Mogel neba-arreben ustezko edo balizko bertsoen kasuak adierazten du transmisioaren katean etenak izan ditugula XIX. mendean, eta arazoak ditugula orduko poesiagintza ezagutzeko. Mogeldar neba-arrebek baino oinordeko leialagorik izan zuen E. M. Azkuek –batez ere bere seme Resurrección–, baina, Mogel neba-arrebek bezalaxe, desertuko bakartadean ibili behar izan zuen Eusebio Maria Azkuek ere bere garaian, ia poemarik argitaratu gabe hil baitzen, eta, eskuizkribuak zabaldu zituen arren, eskuizkribuok sakabanatzean ez baitakigu zehazki hari edo beste nori egotzi olerki hau edo bestea. Beraz, hutsune ugari nabari dira oraindino XIX. mendeko euskal idazleen ezagutzan, eta dugun ezagutza partziala osatzen lagundu behar dute arlo desberdinetako ikerketek (biografia, pentsamoldea, bertsoen harrera, testuingurua, bertso-gintza, estiloa, testuartekotasuna, testukritika etab.).

Esaterako, «Carlistenac» bertsoen kasuan egin dugun bezala, E. M. Azkue eta Mogeldar neba-arreben zenbait kanturenean ere berraztertu beharra dago Uriarteren poesia bilduma iturri bakartzat duten poemen egiletza. Egile bakoitzaren testuak finkatze aldera, komenigarria litzateke egileen lexikoa biltzea, testuen arteko konparazioak egin eta egileak nor izan ziren finkatu ahal izateko. Baita ere, egileen arteko eragina eta testuartekotasuna aztertzea. Azkenik, guztiz premiazkoa genuke E. M. Azkueren olerkien edizio on bat izatea, Astigarraga–Bijuescaren lana erreferentziazkotzat harturik baina ortografia berdinduta eta gaurkotuta.

⁴¹ Uriarteren arabera, Teologia ere ikasi zuen, eta ikasketa guztiak probetxu handiz egin omen zituen (Ruiz de Larrinaga 1857, XII-3: 333).

Bibliografia

AKESOLO, L., 1979. «Azkue aita-semeak (Jorratzaile batzuk jorratzen)». *Karmel* 1979 (2), 37, 26-37.

———, 1988. «Azkue aitasemeak aurrez aur barriro: Parnasorako bidea eta Poesía Bascongada». *Karmel* 1988 (4), 6-18.

ALTZIBAR, X., 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bizkaiko Foru Aldundia.

———, 2008. «Bizenta Mogelen gabon-kantak eta 1828ko bertsoak». *Bidebarrrieta. Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao–Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria*. XIX, 2008, 25-104.

ARANA, J. A., 1983. *Resurrección María Azkue*. Bizkaiko Aurrezki Kutzaren Kultur Ekintza.

ASTIGARRAGA, A.–BIJUESCA, K.J., 1990. «Sarrera». Ik. Azkue, E. M. 1990. 13-48.

AZKUE, E. M., 1896. *Eusebio Maria D. Azkuetarrak. Parnasorako Bidea*. Resurrección María Azkueren edizioa. –(edizio faksimila) Donostia: Hordago, 1979.

———, 1990. *Eusebio Maria Azkue-koa. Euskarazko bertsoak*. Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J.ren edizioa. Bilbo: Labayru Ikastegia–BBK.

———, «Apolo ta musak». Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa, Bonaparte Fondoa

———, «Dies irae». Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa, Bonaparte Fondoa.

———, «Euzkadia». Lenengo Cantua. Fragmento de un poema euzkerico por D. Eusebio M^a Dolores Azkue. Originales manuscritos. Caja 56, Documento 8. Catálogo del Archivo Provincial de Zarautz. 2004. 1797. zbk.

———, Diez y ocho poesías euskericas por D. Eusebio M. D. Azkue. Manuscritas en varias fechas. Caja 56, Documento 9. Catálogo del Archivo Provincial de Zarautz. 2004. 1798. zbk.

AZKUE, R. M., 1896. «Arrgibidea». Ik. Azkue, E. M. 1896. 3-19 or.

Diccionario General Vasco–Orotariko Euskal Hiztegia. Mitxelena, L.–Sarasola, I. Bertso elektronikoa. 3. argit., 2013.

DUO, G., 1994. «La enseñanza de Náutica en Lekeitio durante los siglos XVIII y XIX», *Ikuska*, 1994, 5, 29-52.

———, 1995. «Lekeitio en el Siglo XIX y Jose Javier de Uribarren (1791-1861)», *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23, 137-162.

———, 2000. «Modificaciones en las condiciones de trabajo de los maestros de Náutica, entre el Antiguo Régimen y el Liberalismo». *Vasconia*, 2000, 30, 135-140.

ERKIAGA, E., 1936. «Lekeitio'ko Olerti-Eguna. Gomuta samurrak», *Euzkadi*, 1936-VII-5.

Euskal-Erria. Revista Bascongada. S. Sebastián, Establecimiento tipográfico y librería de A. Baroja—hijos de I. R. Baroja, 1880-1918.—(ediz. faksimilea) Bilba: La Gran Enciclopedia Vasca, 1979.

KORTAZAR, J. «Eusebio Maria Azkueren bizitzari buruzko zertzelada berriak». www.euskaltzaindia.com/dok/.../lekeitio_kortazar.pd.

KORTAZAR, J.—BILLELABEITIA, M., 1987. «Sarrera». Ik. Uriarte, J. A. 1990. 9-40 or.

LEKEITIOKO UDALA. Nautika Eskolako Artxiboa (NEA).

MANTEROLA, J. (arg.). 1877-1878, 1878, 1880. *Cancionero Basco*. S. Sebastián. —(edizio faksimilea) Sendoa, 1981.

MOURLANE Michelena, P., 1919. «Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX. Fragmentos de un ensayo», *I. Congreso de Estudios Vascos* (Oñate 1918). Bilbao, Bilbaina de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919, 621-643.

RESURRECCIÓN MARIA AZKUEREN FUNTS DOKUMENTALAK. Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako Artxiboa.

RUIZ DE LARRINAGA, J., 1954. «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte con notas bio-bibliográficas del P. Fr. Juan Ruiz de Larrinaga, O. F. M.». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1954, X-2, 3, 4, 231-302 or.

———, 1957. XIII-2, 220-239 or.; XIII-3, 330-348 or.; XIII-4, 429-452 or.

———, 1958. XIV-3, 397-443 or.

URIARTE, J. A. *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino* [edo *Poesía Bascongada Vizcaina*]. Eskuizkribua. Arantzazuko Frantziskotarren Artxiboa. —Jose Antonio Uriar-

te. *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino*. Kortazar, J.–Billelabeitia M.en edizioa, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.

Yakintza–Revista de Cultura Vasca, 1933-1936. 19. z., 1936ko ilbeltz-otsaila 1936.

ZAVALA, A., 1992. *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoa.

Laburdurak

A-B: Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J.ren argitalpena. Ik. Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J. Ik. *Eusebio Maria Azcue-koa*.

Car: «Carlistenac» bertsoak (PBDV).

CV: Ik. Manterola.

EE: Ik. *Euskal-Erria*.

E. M. A.: Eusebio Maria Azkue.

GK: (Bilbo eta Abandoko) gabon kantak (1818-1832). (I): lehen kanta. (II): bigarren kanta. Ik. Altzibar 2008.

NEA: Ik. Lekeitioko Udala: Nautika Eskolako Artxiboa.

OEH: Ik. *Diccionario General Vasco–Orotariko Euskal Hiztegia*.

PB: *Parnasorako Bidea*. Ik. Azkue, E. M. 1896.

PBDV: *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino*. Ik. Uriarte, J. A.

R. M. Azkue: Resurrección María Azkue.

Z: Zarauzko eskuizkribuak: ik. Azkue, E. M. «Euzkadia» eta Diez y ocho poesías euskericas por D. Eusebio M. D. Azkue.

Eranskinak

1. Eusebio Maria Azkuek Valladolideko errektoreari (Lekeitio, 1868/02/06)

Ylmo Sr. Rector de la Universidad de Valladolid

Contestando a los cinco puntos que abraza la circular nº 18 espedida por ese Rectorado con fecha 31 del mes pasado de Enero, y recibida en la Direccion de esta Escuela en 5 del corriente mes, debo manifestar a Vs Y.

1º. Que el cuadro del personal de este establecimiento se compone, de un Director, el cual esta reunido al propio tiempo con el caracter de compatrono, como [firmante?] y testamentario de los Fundadores, siendo el que desempeña este cargo el [caballero?] D. Bruno L. de Calle.

De un Secretario, que con el caracter de Catedratico propietario desempeña la Cátedra diaria de Algebra y las alternadas de Geografia, Fisica y Metereologia, siendo D. Angel M. de Ventades el que egerce estos cargos.

De un Catedrático, propietario tambien, el cual desempeña la Catedra diaria de Cosmografia, Pilotaje y Maniobras, la id. de Geometria y Trigonometria, y la alternada de Dibujo lineal, Geografico e Hidrográfico, siendo el encargado de estas Catedras el que, por ausencia del Sr. Director propietario, tiene el honor de dirigirse à Vs Y. en esta ocasion firmando la presente comunicacion.

De un Conserge, que cuida de la conservacion y limpieza del establecimiento, y del orden y compostura que deben observar los alumnos al entrar y salir de la escuela. Los sueldos, títulos etc. de este personal, así como las asignaturas que cada profesor explica, está todo aprobado por la Superioridad y conforme a reglamento.

2º. Que el número de alumnos matricuados en esta Escuela para el presente curso académico es el de 33, repartidos en los tres años que abraza la carrera de Navegación, de la siguiente manera = 17 en

el primer año, 10 en el segundo y 6 en el tercero, como se demuestra por el adjunto cuadro nº 1 y se comprueba en el libro de matriculas de este Archivo.

3º Que no siendo propio de las atribuciones de las Escuela de Nautica el conferir grados ni revalidas de Pilotos, por estar reservada esta atribucion a los Capitanes Generales de los Departamentos de Marina, únicamente se espiden por la Secretaria de esta Escuela certificados de la conclusion de carrera de Pilotos, habiendose firmado y sellado en la Direccion de este establecimiento, desde 1º de Octubre de 1866 a 1º de Octubre de 1867, siete certificados, correspondientes a otros tantos alumnos, que tenian ya concluida su carrera de Pilotos, segun se demuestra tambien en el adjunto cuadro nº 2, y esta ademas comprobado en el libro de registros de esta Secretaria.

4º Que, como he manifestado en el punto anterior, no habiendo grados ni revalidas en las Escuelas de Nautica, tampoco hay ingresos bajo este concepto, pero el producto anual de Matriculas puede regularse proximamente en el de tres mil trescientos reales anuales; pues la esperiencia de seis años que lleva funcionando esta escuela arroja el numero de treinta y tres alumnos matriculados en cada curso, los cuales pagando por derechos de matricula, en dos plazos, a razon de 100 reales cada alumno, componen la suma de tres mil trescientos reales en cada curso. Aqui debo manifestar a V. Y. que, siendo esta Escuela de fundación particular, creada en virtud de Real Orden de 20 de abril año de 1859, con todas las atribuciones y preeminencias de las demas Escuelas de Nautica del Reyno, aun con la de que los Profesores que presten sus servicios en ella, conserven sus antigüedades y [número?] en el escalafon respectivo, segun se desprende de la Real Orden de 26 de Marzo de 1862, y teniendo manifestada a la Superioridad y depositada la cantidad que a los Fundadores se les exigió en Orden de 7 de Setiembre de 1861 [?, 1866?] (con cuya cantidad se cubren desahogadamente las necesidades del material y personal de enseñanza, no percib[iendo] cantidad alguna para su sostenimiento ni del Estado ni de la Diputación Foral ni del Municipio, cediendo por el contrario a favor del Estado la mitad de los derechos de matricula, o sean mil seiscientos reales anuales, por

termino medio, con cuya cantidad se compra el papel de matriculas de la Nacion en la aduana de Bilbao.

5º Habiendo habido necesidad de atender a la formación de los gabinetes de Pilotaje, Fisica y Geografia, lo que esta ya conseguido, pues puede decirse que hoy son selectos, se ha invertido gran porcion de dinero, que de otro modo se hubiese destinado a la Biblioteca, en la adquisicion de magnificas colecciones de mapas hidrograficos, principalmente de España y sus posesiones; mas ahora que los gabinetes de enseñanza estan completos, empezara esta Direccion a la formacion de una Biblioteca digna del establecimiento, puesto que hoy no existen mas que 24 volumenes, algunas colecciones de revistas cientificas y los numeros de la Gaceta oficial de Madrid desde 1º de Enero de 186[?] hasta el dia de esta fecha, coleccionados, encuadernados y compactados [?] en forma de tomos.

Lo que tengo el honor de participar a Vs. Y. en cumplimiento de la circular antes citada abrazando los cinco puntos en ella expresados.

Dios guarde a Vs Y. mil años.

Lequeitio 6 de Febrero de 1868

P[or]. A[usencia]. del D[irector] [?]

Eusebio Maria de Azcué

(Lekeitioko Udal Artxiboa. Nautika Eskolako Artxiboa 24).

2. Alfontso Maria Azkueri buruzko agiriak

(Jaiotza-agiria)

Certifico yo el infra[scri]tro Presbitero Beneficiado y Cura de las Yglesias Parroquiales Unidas de la Villa de Bermeo, Obispado de Calahorra; Que haviendo registrado el Archivo Cural à instancia de parte se encuentra entre otros Libros Sacramentales uno que contiene partidas de bautizados y es el numero quince forrado de pergamino blanco que dio principio con la de Juan Blas de Laca y fin con

igual de Maria Felipa de Echevarria y a su folio doscientos cuarenta y cinco se halla una estampada que dice asi.

Alfonso Maria de Ascue.

En la Villa de Bermeo Prov. de Vizcaya, Obisp. de Calahorra à tres de Sep[tiemb]re de mil ochocientos quarenta y cinco; Yo el infr[ascrit]o Presbitèro Cura y Beneficiado de las Yglesias parroquiales Unidas de esta Villa de Bermeo, he bautizado solemnemente à un niño al que he puesto por nombre Alfonso Maria, el cual segun la relacion que se me ha hecho por la parte ha nacido a las siete de esta mañana; hijo legitimo de D. Eusebio de Ascue natural de la Villa de Lequeytio, y feligres de esta Villa, y de d^a Laureana de Ocerin natural de la Villa de Bilbao, y feligres de esta citada villa; Abuelos paternos dn Juan José de Ascue nat. y felig. de Zamudio, y d^a Maria Ygnacia de Barrandia natural de la Villa de Lequeytio, y feligres de la espresada Ante Yg.^a de Zamudio; Padrinos Fran.^{co} Brasac, y Ana Maria de Arana vecinos feligreses de esta citada Villa, a quienes adverti el parentesco espiritual, y demas obligaciones que contrajeron. La Abuela materna del niño es D^a Josefa de Ocerin, natural, y felig. de la citada anteYg. de Ceberio. T.gos Vicente, y Pedro de Dondis hermanos nat. de Guernica, y vecinos de esta; Y p.^a q.^e conste lo firmo yo el Cura = D.ⁿ Fernando Yldef.^o de Amunategui.

La prexedente partida concuerda fielmente con su original que en caso necesario me remito y queda en el referido archivo, de esta Parroquia de Santa Eufemia. Bermeo doce de Marzo de mil ochocientos cncuenta y dos.

Ber[meo] Dn Juan Geronimo de Torres.

(Lekeitioko Udal Artxiboa. Nautika Eskolako Artxiboa 1)

(Mundakako eskolako ikasketak)

D.ⁿ Manuel Sagredo profesor de instruccion primaria superior, maestro de la escuela pública de ésta anteiglesia y pueblo de Munda-

Certifico que D.ⁿ Alfonso de Azcúe hijo legítimo de D.ⁿ Eusebio María Dolores y de D.^a Laureana de Ocerin, ya difunta, vecinos que eran de ésta, asistió á ésta escuela, que dirijo, y estudió en ella con bastante aprovechamiento, lectura, escritura, doctrina cristiana, elementos de religión y moral, aritmética teórico-práctica y gramática española, elementos de geometría y dibujo lineal, habiendo observado buen comportamiento, hasta que en julio de 1855 dejó de asistir para dedicarse á otras cosas. Y para que conste y obre los efectos que le convengan, doy éste á su instancia en Mundaca á 16 de Setiembre de 1862.

Manuel Sagredo [errubrikarekin]

(Mundakako abadearena)

Certifico yo el infrascrito Capellan y Cura Coadjutor de esta Yglesia Parroquial Santa Maria de la Anteiglesia y Puebla de Mundaca que Don Alfonso Maria de Azcúe mi feligres ha frecuentado los Santos sacramentos de penitencia y Comunión y ha observado buena Conducta Moral y para los fines conducentes doy la presente.

Mundaca 23 de Setiembre de 1862.

Juan Antonio de Mundaca. [errubrikarekin].

(Lekeitioko Nautikako Eskolako kalifikazio batzuk)

Alfonso M.^a Azcue y Ocerin. Natural de Bermeo, Provincia de Vizcaya. De 17 años.

(Calificaciones: Ordinarias)

Curso 1862 á 1863: Arit.^a y Algebra: Sobresaliente. Geografía (1.^{er} curso): Id. Dibujo lineal: Aprobado.

Curso 1863 á 1864: Geom.^a y Trigonom.^a: Sobresaliente. Geografía (2.^a curso): Id. Dibujo geográfico: Aprobado.

Curso 1864 á 1865. Física: Sobresaliente. Cosmg.^a y Pilotage: Id. Dibujo hidrográfico: Aprobado.

Observaciones: Registro N. 20=Pág.^a 2.

(Lekeitioko Udala, Nautika Eskolako Artxiboa 9/2).

Oharra: Alfontso M. 1862-1863 ikasturtean sartu eta berehala, lehen hilabetetik bigarrenera, kalifikazioak erabat hobetu zituen, aitzak eskuz jarritakoetan ageri denez.

3. Eusebio Maria Azkueren ondasun aitorpena

En la villa de Lequeitio á quince de junio de mil ochocientos setenta y dos: ante mí el Licenciado Dn Pedro de Olaortua, vecino y Notario de ella y del Colegio de Burgos y testigos que se espresaran compareció Dn Eusebio M^a de Ascue y Barrundia, casado, Profesor de Nautica, mayor de cincuenta años, vecino de esta espresada villa, que manifesto hallarse en el libre egercicio de los derechos civiles sin que presente cédula de empadronamiento por no haberse repartido en este Señorío de Vizcaya, esento de contribuciones directas dijo: que estando casado en segundas nupcias con D^a Maria del Carmen de Aberasturi su actual esposa, y no habiendo formalizado inventario ni relación de bienes á la disolucion de su primer matrimonio por fallecimiento de su primera muger D^a Laureana de Ocerin, para que en todo tiempo se sepa el estado de la casa en aquella epoca y que entre los hijos que tiene de ambos consorcios no se susciten diferencias que puedan romper la buena armonia que debe existir entre hermanos, ha creído conveniente manifestar por medio de una descripcion de los bienes y deudas que habia á la época citada de la muerte de su precitada esposa D^a Laureana y para verificarlo en la forma siguiente.

Estado de la casa a la disolución del primer matrimonio. Efectos:

Cinco camas arregladas como corresponde con buenas cajas, mudas de sabanas y almohadas.

Dos comodas buenas.

Dos estantes, uno grande de caoba y otro pequeño de pino.

Dos mesas y dos consolas de nogal.

Una docena de sillas de paja.

Un sofá, algunos cuadros y tres espejos.

Dos relojes, uno de péndola y pesos, y otro redondo de sala.

Una herrada de tres calderas grandes y un utensilio regular de cocina.

Una vajilla regular, con sus cucharillas de plata para café.

Varias ropas de uso de su difunta muger que se vendieron para sufragios de su alma é importaron seiscientos cuarenta reales.

Deudas: Por la enseñanza de su hijo Dn Alfonso en Munguia, diez y seis meses á ciento veinte reales mensuales, mil novecientos veinte.

A la nodriza de su otro hijo D. Conrado por sus lactancias, seiscientos sesenta reales.

Id. á la nodriza de su hija Sol por diez y seis meses de lactancias, ochocientos ochenta reales.

Id. Por dos años de rentas de la casa habitación á cincuenta ducados uno mil y cien reales.

Id. Se debia por leña, tocino y pan, mil ciento noventa y cinco reales.

Id. Se debia á dos personas por dinero que me prestaron para la casa, mil doscientos reales.

Id. Debía por efectos de tienda y al sastre y zapatero, setecientos ochenta reales.

Declara dicho D. Eusebio que las anotadas eran las únicas existencias que habia á la defunción de su primera muger D^a Laureana acaecida á mediados de Noviembre de mil ochocientos y cincuenta y seis, y que tambien son ciertas las deudas consignadas que existian en la misma época, de las cuales se pago muy poca cosa antes de contratar su segundo matrimonio, con D^a Maria del Carmen su actual esposa el cual se verificó en Junio de mil ochocientos cincuenta y siete ó sea siete meses despues de disueltas las primeras nupcias.

Declara que en ninguno de los matrimonios se formalizo contrato ni capitulado alguno por falta de bienes en los conyuges para verificarlo, y que tiene y reconoce por hijos legítimos suyos á saber, de D^a Laureana de Ocerin á D. Alfonso Maria, D. Conrado María, difunto, y a Sol de Azcue y Ocerin, y de D^a Maria del Carmen á D^a Aurora Maria, Resurrección Maria y Diana Maria de Azcue y Aberasturi.

Que su atencion a las insignificantes bienes que existieron cuando tubo la desgracia de perder á su primera esposa, y habiendose satisfecho todas ó casi todas las deudas que habia á la defunción de aquella despues de contraído su segundo matrimonio, manifiesta y quiere que se consiguen sus deseos de que si llega á faltar el declarante antes que su esposa actual D^a Maria del Cármen de Aberasturi, sean considerados para el reparto de las existencias que hubiere, como si todas ellas fuesen habidos de un solo matrimonio, sin que los del primero aleguen preferencia alguna por su legítima materna ni los del segundo se consideren privilegiados y que tanto unos como otros respectan, cuiden y tengan a dicha su esposa como madre propia, pudiendo ella misma cuidar y disponer tanto de las personas de los hijos como de los bienes que existieren al fallecimiento del declarante.

Asi lo declara y firma dicho Dn Eusebio Maria de Azcue hallandose presentes por testigos D. Valentin Ventades, D. Claudio de Algorta y D. Juan Agustin de Goya, los tres de esta vecindad que firman tambien. Y enterados los concurrentes del derecho á leer ó á hacerme leer este instrumento, á su eleccion, optaron por el ultimo medio, y tubo efecto su lectura de todo lo que doy fe con la del conocimiento=Eusebio M^a de Azcué=Valentin de Ventades=Claudio de Algorta=Juan Agustin de Goya=Signado: Licenciado Pedro de Olaortua.

Y á requerimiento de Dn Alfonso M^a de Azcué, libro, signo y firmo esta primera copia hoy dia ocho de Enero de mil ochocientos ochenta y cuatro, quedando su original, con el que concuerda, en mi registro del año de mil ochocientos setenta y dos, y anotada su saca. Emendado=ciento=los=valga.

Licdo Pedro de Olaortua [errubrikarekin]

(Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako artiboa. Resurreccion Maria Azkueren funts dokumentalak, 130/24).

4. Eusebio Maria Azkue eta bere seme Alfontso Maria Azkueren arteko notario-kontratua

En la villa de Lequeitio á veinte y nueve de Setiembre de mil ochocientos setenta y dos: ante mi el Licenciado D. Pedro de Olaortua, Notario del Colegio de Burgos, vecino de la villa de Lequeitio, distrito notarial del partido de Guernica, y testigos que se espresaron, comparecieron

Dⁿ Eusebio Maria de Azcué y Barrundia, casado, mayor de cincuenta años, Catedrático de Nautica, vecino de esta Villa, de una parte,

Y de otra, Dn Alfonso Maria de Azcue y Ocerin, su hijo de veinte y siete años de edad profesor tambien de Nautica, de estado soltero, domiciliado en esta misma Villa. Y manifestando ambos hallarse en el libre ejercicio de los derechos civiles espusieron: que el D. Eusebio obtuvo hace bastantes años la Cátedra de Dibujo y Geometria elemental, Trigonometria, Cosmografia, pilotaje y maniobra, en el establecimiento titulado de Nautica de esta villa: Y hallandose ya bastante achacoso sin poder cumplir, como quisiera, por la aglomeracion de materias, los deberes de su cargo, ha determinado de conformidad y consentimiento del director del mismo establecimiento dar participacion en la enseñanza á su hijo el D. Alfonso, y para el efecto convienen en las bases y condiciones siguientes:

1^a. Explicarán ambos padre e hijo todas las materias correspondientes á la Cátedra que el D. Eusebio M^a tiene á su cargo, alternando en la explicación de las mismas, y mientras D. Alfonso permanezca en estado de soltero vivira con su padre en comunidad de familia, como hasta ahora, percibiendo la cuarta parte del sueldo de dicha Catedra.

2^a. Si llega á contraer matrimonio, percibirá la mitad del Sueldo desde el día en que se case, siguiendo asi mientras los dias de su padre, separandose de la Sociedad de familia.

3ª. Si al fallecimiento del padre, Dn Eusebio, su hijo D. Alfonso, como es de esperar, sigue desempeñando la Catedra, abonará y entregará á su madrastra y hermanos la cuarta parte del sueldo, que por dicha Cátedra disfrute, pagando sus contingentes en los plazos en que cobre sus haberes.

Esta obligación de D. Alfonso dura mientras los dias de la madrastra; y si esta falleciese, hasta la colocacion de todos los hermanos en matrimonio, o hasta que todos ellos tengan su modo de vivir independiente. Con cuyas clausulas, y manifestando los interesados la aprobacion del director del Establecimiento, formalizan Padre e hijo este convenio que se obligan á cumplir, bajo la responsabilidad de los gastos, y daños y perjuicios, que de no cumplirlo se irrogaren, que avonará el que diere causa á ellos. Asi lo digeron, otorgan y firman dichos D.ª Eusebio Maria y Dn Alfonso Maria de Azcué, estando presentes por testigos Jose Miguel Urresti, y Ygnacio Berrojalbis, los dos de esta vecindad, que manifestaron no tener prohibicion de serlo, y firman tambien, y enterados los concurrentes del derecho que les concede la ley para leer ó hacerme leer este convenio, á su eleccion, optaron por el ultimo medio y tuvo efecto su lectura, de todo lo que yo el Notario [doy] fe con la del conocimiento á los otorgantes y testigos=Eusebio Maria de azcue=Alfonso Maria de Azcué=Ygnacio de Berrojalbiz=Jose Miguel de Urresti= Signado: Licenciado Pedro de Olaortua.

Y á requerimiento de D. Alfonso, libro, signo y firmo esta primera copia, quedando su origina con el que concuerda en mi protocolo corriente y anotada su saca. Emendado=Setiembre=vi=me=valga.

Lic^{do} Pedro de Olaortua.

D[e]r[ech]os cuatro pesetas. [errubrika]

(Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako artiboa. Resurreccion Maria Azkueren funts dokumentalak, 130/25).

5. Azkue aita-semeei gorazarrea

Azkue Aita Semeei

GORASARREA

VII-garren Eusko-Olerti-Eguna

LEKEITIO'n

1936-Bagilla'ren 28-gn.

*Egitaraua***Bagilaren 27-gn.**

Arratsaldeko lau eta erdietan, Udaletxean, UMIEN AZTERKETAK, Euskeraz zeñek obeto irakurri.

Gabeko zortzi ta erdietan, GORA-BURU ANTZOKIAN Antze-yaya, AZKUE AITA SEMEEN OMENEZ, ITZALDIAK:

«Azkue'tar Eusebi M.^a, olerkari», LAUAXETA yaunak eginda.

«Azkue'tar R. M.^a, euskal-irakasle», ALTZO abak.

«Azkue'tar R.M.^a, antzerkigille ta ereslari», LABAYEN'dar Andoni M. yaunak.

«Azkue'tar R.M., euskal elertilari», ARIZTIMUÑO yaunak.

Bitartietan, OMENDUAREN OLERKIAK esango ditue umeak, eta euron ABESTI batzuk be, kantauko ditu abestaldeak.

*Olerti egunean***Bagillaren 28-gn.**

Igande goizean, TXISTULARIAK kalerik kale.

Amarretan, MEZA NAGOSI ABESTUA.

Meza ostean, Udaletxean, VII-garren EUSKO-OLERTI-EGUNA'ko sariketa eta olerki saritua irakurtea.

Ondoren, BERTZOLARIAK plazan.

Ordubatetan, Udaletxean, BAZKARIA.

Arratsaldean, lau ta erdietan, AZKUE'tar EUSEBI M.^a yayo zan etxean GOMUTARRIA AGERTUAZOTEA. Batzordeko batek egingo dau eskeintzea, eta EUSKALTZALEAK'eko lendakari yaunak ITZALDIA.

BERTZOLARIAK barriro be, ekitaldia.

Yarrayan, plazan, DANTZA-SOÑUA, zazpirak arte.

Gabaz, bederatzietan, GORA-BURU antzokian, Antzerti-yaya, Oyarzungo MENDIBURU TALDE ospatsuak antzeztuta EUN DUKAT.

YAI-BATZORDEA.

OARRA: Bazkarira eldu nai dabenak, illa onen 25-karrenerako adierazo begioe Yai-Batzorde oneri. –Zuzenbidea: AZKUETARREN OMEN BATZORDEA, Udaletxea, Lekeitio.

(Lekeitioko Udal Artxiboa 2005-4).

6. **Resurreccion Maria Azkueren lanen erakusketa 1936ko gorazarrean**

(Sección Musical)

Cancionero Popular Vasco (con acompañamiento), 12 tomos.

Cancionero Popular Vasco (sin acompañamiento), 9 cuadernos.

Vizcaitik Bizkaira–Zarzuela en tres actos (la música).

La Música Popular Vascongada (Conferencia).

Música Popular Vasca (conferencias).

Urlo–Opera vasca en tres actos con textos vasco, español y alemán.

Sasi-eskola.

Pasa de chimbos.

Andra Urraca (Oratorio).

Tantum ergo.

Begoña-ko Andra Mariari.

Errosarioa euskeraz.
Litania SS. Cordis Jesu.
Andra Mariari oiuk.
Iesusen Biotzari oiuk.

(Sección literaria)

Euskalerriaren Yakintza (Literatura Popular del Pais Vasco).
Euskalzale–Revista.
La estigmatizada de Konnersreuth.
Discurso leído en la Real Academia Española
Igarkizunak.
Txirristadak.
Lamiak Euskalerrian.
Jesusen Biotzaren ila.
Urlo–Opera–(libreto)–Texto Vasco, Español y Aleman.
Vizcaitik Bizkaira–Zarzuela en tres actos (libreto).
Ardi Galdua.

(Sección Euskeralogica)

Morfología vasca
Diccionario Vasco Español Frances (2 tomos)
Diccionario V.E. y E.V. (de bolsillo).
Particularidades del dialecto roncalés.
Gipuzkera osotua.
Acerca del Santoral vasco.
Advertencias a las notas sobre el santoral Vasco.
Evolucion de la Lengua Vasca.
Observaciones acerca de la obra *Langue Basque et Langues F.*
Neologismos formados a imitación de otras lenguas.
La Epéntesis en la conjugación Vasca.
Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos.
Aezkerea edo Petiriberro inguruetako mintzaera.
Verbo Guipuzkoano–Apendice de la Morfología Vasca.
Prontuario de la Lengua Vasca.